

Barrena



KIROLA

Atleta onenak bilduko ditu Mugertza krosak igandean Elgoibarren

Hamabi lasterketa izango dira guztira, eta nagusien probak 12:35ean hasiko dira, emakumezkoen lasterketarekin / **24**



Atleta talde bat eta jendetza handia Mintxetan, iazko krosean. ASIER ORBEA

HEZKUNTZA

Egokitutako oinarritzko Lanbide Heziketa eskaintzen hasi dira Elgoibarko Meka ikastetxean / 2-4

KULTURA

Yuliya Prokopenko mendaroarraren Ukrainari buruzko erakusketa, Tolosako Topic zentroan / 26

EUSKARA

Hizkuntza-hautuen inguruko lanagatik Txillardegia-Hausnartu saria jaso du Ainhua Delgado ermuarrak / 18

KULTURA

Urtarrilaren 24an omenaldi berezia egingo diote Kike Turmix musikariari Deban / 27



Enpresen Administrazio Zerbitzuko egokitutako zikloa egiten ari diren ikasleak, eskolako eta Nuala elkarteko ordezkariekin. AINARA ARGOITIA

HEZKUNTZA

Aniztasun funtzionala duten ikasleei bidea erraztu diete Meka ikastetxean

Bailaran ikastetxe publiko bakarra da Meka egokitutako oinarritzko Lanbide Heziketa eskaintzen

Ainara Argoitia ELGOIBAR

Elgoibarko Meka ikastetxean oinarritzko Lanbide Heziketako ziklo egokitua jarri dute ikasurte honetan, Enpresen Administrazio Kudeaketa arlokoa. Aniztasun funtzionala edo gaitasunen aniztasuna duten pertsonen familia eta lagunen Nuala elkarteak egindako eskaera bati erantzuten dio eskaintzak, eta Elgoibarko Udalaren, Meka Lanbide Eskolaren eta Jaurralitzaren arteko lankidetzari esker sortu dute. Hiru urteko ikasketak dira, hezkuntza premiaz bereziak dituzten ikasleentzat egokituak, eta, alde horretatik, aitzindaria izan da Meka lanbide eskola, era horretako ziklo bat eskaintzen duen ikastetxe publiko bakarra delako bailaran. Orain arte, Donostiako Gu-

reak eta Bilboko Otxarkoagako Prestakuntza Zentroko eskaintza baino ez zegoen.

"Askotarikoak gara eta ezberdinak, eta, inguruak ezartzen dizkigun eskakizun, muga edo zailtasunen arabera, aniztasun funtzional gehiago edo gutxiago izaten ditugu". Begi-bistakoa dirudi, baina nahi baino gehiagotan errepikatuzera behartuta sentitzen dira Nuala elkartekoak oraindik ere, eta hala hasi zuen aurkezpena elkarteko kide Miriam Aldazabalek, azaroaren hondarrean Meka ikastetxera egindako bisitan. Orduko entzuleak ulerberagoak zituen, baina. Izan ere, oinarritzko Lanbide Heziketa egokituko ikasleen eta irakasleen aurrean ari zen Aldazabal. "Denok dauzkagu gure gaitasunak eta mugak, eta pertsona guztiongan pentsatzen badugu, ikuspegi global eta inklusibo batetik begiratzen ikasten baldin badugu, oso funtzionalak izango gara", zehaztu zuen. Mezua argia zen: aniztasun funtzionala duten pertsonen gainerako herritarren aukera berberetzeko bermea izan behar dute. Eta, zailtzarrik gabe,

hezkuntzarako eskubidea da bermatu beharreko kontu oinarritzkoetako bat. Hala sinistuta daude Elgoibarko Meka ikastetxean.

Inguru gertuko zortzi ikasleekin hasi zuten ziklo egokitua Elgoibarko Meka ikastetxean iaz, irailean. Ezaugarri jakin batzuk betetzen dituzten ikasleak dira guztiak, baldintza delako hori: aniztasun funtzionala izatea eta Bigarren DBH eginda izatea edota bestela 17 urtez gorakoa izan eta ZIG Zerenginen Ikaskuntzarako Gela gela batetik etorritakoa izatea. Horri hirugarren kontu bat ere gehitu behar zaio, jatorritzko ikastetxeko irakasle taldeak gomendatuta baino ezin baitira matrikulatu zikloan.

Hiru urteko ikasketak

Formakuntza egokitukoak izanda, bi urtekoak barik hiru urtekoak dira ikasketak, eta azkeneko urtean hiru hilabeteko praktikaldia egingo dute ikasleek enpresetan. Dena gainditzen duenak Administrazio Zerbitzuko Oinarritzko Profesional titulua eskuratuko du. "Gauza han-

dia da hori, bestela zaila izango luketen ikasle horiek titulu batekin irtengo direlako hemen-dik", zehaztu du Begoñe Zabalak, Mekako orientatzaileak. Izan ere, gaur egun, DBH-2ra arteko bidea osatu eta ondorengo lau urteak ZIGen egiten dituzten ikasleak -16-21 urte- DBHko titulu barik irteten dira eskolatik. Gradu titulu hori lortzeko bi bide daude: bide arruntetik gainditzea DBHko lau urteak edota lehenengo bi urteak bide

Hiru urteko ikasketak dira, eta azken ikasturtean praktikak egiten dituzte enpresetan

Administrazio Zerbitzuko Oinarritzko Profesional titulua jasoko dute

arruntetik gainditu, eta ondorengo biak Curriculum Anitzeko programaren barruan. Eskolara egokitzeko zailtasun nabarmenak eta ikaskuntza-erritmo desberdinak dituzten ikasleei zuzenduta dago programa hori, eta DBHko gradua titulua lortzen laguntzea du helburu.

Lan-mundurako prestakuntza

Enpresarekin lotutako lanbideetarako trebatzen dituzte ikastetxean, eta hartarako ikasgaiak dituzte: Bulegotika, EIP Enplegarritasun Ibilbide Pertsonala -norberaren orientazioa, autoezagutza eta abar lantzen dituzte-, Administrazioa, Komunikazioa eta Gizartea, Zientzia Aplikatuak eta Tutoretza, eta ikasketa prozesu osoan hiru irakasle dituzte bidelagun: administrazio kontuetarako, ikasgai orokorretako eta Pedagogia Terapeutikoko irakaslea. Horrez gain, eguneko ordu batzuetan Mekan bertan Gizarteratze zikloa egiten ari diren bi ikasle boluntarioren laguntza ere izaten dute gelan.

Alde praktikoa lantzen dute, bereziki, ikasgelan, eta, etorkizuna irudikatzen hasteko, bi enpresa sortu dituzte: ZaporeGo eta Meka Kolore. Sukaldaritza zerbitzua eskaintzen dute lehenengoan, eta asteazkeneko tortillak egin eta pintxoak saltzen dituzte ikastetxean, atsedendian, baina urtebetetzeetarako eta etxera eramateko enkarguak ere jasotzen dituzte tarteka. "Aste osoko antolaketa egiten dute, ostiraletan hasita. Erosketa-zerrenda egin eta funtzioak banatzea izaten dute ostiraletako lana, astelehenean erosketak egin ahal izateko. Asteartean bestelako enkargu batzuk egin eta asteazkenean kozinatuta eta pintxoak saltzen dituzte eskolan, eta ostegunetan erregistro-orriak betetzen dituzte. Eginez, gauza asko ikasten dituzte, beraz", azaldu du Zabalak. Meka Kolore enpresan, berriz, inprenta zerbitzua ematen dute, eta egutegiak, orri-markagailuak eta bestelako produktuak sortzen dituzte. Ikastetxean bertan arreta zuzena ematen dute ikasleek.

"Zalantza barik, lorpen handia da hau, hezkuntza publikoan etorkizunerako ate bat zabalik ikusten dutelako lehen biderik ikusten ez zuten familia askok. Ona litzateke ikastetxe gehiagotan zabaltzea aukera hau", nabarmendu du Zabalak.

Desgaitasunei barik gaitasunei erreparatzeko eskatu dute ikasleek

Hezkuntza-premia bereziak dituzte denek, eta gehienek ezagutzen zuten elkar Mekan eskolatu aurretik, ikastetxetik ez bada, aisialditik. Nadiushka Alberdi markinarra da, baina Institutuan ezagutu zuen Eneko Casado ikaskide durangarra, ZIG Zereginen Ikaskuntzako-Gelan. Casadok, berriz, futboletik ditu lagun Mohamed Ali Mohaned Lamin eta Amets Vega eibartarrak. Eibarko futbol klubeko DI taldean jokatzeko dute, eta Genuine ligan lehiatzen dira. Nork bere bizipenak ditu, eta, errazago edo zailagoa izan badute ere, denek aitortu dute eskubidez gabetuak sentitu izan direla noiz edo noiz. "Gizarteak baztertuak", esan du bakar batek, baina hitza gogorregia egin zaie ikaskideei. "Aukera gutxiago daude guretzat", zehaztu du Alberdik, eta, itxura batean, eramanerrazagoa egin zaie besteei. Zortzi ikasle dira gelan, eta hiru irakasle dituzte laguntzeko. Pozik daude Mekan eskaintzen dieten arretarekin, pozik osatu duten lagun taldearekin, eta oso pozik etxetik gertu ikasi dezaketelako, bai eta "ordutegi ona" dutelako ere.

Casadok aitortu du lorezaintza ikasi nahi zuela, baina bere ezaugarriak ikasle batentzat Bilbon edo Gasteizen baino ez dagoela horretarako aukera, eta horregatik erabaki zuela Administrazio Egokituko zikloa hastea Elgoibarren. Gertu izatea beti da gauza ona, baina are gehiago ikasle horietako batzuen kasuan. Eibartarra da Amets Vega, eta esan du lanaldi murriztuan duela aita, berari laguntzeko. "Hala ere, lanaldi murriztua izanda ere, ezingo luke egunero nirekin atzera-aurrera

ibili hiribururaino". Esan beharrik ez dute hezkuntza-aukera bera murriztagoa dutela jabe gaitezen, hezkuntza publikoan ikastetxe bakarra delako Meka egokitutako Lanbide Heziketa eskaintzen duena bailaran. Baina hori baino gehiago da, haien ahotan. Batek ez beste guztiek Pedagogia Terapeutikoko irakasle baten laguntza izan dute ikasketa prozesu osoan, baina laguntza hori Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren mailara arte eskaintzen du Hezkuntza Sailak, eta kexu dira horrekin. "Aurrera egiteko aukera gabe uzten gaituzte, DBH2n Pedagogia Terapeutikoko irakasleak kenduta", salatu du Vegak; bat datoz gainerakoak. Hezkuntzan baliabide gehiago behar direla uste dute, eta egungo sistemak ez diela erantzuten jende baten beharrei. Izan ere, arazoa ez da ezaugarri ezberdinetako jendeak osatzea gizartea, ezpada gizarteak jende guztiarentzako zerbitzu egokiak eskaintzeko dituen ageriko mugak. "Laguntza egokiarekin denok egin dezakegu besteek gugandik espero dutena baino gehiago", zehaztu du, horren harira, Alberdik.

Salatu dute ezinei erreparatzeko joera dugula, oro har, denok, gaitasunei erreparatu ordez. "Bidaltzen duzu curriculum enpresetara, deitzen zaituzte elkarriketarako, baina jabetzen badira desgaitasunen bat duzula, berehala baztertzen zaituzte, ez badaude, behintzat, derrigorlari enpresa handia izateagatik desgaitasunen bat duten langile kopuru bat hartzera. Etsigarria da", aitortu du Casadok. "Jakina dela etsigarria. Niri kostatzen



Ikasleak eurak, zikloaren ezaugarriak aurkezten. A. ARGOTIA

egiten zaizkit gauza batzuk, baina hizkuntzak ikasteko erraztasun handia daukat, adibidez, eta taldean lan egiteko gaitasun handia", gehitu du, aldamenetik, Mohamed Laminek. "Ezingo ditugu gauza guztiak egin, baina ba al dago dena egin dezakeenik? Edozelan ere, gauza bat dago hemen argi: guri ere gainerakoei dagozkien eskubideak izatea dagokigula eta hori bermatu beharra dagoela", zehaztu du, ondotik, Alberdik. ZIG gelako ikasketak amaitu zituenean mekanika enpresa batean egin zuen lan uda batez Alberdik: "Udan lan egin nahi genuen

IKASKETA-TITULUA LORTZEKO AUKERA ESKERTU DUTE, ZIG GELETAKOEK EZ ZUTELAKO GAUR ARTEAN

galdezka etorri zitzaizkigun gelara, eta denok erantzun genuen baietz. Hasi nintzen, eta, egia esan, oso gustura aritu nintzen lanean, baina 100 euro irabazi nituen. Lana gustuko nuen, baina baldintzak ez".


Lan egin nahiko lukete denek, autonomia ekonomikoa izan, eta lanera prestatzeko aukera ona irizten diote Mekako eskaintzari, egokitua delako, behar duten laguntza izango dutelako eta titulazio bat lortzeko aukera izango dutelako dena gaindituz gero, bestela izango ez luketena. "Behintzat, Administrazio Zerbitzuetako Oinarriko Profesionalak garelako ziurtatuko duen agiria izango dugu ikasketak amaitutakoan. Zerbait frogatzeko aukera izango dugu, beraz, ZIG geletan ibilitakook ez dugulako ikasketa-titulurik lortzen bestela.

Protagonisten esanetan



BEGOÑE ZABALA MEKA IKASTETXEKO ORIENTATZAILEA

"Zalantzarik gabe, lorpen handia da hau, etorkizunerako aukera bat zabalik ikusten dutelako orain lehen biderik ikusten ez zuten familia askok hezkuntza publikoan. Gurasoak oso eskertuta daude".



MOHAMED ALI MOHAMED LAMIN IKASLEA

"ZIG gela batetik etorri naiz ni hona, Eibarko irakasleak aholkatuta. Hasieran ez nuen gogo onez hartu hona etortzea, baina orain pozik nago, Elgoibar gertu daukadalako eta hemen laguntza handia jasotzen dudalako".



ENEO CASADO IKASLEA

"ZIG gela baten ibili naiz Durangon, eta, aukera hau sortuta, etxetik gertuago ikasteko aukera daukat; bestela, Bilboraino edo Gasteizeraino joan beharko nuke lorezaintza egitera. Bukatzen baldin badut, gainera, titulu bat izango dut lanean hasteko".



NADIUSHKA ALBERDI IKASLEA

"Gu ere pertsonak gara, eta aniztasun funtzionala izateak ez gaitu beste inor baino gutxiago egiten. ZIG gela amaitutakoan praktikak ere egin nituen nik udan, baina 100 euro bakarrik ordaindu zidaten. Guri ere badagokigu gainerakoen moduko aukerak izatea".



AMETS VEGA IKASLEA

"Nik irakasle laguntzailea izan dut beti, baina DBHko bigarren mailatik gora ez dago figura hori eta ezin dugu aurrera egin. Baliabide gehiago behar dira hezkuntzan. Iruditzen zait ikusgarritasuna eman behar zaiola gai honi, inor ez lagatzeko bazter".

"Mugak gizarteak jartzen dizkie, eta bada ordua gogoeta egiteko"

MIRIAM ALDAZABAL NUALA ELKARTEKO KIDEA

Nualatik eskatutakoa da, eta pentsatzekoa da pozik hartuko zenutela egokitutako zikloa sortu izana. Zer balorazio egiten duzue?

Oso pozik gaude, sentitzen dugulako lan-munduan sartzeko hain aukera urriak dituzten gure senideei, aniztasun funtzionala duten gure seme-alaba eta lagunei, aukera bat zabaldu zaiela; ate bat, azken batean. Dena den, iruditzen zaigu ate bakarra gutxi dela, eta uste dugu zabaldu beharko litzatekeela aukera hau beste herri batzuetara. Eskubidez dagokigu. Iruditzen zait gizarteak onartu egin behar duela askotarikoa dela eta bultzatu egin behar duela denontzako aukera-berdintasuna. Baina emandako pauso honekin oso gustura gaude, eta eskertuta ere bai.

Desgaitasunei barik gaitasunei erreparatu beharko geniekela esan digute gazteek eurek.

Jakina. Curriculumaren egokitzapen bat dute ZIG Zereginen Ikaskuntzarako

Geletakoek, konforme, baina ikasten dituzte gauza asko eta trebatzen dira zeregin askotarako. Ez dira gai Matematika karrera ikasteko, baina gauza asko egin ditzakete. Ume direnetik zer egin ezin dezaketen esaten aritzen zaizkigu inguruko guztiak gurasooi, baina guk geuk dakigu ondoen zertarako gai ez diren gure seme-alabak; hala ere, inork erreparatzen al die haien gaitasunei? Gizarte honetan zeregin asko bete behar dira, eta, izatez, denentzako lana dago. Mugak gizarteak jartzen ditu hemen, eta bada ordua horren inguruan gogoeta egiteko, gizartearen berez delako askotarikoa.

Ziklo horri esker bestela lortuko ez luketen ikasketa-titulua eskuratzeko aukera izatea eskertu egin dute ikasleek.

Jakina. Gure gizartearen edozertarako behar dira paperak. Dena behar da egiaztatu eta ziurtatu, eta gertatzen zitzaiguna zen 20-21 urtera arte ZIG gela batean ikasten egon den batek ez zuela hori lortzerik. Oso



A.ARGOTIA

gutxiak zuten, gainera, gero ikasten jarraitzeko aukera ere, eta zer esanik ez hezkuntza publikoan. Bakarren batzuk, posible baldin badute, Gureak-en Pauso Berriak-en sartuko dira, baina ate hori ere oso estua da. Eta beste asko gelditzen dira nora jo jakin gabe. Batzuk-batzuk sartuko dira Gureak-en menpeko tallerretan, baina beste askorentzat eguneko zentroak izango dira aukera bakarrak, nahiz eguneko zentroetako helburua ez den pertsona formatzea, ezpada duten autonomia mailari eustea. Ezagutzen dut Gureak-eko tallerrean dabilen bat, oso ona dena Historian, baina

han dago, beste aukerarik izan ez duelako. Begira zenbat talentu ari garen galtzen, sistema dugun moduan eratua dugulako.

Ate bat zabaldu da, eta gure eskualdekoentzat, gertuan, gainera. Estimatu egin dute ikasleek.

Hori da. Desgaitasunak dituzten pertsonak beti egongo dira, eta herri guztietan, gainera; beraz, ikasteko aukera ere denean izan beharko lukete. Gipuzkoan, Mekako hau sortu aurretik, aukera bakarra zuten gure seme-alabek: Gureak-en Pauso Berriak, Donostiako aldirietan. Eta, jakina, gure elkarteko kide batzuk joan ahalko lirateke haraino bakarrik, baina beste batzuk, nekez. Autobusa hartu ahal izango lukete, akaso, baina gero, iritsiko lirateke Donostiara eta han egongo lirateke autobus geltoki batean, jende asko eta zarata handiarekin, eta hartu beharko lukete beste autobus bat. Hori oso zaila egiten zaie askori. Bidegabekia da zailtasun hori dutelako esatea ezin dutela ikasten jarraitu; horregatik bakarrik mugatzea haien etorkizuna. Erraz ulertzen dugu aulki gurrildunaren dabilen batek ezin duela autobusa hartu arrantparik ez badu igotzeko, ezta? Eta orduan, zergatik kostatzen zaigu horrenbeste beste hau ulertzea, gauza bera baldin bada?



MIKEL INIGUEZ
DENTAL STUDIO

“ HORTZEN EUSKARRIA OSASUNTU MANTENTZEAZ ARDURATZEN DEN ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOA DA. ”

ABANTAILAK:

- HORTZ GALERAREN PREBENTZIOA.
- HORTZOIETAKO OSASUNAREN HOBETUNTZA.
- HATS TXARRAREN KONTROLA. (HALITOSIA)
- HORTZOIEN ETA HORTZEN ITXURA OROKORRAREN HOBETUNTZA. ETA AHOAREN FUNTZIONALITASUNAREN BERRERKUNTZA.



RPS: 81/25

WWW.INIGUEZDENTALSTUDIO.COM



INIGUEZ_DENTALSTUDIO

KALEBARREN PLAZA 4W. BEHEA / 20870 ELGOIBAR



616 68 03 11



Korrikak egingo duen ibilbidea. KORRIKA



Birritan pasatuko da Korrika Debarrena eskualdetik, martxoaren 25ean eta 28an

Atharratzen hasi eta Bilbon amaituko da 24. Korrika, 'Euskara gara' lelopean

Ainara Argoitia MENDARO

Hasi da atzerako kontaketa. AEK euskaltegiak joan zen astean eman zuen argitara 24. Korrikaren ibilbidea. Atharratzen (Zuberoan) hasiko da oraingoan, martxoaren 19an, 15:30ean, eta, 2.175 kilometroko bidea eginda, Bilbon amaituko da, martxoaren 29an. Alderik alde gurutzatuko du Euskal Herria hamaika egunean, *Euskara gara* lelopean, eta, tartean, Debarrenetik ere igaroko da, birritan: martxoaren 25ean (asteazkena)

eta 28an (larunbata). Estreina-ko aldian, Zumaiatik barrena sartuko da gurean, Itziarren, arratsalde, 17:59 aldera. Handik Debara jaitsi eta Mutrikura egingo du gero, eta Lea-Artibai eskualdean sartuko da. Bigarren aldian ere Urolatik iritsiko da Korrika; Azkoititik baina. Azkaraten behera etorriko da martxoaren 28an euskararen aldeko lasterketa, iluntzean, eta 19:26 aldera sartuko da Elgoibarren. Elgoibarko kaleak zeharkatuta Soraluzera joko du

gero, eta han, itzulia egin eta Debagoienean hankarik jarri gabe, Eibarrera itzuliko da, bide beretik. 21:11 aldera sartuko da Eibarren, ondo bidean, eta Bizkai alderantz joango da. Antolatzaileek kalkulatu dute 22:00 aldera iritsiko dela Ermura; handik Mallabira egingo du gero, eta Durangaldera igaroko da.

Eskualdeko herri guztietatik pasatuko da, beraz, Korrika oraingoan, Mendarotik izan ezik. Beti ez da tokatzen herrian, eta

aurretik batera edo bestera egin beharko dute Mendaroko euskaltzaileek euskararen aldeko ekimen jendetsuenean parte hartzeko. Badago aukera, hala ere: AEK-k jakinarazi du otsailaren 1ean zabalduko dutela kilometroak erreserbatzeko aukera.

Abiatzea, Atharratzetik

Ohitura du Korrikak aurrekoa amaitu zen lurraldean hasteko, eta oraingoan ere hala egingo du. Baionan bukatu zen orain hurrengo, eta Zuberoan hasiko da aurtengoa, Atharratzen, 15:30ean. Arrazoi gehiago ere badira, baina, abiatzea Zuberoatik egiteko, antolatzaileen esanetan. Nagusia, hauxe: Korrikaren "itzalguneetako" bat dela Zuberoako Basabürüa eskualdea, Korrika ez da-eta handik pasatu, ezpada abiatzeko. Handik iragan zen lehenengo eta azkenengo aldia 1985. urtean izan zen. Laugarren Korrika izan zen, eta Atharratzen hasi zuten. Era berean, baina, euskara sustatzeko eta kaleratzeko beharrak ere bultzatu ditu antolatzaileak Korrika Atharratzen abiaraztera. Izan ere, beharra "sekula baino agerikoagoa da" Zuberoan, eta bereziki Basabürüan. Azken inkesta soziolinguistikoaren emaitzek erakutsi dute etxeko transmisioa eten egin dela, eskola-transmisioak ez duela %15 gaintitzea lortzen, eta euskara gero eta gutxiago entzuten dela kalean. Gainera, Zuberoa da, eta bereziki Basabürüa eskualdea, azken hiru hamarkadetan euskal hiztun gehien galdu dituen lurraldea/eskualdea, biztanle-kopuruaren arabera.

Korrika eskualdean

Martxoaren 25a

(asteazkena)

- Itziar (Zumaiatik): 17:59
- Deba: 18:57
- Mutriku: 19:23

Martxoaren 28a

(larunbata)

- Elgoibar (Azkaratetik): 19:26
- Soraluze: 20:36
- Eibar: 21:11
- Ermua: 22:00
- Mallabia: 22:29

Amaitu, berriz, Bilbon amaituko da Korrika, martxoaren 29an (igandea). Hala tokatzen zen aurretik. Izan ere, Euskal Herriko bost hiribururen artean txandakatzen dira bukaerak. Antolatzaileek emandako ordu-tegi-taularen arabera, 07:20 pasatuta sartuko da Korrika Bilbon, eta eguerdian irakurriko dute lekukoak barruan eramango duen mezu sekretua, 3.436 lagun baino gehiagok eskuz eskuz erabiliko dutena hamaika egunean.

Korrika zuzenean jarraitzeko aukera izango da aurretik ere, bai aplikazioaren bidez, bai eta webgunearen bidez ere. Furgonetaren geolokalizazioari esker, Korrika ordurako datorren jakin ahal izango da, eta, gainera, furgonetako bertako zuzeneko irudiak ere ikusi ahal izango dira. Aplikazioa IOS zein Android bertsioentzat dago eskuragarri, debalde.



Elgoibarko Izarren lekuko eramaileak orain hurrengo Korrikan. BARRENA

Korrika Laguntzailea izatearen onurak

1980an Euskal Herria Oñatitik Bilbora zeharkatu zuen lehenengo Korrika hura antolatu zutenetik, Korrikak beti izan du helburu bera: euskararen aldeko kontzientzia suspertzea eta Euskal Herri osoko gaueskolen zein euskaltegien eguneroko lana

indartzeko dirua biltzea. Horretarako, ezinbesteko figura da Korrika Laguntzailearena. Korrika Laguntzaileek 15 euroko ekarpena egiten diote Korrikari bi urtean behin, eta trukean, edizio horretako pina eta txartel birtuala jasotzen dituzte, aplikazioaren bidez. Era

berean, baina, abantaila batzuk ere badituzte laguntzaile izateagatik: hasteko, AEK-k astero-astero laguntzaileen artean egiten duen zozketan parte hartu dezakete. Astero hamabost bat lagun saritzen dituzte antolatzaileek, eta 600 bat sari banatu.

EKONOMIA

Elgoibarko eta Tolosako anbulantzietako langileen egoerak argitzeke segitzen du

ELAk grebara deituko du, eta Osasun Batzordea aktibatzea eskatuko EH Bilduk

Ubane Madera Zangitu ELGOIBAR

2026ko urtarrilaren 7az geroztik, Osakidetzaarena da Elgoibarko eta Tolosako anbulantzia medikalizatuen kudeaketa. Ordura arte, Ambulancias Gipuzkoa S. Coop enpresak kudeatu du, Osakidetza azpikontratatuta. 45 langile zituen: medikuak, erizainak eta osasun garraioko teknikariak. Langile horietako bederatzi bazkideak ziren eta gainerako 36ak, kontratatuta-koak.

Lan-gatazka, konpontzeke

Orain, berriz, zerbitzua "erabat publikatu" du Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak, "funtsezko zerbitzuak publikatzeko Osasun Itunean hartutako konpromisoa" berresteko asmoz. Aldiz, publikazio hori egiteko moduak oraindik konpontzeke dagoen lan-gatazka eragin du Gipuzkoako anbulantzietako langileengan. Izan ere, Osasun Sailak proposatu zuen langile horiek bitarteko izatera pasatzea, harik eta LEP (OPE) edo lan deialdi publikoa atera arte.

Enpresako langileen ordezkari-ritza duen ELA sindikatuak, berriz, "indarrean dagoen hitzarmen kolektiboa betetzeko" exijitu eta Elgoibarren eta Tolosan zerbitzua ematen duten langile guztiak subrogatzea exijitu zion administrazioari. Zehazki, ELAk eskatzen du langile horiek pasa daitezela Osasun Saileko langile finko izatera, harik eta erretiroa hartu arte.

Langileen etorkizuna, kolokan

Abenduaren 30ean egin zuen hori sindikatuak, prentsaurreko bitartez, langileen presentziarekin. Bertan, ELAk salatu zuen sindikatuko hiru ordezkari hilabeteak eman zituztela publikazio horrekin lotuta "informazioa, elkarrizketa eta gardentasuna" eskatzen Osakidetza arduradunei eta enpresakoei, baina prozesua "aldebakarrekoa eta opakoa" izan zela. Gaineratutakoaren arabera, azken mahai sektorialean ez zieten aldaketen berri eman, eta, zerbitzuaren publikazioa



Enpresako zenbait langile eta ELA sindikatuko ordezkariak, abenduan. ELA SINDIKATUA

1.700

LANGILE AZPIKONTRATATUTA

EAEn 1.700 langile daude azpikontratatuta anbulantzia zerbitzuak emateko

indarrean sartu den arren, langileen etorkizuna ez dute argitu.

"Aurrekari oso arriskutsua"

Maria Uria anbulantzien sektoreko EAEn ELAko arduradunak esan duenez, urtarrilaren 9an Jaurlaritzak beste proposamen bat egin zuen, baina hark ere ez zituen asebate ez langileak eta ezta sindikatua ere.

Gauzak horrela, eta ikusita, oraingoz, ez dutela negoziazio mahaiaren bilerarik antolatu, ELAk greba deialdia aurkeztu du urtarrilaren 19tik 25era bitarterako, LAB, ESK, CCOO eta UGT sindikatuarekin batera.

Greba sektore osorako deitu dute; izan ere, ELAk dioen moduan, "publikazio modu horrek aurrekari oso arriskutsua" zabalitzen du, EAEn sektore horretan 1.700 pertsona baitaude azpikontratatuta: "Orain 45 lan-


gilerendako planteamendua egin da, baina aurrerago langile guztiendako izan liteke".

EH Bilduk, Osasun Batzordea

Bestalde, EH Bilduk prentsa-ohar bidez esan duenez, "anbulantzia medikalizatuen publikazioak bertako langileentzat ondorio larriak izan ditzakeela kontuan hartuta, ezinbestekotzat" jotzen du Legebiltzarreko Osasun Batzordea urtarrilean aktibatzea, nahiz eta jarduera parlamentarioa hilabete horretan etenda egon.

Koalizio independentistak langileen ordezkarien zein Osasun sailburu Alberto Martinezen azalpenak entzun nahi ditu, prozesua "berme guztiekin" garatu ahal izateko; Rebeka Ubera legebiltzarkidearen esanetan, "funtsezkoa da Legebiltzarrak publikazio prozesuan inplikaturiko alde guztiei entzutea, ahal den heinean, elkarrizketa, negoziazioa eta, azken batean, publikazioa bultzatzeko". Uberak gaineratu duenez, "ez Osakidetza ez Osasun Sailak ez dituzte prozesu horren inguruar guztiak argitu, ez eta zein izango den langile horien etorkizuna zehaztu ere, eta horrek, normala denez, kezka eta ezinegona areagotu ditu langileen artean. Izan ere, ematen ari zaien tratua ez da onargarria". Halaber, gaiak urgentzia duela uste dute, "haiek eta haien familiek ezin dutelako otsailera arte itxaron; Legebiltzarra ohiko funtzionamendura itzuli arte, alegia".

ELA, LAB, ESK, CCOO eta UGT sindikatuak grebara deitu dute urtarrilaren 19tik 25era bitarterako



Lamoten grabatuaren ikuspegi bat. SORAPEDIA

EKONOMIA

Lamot-en grabatua, 'Euskal Herriko historia 100 objektutan' proiektuan

XVIII. mendeko Soraluzeko eta Debarroko armaginen jarduera erakusten du grabatu horrek

U.M.Z. SORALUZE

Soraluzeko Entziklopedia Digitalaren ekimenez (Sorapedi), XVIII. mendeko Soraluzeko eta Debarroko armaginen jarduera erakusten duen Lamoten grabatua *Euskal Herriko historia 100 objektutan* izeneko proiektuan txertatu dute hasi berri den urtean.

Horri esker, orain, Sorapedian ez ezik, Wikipedia entziklopedia askean ere bada Lamoten grabatuari buruzko sarrera esanguratsu bat.

Euskal Herriko handiena

Sorapediak esandakoaren arabera, *Euskal Herriko historia 100 objektutan* proiektuaren berri izan zutenean, iruditu zitzaizen "euskal armagintzak" bertan egon behar zuela, batez ere "antolaketa aldetik eta 300 urtean Euskal Herriko enpresa industrial handiena izan zelako".

Hori horrela, *Euskal Herriko historia 100 objektutan* proiektuaren egile Euskal Wikilarien Kultura Elkarteari (EKKW) proposatu zioten proiektuan "armaren bat sartzea, eta emandako arrazoiak balekotzat jo zituzten. Arma bat sartzea baino Lamoten grabatua ego-kiagoa iritzi", eta huraxe sartu zuten.

Haren arrastoak, bizirik

Lamoten grabatua XVIII. mendean egin zuten -1757. urtean, zehazki-, Soraluzeko Errege Lantegiko kontadore eta ikus-

katzaile Florencio Jose Lamoten aginduz.

Soraluzeko Errege Arma Fabrikaren egoera eta deskribapena dakar grabatuak. 1573an, Soraluzeko maisu armaginek korporazio moduan antolatu eta Soraluze Hiribilduko Suzko Arma Eramangarrien Lantegia sortu zuten (*Fabrica de armas portátiles de fuego de la Villa de Placencia*). Denbora laburrean, eskualdeko armagin guzti-guztiak bildu zituen, eta 300 urtean Euskal Herriko enpresa industrial handiena izan zen -garaiaren arabera, 1.000 eta 3.000 langile artean izan zituen-, 1865. urtean desegin arte.

Izaera juridikoa zuen: harenak ziren negoziazio-, finantza- eta antolaketa-gaitasunak. Kooperatiba baten antzeko funtzionamendua zuen, eta eskualde oso-za zabaldu zen.

Sorapediak gaineratutakoaren arabera, nahiz eta 1865. urtean itxi, lagatako arrastoak oraindik bizirik dirau: Eibarko armagintza modernoa, Soraluzeko kanoi fabrika, Euskal Herriko autogintzarako osagaiak, Alfa kooperatiba, Mondragon Taldea...

1.000 eta 3.000 langile artean izan zituen 300 urtean, kooperatiba moduan antolatuta



Maria Rosa Congregado eta Ainhoa Mestre alaba, harategi aurrean. U.M.

NONDIK NORA

"Etorri eta segituan liluratu egin ginen hemengo bizimoduarekin"

MARIA ROSA CONGREGADO TORRES SORALUZETARTUTAKO ARGENTINARRA

29 urterekin iritsi zen Soraluzera Maria Rosa Congregado eta guztiz txertatu zen herriko bizimoduan eta soraluzetarren artean; bertakoa sentitzen da erabat

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Maria Rosa Congregado Torres (Buenos Aires, 1962) Soraluzen bizi da 1992a ezkeror. Urtebete lehenago, haren senar Javier Mestre Camino (Buenos Aires, 1959) iritsi zen bertara, Iturbe osaba-izeba soraluzetarren etxera. "Lana topatu zuen segituan, hau gustuko zuen, eta, hura etorri eta urtebetera, Daniela alaba [2 urte zituen] eta biok ere etorri egin ginen", dio Maria Rosak. **Beraz, familiarengatik etorri zintzen?**

Ez; han bagenituen lana eta familia, baina herrialdea zeharo ezegonkorra zen, ekonomia desastre hutsa, etxean lapurreta egin ziguten... Hainbat arrazoi-rengatik etorri ginen: senarrak lana topatu zuen; gero, ni haurdun geratu nintzen [Ainhoa], 1993an; eta hemen geratu ginen.

Zer topatu duzue hemen bertan segitzeko?

Herri txikia da, jende guztiak ezagutzen gintuen, oso adeitsuak ziren, umeak kalean bakarrik ibil zitezkeen, eskola gertu-gertu... Dena zegoen bertan. Etorri eta segituan liluratu egin ginen hemengo bizimoduarekin.

Hala ere, Buenos Airesen jaiota, hau ez zaizue txiki geratu?

Justu horregatik gustatzen zait horrenbeste Soraluze. Ez dakizu zelako aldaketa izan zen hona etortzea! Han erabat ezezagun ginen; hemen, berriz, mundu guztiak ezagutzen gintuen, lagunak segituan egin genituen, Daniela ikastolan hasi zen... Oso ondo hartu gintuzten, eta horrek lagundu zuen oso gustura egoten hemen. Hemengo bizitza soziala gustatzen zait gehien. Hainbat kuadrilla ditut, biko-

teenak, barikuetako andreenak... Eta Euskal Herritik ere den-dena gustatzen zait: hondartza, mendia, poteoaren kultura, kalera irtetea... Esan daiteke haxe dela nire lekua. Begira, anekdota modura, gaztetan, gorroto nuen Maria Rosa nire izena, Argentinako nire lagun guztiak baitziren Claudia, Graciela, Gabriela, Mariela... Ni nintzen Maria Rosa bakarra. Aldiz, hona etorri nintzenean, hemen Rosa mordoa zeuden! Ana Rosa, Rosa Mari...

Askotan bueltatu zarete jaioterrira?

Hiru bider, 2004an, 2015ean eta 2023an, eta, joan izan garen bakoitzean, beti etxera bueltatzeko deseatzten, baita senarra ere.

Etxea zein da zuentzat?

Hau [Barre]. Gu hemengoak gara dagoeneko. 29 urterekin etorri nintzen. Nire etxea hemen

dago, nire inguru osoa, lana, lagunak, alabak... Ezin gusturago nago hemen, lasai nago. Ez da gehiagorik behar; ez al da horrela?

Zeintzuk dira etxearen eta jaioterraren arteko desberdintasunik handienak?

Paisaia zeharo desberdina da. Argentinak leku eta paisaia oso politak ditu, baina ez Buenos Airesen. Azpiegiturak—espaloiak, errepideak...—ere kaskarragoak dira hangoak; zeharo oharkabean bizi zara han, eta, batez ere, segurtasun ekonomikorik eta fisikorik eza da hango txarrena. Pentsa, han nire lobak bizikletan buelta bat eman nahi bazuen, aita atzetik joan behar zitzaion zaintzen, bestela bizikleta barik bueltatuko zen etxera, lapurtu egingo zioten eta.

Dena den, hango zertxobait igarriko duzue faltan, ala?

Lagunez eta familiaz aparte, behin bakarrik igarri nuen hura faltan; izan zen Eibarrera nindoala autobus batek huts egin eta hurrengoa ordubetera arte ez zenean etorri. Euria zen, luze egon behar izan nuen itxaroten alabarekin... Buenos Airesen, metroa dago, autobusa bost minutuan behin... Justu horregatik, han ekintza kulturaletara joatea errazagoa da: zinemara, antzerkita, jatetxeetara... Hemen, adibidez, Bilbora joateko autobusa izango bagenu sarriago, seguru gehiago joango ginatkeela. Jatorduei dagokienez, berriz, hemengo kozinatzen ikasi dugu, baina gure lagunak ere ikasi dute hangoa jaten, barbakoak egiten ditugu... Akaso, pasta freskoa igartzen dut faltan; hemen ez dago.

Orain dela hiru urte hartu zenuten harategia Soraluzen; zer moduz?

Lan bila bueltaka ibili ondoren, lana izateko modurik onena horixe izan zen. Ausartu, eta hementxe gaude. Hori ere badu ona Euskal Herriak: zerbaitetan ahalegindu nahi izanez gero, laguntzak ematen dizkiete ekintzaileei, Gobernuak, banke-teeek... Pandemia aurretik lo-rezain izan nintzen eta horretarako formakuntza jaso nuen; gero, pandemia etorri eta lore-zaintza laga egin behar izan nuen. Ondoren irten zen Iñarra harategia hartzeko aukera; ogibide hori ere ez nekien, baina hori ere ikasteko aukera eman zidaten, eta hemen gaude, Ainhoa alaba eta biok. Pozik gaude, lantalde ona osatu dugu.

Baduzue Argentinako zerbait harategian?

Bai; haragia ebakitzeko modua desberdina da Argentinan, eta hemen erabiltzen ditugu hango ebakitzeko hainbat modu. Argentinarrak etortzen zaizkigu eskean, baita hemengoak ere, eta latinoamerikarrak ere badatoz.

Ez-jakitun euskaldunoi ze ebakitzeko gomendatuko zeniguke?

Entraña, vacío, asado... (erraiak, errekiak, hegaleko xerrak...).

Osterantzean, jendeak zer erosten du, batik bat?

Ia beti betikoa. Gazteek bularkiak, hanburgesak eta saltxitxak, eta nagusiek gisatzekoak, oke-la-bolak egiteko... Nagusiek denbora gehiago eta kozinatze-ko kultura handiagoa dute. Gazteek behar dituzte bizkor eta erraz egiteko gauzak. Eta pasatu berri diren Gabonetan, azpizuna, txuleta, entrekota eta bildotsa.

Iñarra harategia da zuek hartu zenutena 2022an, baina La Churrasquita izena jarri diozue...

La Churrasquita zen familiaren jatetxea [hunkitu egin da Maria Rosa hau kontatzean]; beti ibiltzen ginen *La Churrasquita* gora eta *La Churrasquita* beheara, eta, kontu burokratikoetarako hemen izen baten beharra tokatu zenean, La Churrasquita SL ipini genion. Argentinan, *la churrasquita*-k esan nahi du neska polita, ederra. Dena den, harategi hau beti izango da Iñarra harategia.

"Han bagenituen lana eta familia, baina, herrialdea zeharo ezegonkorra zen"

"Hemengo bizitza soziala gustatzen zait gehien; nik hainbat kuadrilla ditut Soraluzen"

"Argentinan oharkabean bizi zara; hemen, berriz, mundu guztiak ezagutzen zaitu"

NIRE USTEZ

Etxea



EIDER
ALDALUR

Epela, goxoa, zurea. Segurtasuna eta babes. Gotorlekua. Goizeko kafe egin berriaren usaina. Umel denean mantapean sartzeko aterpea. Udako eguerdietan zirrikituetatik sartzen diren eguzki printzak. Mahaiaren bueltako berriketaldiak. Bero denean haize freskoaren atezuan egindako siestak. Landareak ureztatzean eguzki bila dabiltzala ohartzea eta sukaldean pasatako orduak. Zure ohearen epela. Sofak harrapatzen zaituen leku hori.

Egun teilatu bat izatea ez da kontu erraza. Ez da erraz loleku bat izatea. Ugari dira beheraino botatako pertsianak eta 15 buelta eta hiru sarraillarekin itxitako ateak, udako haizeak noiz etorriko zain. Leiho askok ilun jarraitzen dute, barnea hutsik. Prosegur eta enparauak pozik dabilta aspaldian. Espekulazioaren logikak, beldurrek eta inork ukitu nahi ez dituen inertziek etxe horiek itzal bihurtu dituzte.

"Bizileku bat izatea ez dela luxua ahaztu zaigu, beharra baizik. Oinarritzko eskubidea"

dira. Estatistika batzuk ematearren, Gipuzkoan, azken hamarkadan %60 garestitu da etxebizitzaren prezioa; soldaten igoera, aldiz, %22koa izan da. Kalkulagailua atera dezakezue, baina zenbakiek ez diote gezurrik, neurritz kanpoko zorpetzea edo betiereko ziurgabetasuna soilik dira aukerak. Kostaldean dago kontua larrien, baina barnealdean ere arazoa gero eta handiagoa da.

Bizileku bat izatea ez dela luxua ahaztu zaigu, beharra baizik. Oinarritzko eskubidea. Administrazio publikoek ez dute gauza handirik egiten bitartean, partxe txikiak jartzera soilik iristen dira, baina ez dute arazoari errotoik heltzeko interesik. Noiz arte puztuko da burbuila? Noiz lehertuko zaigu esku artean?

GUTUNAK

Eskerrik asko, Elgoibar

KABALGATA TALDEA
ELGOIBAR

Elgoibarko Kabalgata Taldeko kideok, beste urte batez, ilusio eta ahalegin handiz prestatu ditugu bai Jaiotzen Lehiaketa, bai Errege Magoen desfilea. Badakigu gauza asko daudela hobetzeko, eta laster hasiko gara datorren urtekoa prestatzeko lanetan. Taldean parte hartu nahi duten guztientzat, gure lehen bileraren berri emango dugu, gurekin bat egin eta egiten ari garen lana hobetzen lan egiteko, Elgoibarrek, orain arte bezala, Erregeen desfileaz gozatzen jarraitu ahal izan dezan.

Lan hori guztia ez litzateke posible izango zuon guztion laguntzarik gabe, baina, bereziki, honako hauen laguntzarik gabe: Elgoibarko Udala, udal lantaldea, Elgojaiotza elkarte, Aranburu bitxi-denda, Altzolako Urak, Aitor Goiko-IMH, Biok dekorazioa, Lerun autoak, Amagoia gozotokia, Kopilan, Txankakua, AIZU Elgoibarko Ostalaritza, Pelegrin, Il Zapore, EAJ/PNV, PSOE, Eskuz elkarte, Zabaltzen-Sartu koop., Nafarroako Rural Kutxa, ibilbidea zaindu eta plazako jaiotza eta karrozak muntatzen eta desmuntatzen lagundu zuten boluntarioak; eta, bide batez, eskerrak eman nahi ditugu jasotako gertutasunagatik eta zorionengatik, eta espero

dugu ekitaldi hauek egiten jarraitzea eta guztiak zoriontsu egin ahal izatea.

Altzola: Zinismorako tunela

ALFONSO RUBIO
ALTZOLAN TREN GELTOKIA BAI PLATAFORMA ALTZOLA

Adorea behar da, eta aurpegi gogorra, Altzola bezalako eremu baztertu eta degradatu batean agertzeko, tunel baten sakonera dela- eta bizilagunak irribarre batekin umiliatuz. Mugikortasun Iraunkorreko kontseilari Susana Garcia Chueca andreak aurreko egunean ospatu zuen bere agindupean obra bat "aurrera doala", gure auzoaren isolamenduaren monumentua dena.

Epaile honek, murrizketen "politika berriarekin", bere alderdiko kideei, PSEri, ergel eta gaitasunik gabeak deitzen die. Beraiek izan ziren duela hamarkada bat Altzolako geltoki berria defendatu eta onartu zutenak, bidezkoa, beharrezkoa eta teknikoki eta ekonomikoki bideragarria zelako. Zer gertatu da, sailburu andrea? Bideragarritasun teknikoak urtebete baino ez zion iraun Eusko Jaurlaritzari, eta denbora hori igaro da bideragarri izatetik ez izatera? Edo zure aurrekoek ez al zekiten plano bat interpretatzen?

Zuek erabaki teknikoaren komodina erabiltzen duzue argudio falta estaltzeko.

Baina errealtatea da lehen bideragarria eta beharrezkoa zena orain ezinezkoa dela, zuek erabaki duzelako bulego batean, "zero" ikuspegi sozialarekin, batez ere "Eremu Degradatu" bati buruz ari garenean. Lotsagarria da "egituraketaz" hitz egitea, urteetan zehar 47 mailatako hirugarren munduko sarbidea izatera kondenatu gaituzuen bitartean, gure adinekoen irisgarritasun unibertsa eta duintasuna urratuz.

Geltokia integratzera behartzen zuen lizitazio publiko baten oinarriak ez betetzea ere "erabaki tekniko" al da? "Administrazio ona" al da "Eremu Degradatu" batean funtsezko zerbitzu bat ezabatzea, 2030 Agendaren, Mugikortasun Planaren, Euskadi Trenbidea 20-20 Planaren edo Bultzatu 2050 Agendaren publizitatean milioiak gastatzen dituzten bitartean? Hipokresia hutsa!

Garcia Chueca andrea, ez zaitez okertu: zure bisita ez zen ingeniariatzako mugarri bat izan, zinismo ekintza bat baizik. Zure kudeaketak ez ditu aintzat hartzen Elgoibarko bizilagunak eta ez dio men egiten Gipuzkoako Batzar Nagusien aginduari; horrez gain, agerian uzten du zure alderdiaren herentziarekiko mespretxua. Zuek hormigoia ospatzen duzuen bitartean, Elgoibarren borrokan jarraituko dugu justizia soziala zuen tunelean lurperatuta gera ez dadin. Eusko Legebiltzarrean ikusiko dugu elkar.

Barrena[®]
DEBABARRENEKO
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea
Barrena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Aita Agirre plaza, 3
20870 Elgoibar
barrena@barrena.eus

Lehendakaria
Gaizka Azkarate.
Zuzendari nagusia
Egoitz Unamuno.
Eduki arduraduna
Ainara Argoitia.
Erredakzio batzordea
Ainara Argoitia, Ubane Madera,
Ainhoa Andonegi, Dorleta Vidal,
Izaro Aulestiarte.

Diseinu arduraduna
Oier Larreategi.
Zuzentzailea
Sergio Azkarate.
Kidetz eta banaketa arduraduna
Alex Turrillas.
Maketazioa
Zalao Arnaiz, Oier Larreategi.
Publizitatea
Leire Rubio.

HARPIDETZA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
Tel.: 943 74 16 26
harpidetza@barrena.eus

PUBLIZITATEA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
Tel.: 943 74 16 26
publi@barrena.eus

DEBAKO EGOITZA
Deba 20820
Ifar Kalea 12, behea
Tel.: 943 19 13 83

ELGOIBARKO EGOITZA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
Tel.: 943 74 41 12

ERMUKO EGOITZA
Ermua 48260
Erdikokale 2, 1
Tel.: 943 17 93 50

SORALUZEKO EGOITZA
Soraluze 20590
Errabal 15, 1
Tel.: 943 75 13 04

Lege Gordailua: LG D 993-2025
ISSN: 3101-2647
Tirada: 10.000 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

BARRENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Elgoibarko Udala



Ermuko Udala



Mallabiko Udala



Mendaroko Udala



Mutrikuko Udala



Soralueko Udala



Osakidetza eta Elgoibarko anbulantziak: langileekiko errespetu gutxi

EH BILDU
ELGOIBAR

Urtarrilaren 7an, Elgoibarko eta Tolosako anbulantzia medikalizatuen zerbitzua publiko bihurtu behar zen, baina Osakidetzak anbulantziak bere gain hartzeko arazorik sortu ez bazuen, langileak integratzeko oztopo handiak ipini zituen. Horren ondorioz, hilaren 12ra atzeratu zen integrazioa, baina langileen eta Osakidetzaren arteko negoziaketan aurrerapenak egon baziren ere, oraindik ere langile batzuen lan baldintzak okertzea eragiten zen. Beraz, joan den astelehenean ere ez zen itunik sinatu, eta prozesuak erakutsi du Osakidetza ez dela ondo kudeatzen ari anbulantzia medikalizatuen publikazioa

eta errespeturik gabe ari dela langileekin eta zeharka pazienteekin. Ezintasuna da ala EAJ-PSEren degradazio programa bati jarraitzen diote? Berrogeita bost langile dituzten bi herritako anbulantzia medikalizatuekin gertatzen bada hori, zer gertatuko ote da ehunka langile dituzten oinarritzko anbulantziak publikatzen direnean? Ala herri gehienetan, Elgoibarren barne, dauden oinarritzko bizi-euskarriko anbulantziak esku pribatuetan betiko lagatzeko asmoa du Osakidetzak?

Badatoz maskaradak!

A.I.Z.
ELGOIBAR

Domekan maskaradak hasiko dira, Ozazen, eta apirilaren 25ean amaituko dira, Mendikotan. Guztira Zuberoako hamabost herritan ibiliko da maskarada. Aurtengoan, Iruriko, Zalgizeko, Ozazeko eta

Mendikotako gazteak elkartu dira maskarada antolatzeko. Lau herrietako lagun talde baten harremanaren ondorioz hasi zen ideia. Hamabi kide inguruko antolatzailer taldea osatu dute, eta laguntzaile sarea ere bai. Taldeko kide guziek antzerki tailerra egin dute, oinarri beretik hasteko. Antzerkiari lekua emateaz gain, euskara erdigunean ezarri nahi izan dute aurtengo maskaradetako sortze prozesuan. Horren adibide, euskaraz ez dakitenei itzulpena egin diete. Bejondeizuela! Erasoen kontrako protokoloa ere ezarri dute. Erasorik baldin bada, izan maskaradan ari direnenak ala izan beste norbaitek, landutako protokoloak erasoei erantzungo diela azpimarratu dute. Animatzen bazarete, hona hemen maskaradaren egutegia: urtarrilak 18, Ozaze; urtarrilak 25, Ainharbe; otsailak 1, Lexantzü; otsailak 8, Muskildi; otsailak 14, Pagola; otsailak 22, Altzürükü;

martxoak 1, Altzai; martxoak 7, Maule; martxoak 14, Idauze; martxoak 21, Larraine; martxoak 28, Aloze; apirilak 5, Sohüta eta Hoki; apirilak 12, Gamere; apirilak 18, Barkoxe; eta apirilak 25, Mendikota.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). BARRENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Aita Agirre Kulturgunea 3-3, 20870 Elgoibar / barrena@barrena.eus

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI

2026



Barrena
BATZEN GAITUENA

barrena.eus/egin-kide

eduki bereziak, zozketak,
deskontuak, abantailak

**egin zaitez
Barrenakide!**

Altzolako uren 250. urteurrenari eskainiko diote aurten zigilu erakusketa

Bihartik urtarrilaren 25era egongo da ikusgai, Kultur Etxean

Ainhoa Andonegi

San Anton Eguna izango da bihar, eta, urtero bezala, hainbat ekintza antolatu dituzte herriko eragileek. Horien artean nabarmentzekoa da Altzolatarren Dorretxea Filatelia Elkarteok antolatzen duten zigilu erakusketa. 11:00etan Euskal Herriko Filatelia elkarteak urteko batzarra egingo du Kultur Etxean, eta ordu berean zabalduko dute erakusketa. Aurten, Altzolako uren 250. urteurrenari eskainita egongo da.

1776. urtean aurkitu zuten Altzolako uren iturburua. Negu gorria zen, eta haur batzuk, Deba ibaian bainua hartzen ari zirela, gune konkretu batean ur beroa irteten zela konturatu ziren. Espeleologoek eta zientzialariek egindako ikerketen arabera, iturburuak duen altueragatik gertatzen da hori.

Altzolako uren jatorria Izarraitz mendigunean dago, itsas mailatik mila metroko altueran, eta itsasotik 12 kilometrora, eta 25 bat urteko bidaia egiten du ur horrek lurpean, Altzolara iritsi arte. Kareharrizko harkaitzek iragazki natural gisa funtzionatzen dute, eta, adituen arabera, horrek ematen dio urari kalitatea.

1801. urtean mediku propioa zeukan Europako lehenengo bainuetxea zabaldu zuten Altzolan. 1846an Urberoaga bainuetxea inauguratu zuten, eta 1901ean zabaldu zituen ateak Gran Hotel Balneario hotelak. Bainuetxea izan zen urteetan herriaren motor ekonomikoa, eta garai batean hamaika hotel izan ziren Altzolan. 1976an itxi zuten bainuetxea, eta ura botilaratzeko instalazioak jarri zituzten bertan. Gaur egun Al-

zola Basque Water izena dauka enpresak.

Dozena bat bilduma

Aurtengo erakusketan ere Euskal Herriko eta Espainiako hainbat filatelistak hartuko dute parte. Hamabi bilduma jarriko dituzte ikusgai guztira, 65 bat bitrinatan antolatuta. Horien artean, Jose Mari Etxaniz Moulian elgoibartarrak *Termalismo y balnearios* izeneko zigilu-bilduma aurkeztuko du eta Deba-ko Jose Mari Ulazia Ortiz de Urbinak *Un puente sobre el Atlántico* bilduma jarriko du ikusgai.

Bihar zabalduko dute erakusketa, eta 13:45ean egingo dute bildumagileei eskerrak emateko ekitaldia. Urtarrilaren 25era arte egongo da erakusketa bisitatzeko aukera, astegunetan 18:30etik 20:30era eta jai egune-



Altzolako bainuetxearen irudi bat.

tan 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:30era.

San Anton Eguneko egitaraua

Zigilu erakusketaz gain, hainbat ekintza izango dira bihar Elgoibarren, egun osoan zehar. Adin guztietako herritarrentzako egitaraua prestatu dute eragileek, eta izango da non aukeratu. Jai eguna denez, goizean meza izango da San Bartolome parrokian, 11:00etan. Etxeko txikientzako, berriz, haur parkea jarriko dute Aita Agirren, goizean zein

arratsaldean, eta horrekin batera, erraldoi eta buruhandiak ere irtengo dira kalera, 17:30ean.

Emudafek antolatuta, bestalde, Bost Brass metal taldearen emanaldia izango da Herriko Antzokian, 12:30etik aurrera. Donostiako kontserbatorioko bost instrumentu irakaslek osatzen dute taldea, eta metalezko instrumentuekin euskal kantutegiko eta nazioarteko pieza eza-gunak eskainiko dituzte. Kontzertu irekia da, eta ez da sarrearik ordaindu beharko.

Altzolako tunelaren zuloa amaitu dute aste honetan eta agintariak bertan izan dira

A.A.

Jaurlaritzako eta ETSko ordezkariak joan den barikuan bisitatu zituzten *Altzolako mozket*a izeneko azpiegitura eraikitzeko lanak. 500 metroko tunela eraikitzen dihardute Arriaga industrialdearen eta Altzola auzoaren arteko mendi magalaren barruan. Susana Garcia Chueca Mugikortasun Jasangarriaren sailburuak, Miguel Angel Paez Azpiegitura eta Mugikortasun Jasangarriaren sailburuordeak eta Antonio Lopez ETSko zuzendari nagusiak bertatik bertara ikusi zuten obra, eta, gainera, tunela erabat zulatzeak azken lanen lekuko izan ziren.

Tunel berriaren onurak

Tunel berria gaur egungo ibilbidea laburtzeko, bidaian denbora murrizteko eta segurtasuna hobetzeko eraiki dutela azaldu zuten agintariek. Segurtasunari dagokionez, bi trenbi-

de-pasagune kentzea ahalbidetuko duela azpimarratu dute: Ganekuakoa eta Barazetakoa, hain zuzen. Tunel berriari esker trenak gurutzatzeko aukera egongo da, eta, horrenbestez, zerbitzu-ahalmena handitu egin ahal izango dute. Alegia, trenen maiztasuna handitzeko aukera

izango dute, gaur egun noranzko bakoitzean 60 minutuan behin zirkulatzeko aukerara mugatua baitago.

Tren Geltokia Bai plataformako kideak haserretu egin ditu ekintza horrek, eta Altzolako geltokiaren aldeko borrokan segituko dutela azaldu dute.



Altzolako tunela zulatu osteko irudi bat.

Ekainera bitartean ordutegi zabalagoa izango du Gotzon Garate udal liburutegiak

Zapatu goizetan ere zabalduko dute aurrerantzean


A.A.

Ordutegi berriarekin hasi du urtea Gotzon Garate udal liburutegiak, eta ekainera arte mantenduko dute, probaldian. Epe horretan erabilera-datuak bildu eta aztertuko dituzte, emaitzak eskuetan dituztela erabaki bat hartzeko: larunbatetan irekitzeko erabakiari eutsi edo bertan behera laga.

Berrikuntza nagusienetako bat astelehenetik ostiralerako goiz parteko ordutegian dago: orain arte, 09:00etatik 13:00etara egoten zen zabalik, eta aurrerantzean, 09:00etatik 14:00etara egongo da irekita; alegia, ordu-bete gehiagoz.

Zapatuetan ere zabalik

Aurrerantzean zapatuetan ere liburutegia zabalduko dutela da beste berrietasun nagusia; izan



Udal liburutegia. BARRENA

ere, 09:00etatik 13:00etara irekiko ditu ateak zapatu goizetan. Orain arte ez zuten zerbitzu hori ematen.

Gaur itxiko dute Elgoibarko merkatu plaza, eta anbulatorio berriaren lanak hasiko dira

Ainhua Andonegi

Gaur itxiko dute merkatu plaza, betiko, eta anbulatorio berria egin ahal izateko atontze-obrak hasiko dituzte. Lehenengo lana eraikin azpian dagoen transformadore elektrikoaren zentroa lekuz aldatzea izango da. San Frantzisko iturri atzera eramango dute, eta, lan horiek egiteko argindarra kendu behar dutenez, merkatu plaza ixtea erabaki dute. Behin lan hori amaituta, Osasun Sailak eraikina eraitsiko du, eta, Udalak aurreratu dutenez, uda aldera izango dela aurreikusi dute. Guztira zazpi milioi euroko inbertsioa egingo dute.

Amaia Mendikute, azken saltzailea

Merkatu plaza sasoi betean zegoen garaian hasi zen lanean Amaia Mendikute, amarekin. 19 urte zituen, eta gogoratzen du sasoi hartan merkatu plaza

zela herriko salerosketarako gune nagusia. Taberna bat ere bazegoen, eta herritarrek bazuten merkatu plazarako joera. Goiko pisuan arrandegiak ere bazeuden, loradendak, harategiak, eta eguenetan baserritarrek joaten ziren euren produktuak saltzera. Errelebo

faltak eta herritarren erosketa ohituren aldaketak merkatu plazaren gainbehera ekarri zuten, eta, hain zuzen ere, Mendikute izan da pertsiana jaisten azkena. Penaz doa, eta bezeroei eskerrak eman dizkie urte hauetan guztietan eman dioten babesagatik.



Amaia Mendikute eta bere ama, merkatu plazako postuan. AITOR ZABALA

Iraupen eskiko Espainiako selekzioak Andde Elizburu Azpiazu deitu du

Andde Elizburu Azpiazu (Elgoibar, 2010) Ipar Irrintzi taldeko eskiatzailea da, eta aurrez ere lehiatu izan da Italian, iraupen eskiko euskal selekzioarekin. Orain, berriro itzuliko da Italiara, baina Espainiako selekzioa ordezkatzuko du. Paso Di Lavazen jokatzeko dute Skiri Trophy lasterketa asteburuan; urtarrilaren 17an

eta 18an, alegia. Gazteen mailan lehiatzeko 2010-2011. urteetan jaiotako lau gazte deitu ditu Espainiako taldeak; honako hauek: Fiona de Castellana katalana; Libe Curras, Uzturre klubeko tolosarra; Asier Galetx, Erronkari taldeko iruindarra; eta Andde Elizburu Azpiazu, Elgoibarko Ipar Irrintzi Ski Taldeko kidea.



Elizburu, iraupen eskiko proba batean.



Elgoibarko Izarrako santa eskeko taldea, iaz. ASIER ORBEA

Santa eskean irteteko bi ekitaldi antolatu ditu Elgoibarko Izarrak

Otsailaren 1ean irtengo dira familiak Atxutxiamakarekin, eta hilaren 4an gainerakoak, baserriz baserri

A.A.

1994an berreskuratu zuen Elgoibarko Izarrak baserriz baserri santa eskean irteteko ohitura, eta aurrez ere ez dute hutsik egingo. Tradizioak dioten moduan, Santa Ageda bezpera egunerako antolatu dute ekimena, otsailaren 4rako. 14:30ean batuko dira, Kalegoen plazan, eta bi taldetan banatuta koplak dituzte baserri-auzoak, 21:30 aldera arte.

Koruetan parte hartzeko izena eman behar da, eta urtarrilaren 30a izango da horretarako azken eguna. Hiru modu daude izena emateko: telefonoz, 943 74 16 26 zenbakian; postaz, elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus helbidean; edo Elgoibarko Izarrak Aita Agirre kulturgunean daukan lokalean.

Atxutxiamakarekin, familian

Atxutxiamaka aisialdi taldekoak, berriz, familian irtengo dira koplakantuan Azkue auzoko baserrietan zehar, otsailaren 1ean. Eneko Beretxinaga eta Amaia Iturriotz arituko dira bertotan, trikitilari eta pandero jotzaileekin batera.

10:00etan batuko dira Azkueko ermitan, eta, baserrietako lanak amaitu ondoren, Lizagasarren egingo dute mokadua.

Ekimena irekia da, eta nahi duen orok har dezake parte. HH2 eta LH3 arteko umeak ezingo dira bakarrik joan, eta helduren baten laguntzarekin hartu behar dute parte; LH4tik gorakoak, berriz, bakarrik joan daitezke. Interesatuak urtarrilaren 29rako eman behar dute izena, 943 74 17 46 telefonora deituta edo atxutxiamaka.eus webgunean.

Morkaikorekin sagardotegira otsailaren 21ean

Mendia eta sagardotegia uzartuko ditu Morkaiko mendizale elkarteak otsailaren 21ean. Aramaioko Orixol mendira igo ostean, Unzueta sagardotegian bazkalduko dute. 08:15ean irtengo dira Elgoibartik, eta itzuli, 18:00etan. Otsailaren 12rako eman behar da izena, morkaiko.eus webgunearen bitartez.

EXPRESS ESKAINTZAK!

**BOSCH WQG243DOES
ARROPA LEHORGAILUA**

649 €

- 9KG-ko karga
- Bero ponpa
- Karga ertaina
- Auto Dry sentsoreak
- Easy Clean

A+ C



MILAR BIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487
bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

LAGUNAK
colchonería textil hogar

**%25EKO DESKONTUA
NEGUKO OHE-ARROPETAN**
**%45EKO DESKONTUA
KORALINAZKO IZARETAN**



San Roke kalea, 20 - Elgoibar
943 74 44 57 - 685 75 69 78 - www.textillagunak.com

72 urteko ibilbidearen ostean, ateak itxi ditu Iriondo Altzariak dendak

1953an zabaldu zuten negozioa, eta, erreleborik ez denez, pertsiana jaitsi dute

Ainhoa Andonegi

Hasten den guztiak dauka amaiera bat, eta abenduaren 29an iritsi zen Iriondo Altzariak dendaren azkena. Julian eta Arrate Iriondo neba-arrebek kudeatu dute gurasoek martxan jarritako negozioa, eta orain erretiroa hartuko dute. Erreleborik ez dute aurkitu negozioari segida emateko, eta egurraren sektoreak egoera zaila bizi duela azaldu dute. Herritarrek ondo baino hobeto erantzun diote likidazioari, baina konturatu dira gazteak ez direla horrelako dendetara joaten: "Gazteek euren erara erosten dute, ez dute aholkurik behar, eta gurea bezalako negozioak gainbeheran daude. Errosteo ohiturak aldatu egin dira, eta gazteen lehentasunak beste batzuk dira; nahiago dute bidaiatu eta mundua ikusi, altzarietan gastatu baino".

72 urteko ibilbidea

1953ko maiatzean zabaldu zuten Iriondo Altzariak denda, gaur egunera arte egon den lokal berean. Juaristi Hermanos lantegian egiten zuten lan Julian Iriondok. Mekanikaria zen, eta beti makina-erremintan jardundakoa. Lokala zeukaten etxepean, eta lagun batek proposatu zion altzari denda jartzea, baina Julianek ez zuen tailerreko lana laga, eta handik irteten zenean egiten zituen dendako lanak. Altzariez gain, etxetresnak ere saltzen zituzten, eta iluntzean jarduten zuten, etxez etxe, bezeroek erositakoak banatzen. Kontxa Azkue haurdun zegoen, 1954an jaio baitzen Julen, eta

hark kudeatzen zuen denda, ahizparen laguntzarekin. Familia negozioa zen. Denda handia zeukaten, goraino beteta, baina han zegoena bakarrik saltzen zuten, ez zen katalogo bidez erosten; beraz, garrantzitsua zen denda beteta edukitzea, bezeroei ahalik eta eskaintza hobereana emateko.

Ez zuen hasiera errazik izan dendak: maiatzean zabaldu zuten negozioa, eta urrian Elgoibarren inoiz izan diren uholderik handienak izan ziren. Deba ibaiak gainezka egin zuen, eta azpian hartu zituen bazter guztiak, Iriondo denda barne. Zalantza handiak izan zituen Julianek orduan, garai hartan ez zegoelako aseguru-etxerik, eta dirutza galdu zuten. Aurrera egitea erabaki zuen, eta denborak erakutsi du ondo hartutako erabakia izan zela. Dendaren gainean bizi ziren, eta dendaren bueltan batzen zen familia guztia: "Telefono linea bera geneukan dendan eta etxean, eta, askotan, aita bazkaltzen zegoela ere deitzen zuten hornitzaileek. Jatekoa platerean lagata joaten zen askotan".

Gurasoak adinean aurrera zihoazen, seme-alabak handitzen, eta berez etorri zen erreleboa. Julenek peritu ikasketak egin zituen Eibarren, baina ordura-

ko hasia zen gurasoei laguntzen dendan, eta ikasketak amaitu zituen sarta zen jardun osora lanean. Arratek dekorazio ikasketak egin zituen, eta 1979 inguruan hasi zen lanean. Hirugarren anaia ere badute, Inazio, eta hura dendan ibili ez den arren, dendosteko lanetan arituda, diru-kontuak kudeatzen. Arantza Iruretagoiena ere gogoan izan dute, jubilatuta artean euren jardun baitzuen lanean, eta harenganako ere esker oneko hitzak izan dituzte.

21-22 urte zituen Arratek dendara iritsi zenean, eta hura sartu zenean etorri zen aldaketa. Denda goraino beteta zegoela gogoratzen du, eta hark hutsetik hasi nahi zuen. "Dendak biltegi erraldoi baten itxura zeukan, eta nik beste ikuspegi bat eman nahi nion. Denda hustu, eta etxebizitzak osorik berritu eta dekoratzeko zerbitzuak eskaintzen hasi nahi nuen". Horretan ari zela, berriz ere gainezka egin zuen ibaiak, eta ia sabairaino sartu zen ura dendan. 1983ko uholdeak ziren.

Ezbeharra izan zenari etekina ateratzen jakin zuten, eta kolpe hartatik indarberrituta irteten ziren. Beste etapa bat hasi zuen dendak, eta Elgoibarko zein inguruko herrietako etxeak apaintzeari ekin zioten. "Herritarrek euren etxeetako ateak zabaldu zizkiguten, eta haietako asko lagunak ditut oraindik".

Eskerrak herritarrei

Penaz, baina, aldi berean, pozik hartuko dute atsedena. Irailean ekin zioten likidazioari, eta es-

1953an eta 1983an urak azpian hartu zuten Iriondo Altzariak. Hala ere, gaur arte iraun dute



Julian Azkue eta Kontxa Azkue, Iriondo Altzariak dendaren sortzaileak. AINHOA ANDONEGI



Arrate eta Julen Iriondo neba-arrebak, denda atarian. AINHOA ANDONEGI

kerrak eman nahi dizkiete herritarrei, babes handia sentitu dutelako. Bezero asko lagun egin dituzte ibilbide horretan, eta, alde horretatik, pozik daude,

baina, aldi berean, pena ere sentitzen dute, beren bizitza denda izan delako eta itxiera honekin bizitzako etapa garrantzitsu bati eman diotelako amaiera.

Eguberrietako zozketaren berri eman du Txankakuak

A.A.

Txankakua merkatarik elkartek 3.000 euro zozkatu ditu Eguberrietan herrian erosketak egin dituzten herritarren artean. Dendetan erosketak eginda eskuratu dituzte herritarrek zozketarako txartelak, eta dagoeneko eman dute saridunen berri. Irabazleek otsailaren 7ra arte dute saria jasotzeko.

500 euroko saria

95.272 (ordezkoa: 77.285);
76.987 (ordezkoa: 56.969);
7.135 (ordezkoa: 57.867).

100 euroko saria

59.569 (ordezkoa: 12.792);
95.455 (ordezkoa: 34.337);
39.778 (ordezkoa: 62.132);
85.556 (ordezkoa: 78.313);
17.318 (ordezkoa: 7.368);

96.452 (ordezkoa: 93.190);
82.385 (ordezkoa: 27.074);
66.778 (ordezkoa: 48.338);
43.180 (ordezkoa: 51.150);
41.378 (ordezkoa: 73.648);
30.574 (ordezkoa: 62.607);
66.380 (ordezkoa: 17.200);
80.705 (ordezkoa: 8.411);
33.981 (ordezkoa: 13.058);
112 (ordezkoa: 85.663).

Idazlan lehiaketa antolatu du Elgoibarko Udalak, gaztetxoak euskaraz idazten trebatzeko

Elgoibarko Udalak 8 eta 18 urte bitarteko ikasleentzako idazlan lehiaketa antolatu du. Parte-hartzaileek ikastetxeetako ikasgiletan aurkeztu behar dituzte idazlanak, eta horretarako azken eguna martxoaren 11 izango da. Elgoibartik kanpoko ikastetxeetan ikasten ari diren ikasleek,

berriz, zuzenean entregatu behar dituzte lanak, HAZen (Santa Ana kalea, 2), 07:30etik 15:30era. Hain zuzen ere, gaia librea da. Sariak, berriz, 50 eta 120 euro bitarteko erosketa-bonuak izango dira. Informazio gehiago 943 74 43 66 telefono-zenbakian jaso daiteke.

"Herrian jokatzeta beti da berezia, eta ilusio handia egiten dit lagunaren aurrean jokatzek"

IKER IZAGIRRE PILOTARIA

Ainhoa Andonegi

Aurten bai: Iker Izagirre pilotariak (Elgoibar, 2007) San Anton pilota txapelketan egin du debuta, eta ez edonola, gainera; izan ere, gaur gauean jokatu du txapelketako finala. Aratz Ormaetxea bergararrarekin osatu zuen bikotea finalaurrekoan, eta 22-17 irabazi zuten partida Nazabalen eta Artetxeren kontra. Finalean Nazabal eta Okiñena izango dituzte aurkari. 19:00etan izango da norgehiagoka, Ikastolako frontoian.

Iaz egin behar zenuten debuta San Anton txapelketan, baina eskuetako arazo batek galarazi egin zizun.

Iazko denboraldian, Gipuzkoako txapelketako buruz buruko finalaurrekoan atzapar bat apurtu nuen, eta finala ezin izango nuela jokatu pentsatu nuen. Hala ere, saiatu egin nintzen, eta finala irabazi nuen. Handik gutxira iritsi zen San Anton txapelketa, eta ezin izan nuen jokatu. Eskua oso gaizki neukan, eta, azkenean, ebakuntza egin behar izan zidaten. Pilotaria guztiz ondo oso gutxitan egoten da, eta minez jokatzeko ere ikasi egiten da, baina batzuetan ezin da. Ia bi hilabetez egon nintzen jokatzeko atzaparra apurtuta, eta asko sufritu nuen. Beldurrez jotzen nion pilotari, eta pilotan, zuk ematen ez badiozu pilotari, berak ematen dizu, eta horrek min egiten du.

Aurten bai. Debutatu eta finalera iritsi zara. Nola aurreikusten duzu gaurko partida?

Herrian jokatzeta beti da berezia, eta ilusio handia egiten dit. Joan den astean ere lagun pila bat joan ziren animatzera, eta horrek asko lagundu zidan. Partida gogorra izan zen hura, eta gaurkoa ere halakoxea aurreikusten dut. Gogor lehiatu beharko dugu txapela irabazteko.

Zein dira zure indarguneak?

Aurrelaria naiz, eta aurreko koadroetan moldatzen naiz ondoen. Tantoak amaitzea gustatzen zait. Ezkerrarekin hobeto moldatzen naiz, baina eskumarekin ere hasi naiz hobetzen.

Elgoibarren garai batean egon zen frontoi berria egitearen aldeko mu-

gimendua, baina, gaur-gaurkoz, ikastolako frontoia bakarrik daukagu. Zer moduzkoa iruditzen zaizu?

Frontoi hotza da, eta gainerakoak baino motzagoa. Hori dela eta, pilota motelagoak erabiltzen dira hemen, eta joko gehiena aurreko koadroetan egoten da. Horrek ikusgarritasuna handitzen du eta partida politak ikusten dira.

Egin dezagun atzera: nola hasi zinen pilotan?

Umetatik gustatu izan zait niri pilota. Gure familian betidanik ikusi izan dut pilotarako zaleatasuna, eta aitonarekin joaten nintzen pilotan jokatzera. Batzuetan, garajea jokatzeko ginen; edozein lekutan: etxeko hormetan, kaleko edozein txokotan... Pilotan jokatzeko ez da ezinbestean frontoia behar, edozein hormak balio du, eta leku txikietan, gainera, asko ikasten da. Horrela hasi nintzen, eta horrela jarraitzen dut. Nire lagunak futbolekin hasi ziren, baina nik argi neukan pilotan jokatu nahi nuela, eta ahal dudana bitartean segitzeko asmoa daukat. Profesioaletara iristea gero eta zailagoa da, baina ilusio hori daukagu denok. Nik izugarri gozatzen dut pilotarekin, bai jokatzeko eta baita ikusteko ere, eta gaur egun pilotaririk onena Altuna dela iruditzen zait.

Nola dago pilota Elgoibarren?

Lagunak Pilota Eskolan hasi nintzen, eta garai hartan pilotari pila bat geunden klubean. Adin askotariko umeak elkarrekin aritzen ginen pilotan, eta asko ikasi nuen besteengandik. Gaur egun ez dakit zenbat ume dabilzan klubean, baina ni hasi nintzenean gehiago ginela esango nuke. Kadete mailarako sal-

"Pilotaria guztiz ondo oso gutxitan egoten da, eta minez jokatzeko ere ikasi egiten da"



Iker Izagirre, Ikastolako frontoiaren kanpoaldean. ASIER ORBEA

toa ematerakoan, jende askok lagatzen du pilota. Kirol polita da, baina norbanakoa, eta, normalean, jendeak nahiago du talde-kirolen batean jardun. Min hartzen baduzu, pilotan bakarrik zaude, eta futbolekin, esaterako, eskatu daiteke aldaketa. Nik uste dut errazagoa dela taldeko kirolen bat praktikatzeko. Jarraitzea erabaki nuen, eta pozik nago hartutako erabakiarekin. **Lazkaoko pilota taldean diharduzu gaur egun. Zer aurkitu duzu han?** Ingurune hartan pilotak garrantzi handia dauka, eta beste modu batean bizi dute. Herri gehiengotik futbola da kirol garrantzitsua, baina Lazkaon ume askok aukeratzen dute pilota,

eta oso ohikoa da jendea pilotan jokatzeko ikustea. Entrenatzeko jarraikortasuna aurkitu dut han. Asten bi aldiz joaten naiz, normalean: Gasteizen nabil ikasten, eta handik joaten naiz beste lagun batekin. Eskertuko nuke Elgoibarren entrenatu ahal izatea, baina ez didate erraztasun askorik ematen Lagunak taldekoekin. Ikastolako frontoia itxita egoten da, eta askotan libre egoten den arren, beste edozein herritarren moduan frontoi bila ibili behar izaten dut, entrenatu ahal izateko. Klubekoak baldin badaude ulertzen dut haiek lehentasuna izatea, baina libre dagoenean frontoia erabiltzeko aukera ematea eskertuko nuke.

LaRoitakoek aurkeztu dituzte aurtengo erronkako partaideak

Erreleboka jokatu dute erronka, estreinakoz, eta hamabi lagunek hartuko dute parte, lau talde mistotan banatuta

A.A.

LaRoita kuadrillakoek Gabon Zahar Feria Egunean argitu zuten zeintzuk izango diren erronkaren seigarren ekitaldiko lehiakideak. Aurrez iragarri zuten moduan, talde mistoetan jokatu dute aurtengo erronka, eta estreinakoz erreleboka izango da; hau da, taldekide bakoitzak kirol bat egingo du: igerian egingo du lehenengoak Mutrikuko portuko igerileku naturalean; bigarrena Mutrikutik Elgoibarrera etorriko da bizikletan, Kalbarioko portuan zehar; eta hirugarrena Kalegoen plazatik Karakatera igoko da korrika.

Hamabi lagun agertu dira erronkari izateko prest, eta horiekin hiru laguneko lau talde osatu dituzte. Honela osatu dituzte taldeak:

1. Taldea: Garazi Catalan (igerian), Eneko Barruetaña (bizikletan) eta Gorka Melgosa (korrika).

2. Taldea: Alazne Martinez (igerian), Egoitz Arrizabalaga (bizikletan) eta Ander Aranbarri (korrika).

3. Taldea: Sarai Sanchez (igerian), Ion Beristain (bizikletan) eta Ander Armendia (korrika).

4. Taldea: Ane Arregi (igerian), Iker Beristain (bizikletan) eta Aimar Elizburu (korrika).

Egun osoko egitaraua

Uztailaren 4an jokatu dute aurtengo erronka, 09:30ean hasita. Mutrikuko portuan hasi, eta Karakateko tontorrean amaituko da proba, eta ondoren festa hasiko dute. Sari banaketa ekitaldiaren ostean bilduko dira guztiak, eta elkarrekin egingo dute bazkaria. Oraindik ez dute egitarau osoa lotuta, baina aurreratu dute egun osoko jaia izango dela.

NIRE USTEZ

Urte berriari begira



IRENE MACAZAGA
HIZKUNTZALARIA ETA
DOKTOREGO AURREKO
IKERTZAILEA

2026aren atarian aukera baliatu nahi dut urte berriari eskatu nahi nizkiokeenak zerrendatzeko. Izan ere, badago zer desiratu. Ingurura begiratu besterik ez dago bizi dugun unearen larritasunaz ohartzeko. Hasteko, Israelek su-etena sinatu ez izanarena egiten du; Gazari eraso egiten jarraitzen du, eta hara helden den erakundeen laguntza ukatzen du. Horri gehitu behar zaizkio palestinarrek pairatzen ari

diren uholdeak. (Gure) mendebaldera begiratzen badugu –Palestinako egoerari ez erreparatzea nahi luketelako batzuek–, AEBek nazioarteko legea hautsi dute Nicolas Maduro bahituta. Horrez gain, estatu mailan, Moreno Bonillak, Andaluziako Juntako presidenteak, Baltasar erregez moztortzea erabaki du –eta aurpegia beltzez margotu du, noski–. Sinestezina da nola ausartu den kaleak hartzera, Andaluziako hainbat emakumek jasan duten bularreko minbiziaren proben akats masiboaren arduradun nagusia izanda. Badirudi denak balio duela,

dena dela zilegi. Azken urteetan lortu diren aurrerapenen eta askatasun-eskubideen aurrean, ultraeskuinaren gorakadak beldurtu egiten nau. Korronte atzerakoi honek itoko gaituen sentipena dut. Ez dakit zuk, irakurle, zer eskatu diozun urte berriari. Nik argi daukat zer nahi dudun 2026an –eta aurrerantzean–: nazioarteko auzian, bakea Palestinan eta boikota Israeli; eskala txikiagoan –baina modu unibertsalean–, osasun- eta hezkuntza-sistema publikoak eta kalitatezkoak denontzat; funtsean, diru publikoa herriarentzat. Eskatzea bezain erraza balitz lortzea...

KLIK

Pilota hormara



**JOSE RAMON
CABRERA**
ARGAZKILARIA

Ikastolako frontoiko horma-irudia erretratatu du Joserra Cabrerak oraingoan. 2025eko Kilometroak jaiaren harira sortutako lana izan zen hau, eta iazko irailean aurkeztu zuten, hain justu ere, Kilometroen atarian. Salto-saltoka izan zen Elgoibar Ikastolak aukeratutako lema, eta sokak izan ziren protagonista. Kasu honetan, pilotaz gain, sokak ere ageri dira irudian. Lian Monserrate (AEB, 1981) margolariak marraztu zuen, Elgoibar Ikastolaren enkarguz. AEBetan sortu bazen ere, katalana dela dio Monserratek, han bizi izan baita denbora luzez, duela urte batzuk Euskal Herrira etorri zen arte. Munduko kaleak lantoki: AEBak, Alemania, Italia, Espainia... han eta hemen ibiltzen da muralak egiten, eta bere lanak munduko onenen artean aukeratu izan dituzte.



KEXA

Lurzorua egoera txarrean San Roken




"San Roke auzoko lurra zabaltzen ari da, eta arrakalak gero eta handiagoak dira. Azpian garajeak daude eta zirrikituetatik ura pasatzen da behera. Horrez gain, espaloiak ez dira irisgarriak, eta aulki gurgildunean ibiltzeko oso deserosoak dira. Eskertuko genuke beharrezko konponketak egitea".

barrena@barrena.eus



KEXA

Auto bat abandonatuta Urazandin



"Hilabeteak daramatza auto batek mugitu gabe. Auzo honetan aparkatzeko arazo larria dago, eta iruditzen zaigu auto horrek ez lukeela hor egon behar. Dagokionak har dezala bere ardura, eta jarri dezala auto hori hortik kentzeko bidea".

barrena@barrena.eus

KEXA

Arriskua Errege Magoen desfilean



"Ederra izan da Errege Magoen desfilea, eta eskerrak eman nahi dizkiet antolatzaileei. Hala ere, iruditzen zait gozokiak botatzeko ohiturak arrisku egoerak sortzen dituela, umeak ia karroza azpian sartzen direlako. Kontu horri irtenbidea eman behar zaio, berandu baino lehen".

barrena@barrena.eus

"Bazkide berriak behar ditugu Sendi Anaitasuna elkarteari luzaroan eusteko"

Heriotza-gastuez arduratzen dira Sendi Anaitasunan, eta 725 bazkide inguru ditu

Ainara Argoitia MENDARO

Hiltzea garesti dago, baina ez da oraingo kontua. Hala ondorioztatu daiteke, behintzat, Mendaroko Sendi Anaitasuna elkartearen sorrerako agiriak irakurrita. Gerra ostean sortu zuten elkarte, Garagartzan, justuan bizi zirenek ere hil ondorengo duina izan zezatela ziurtatzeko. Elkarte hark bizirik dirau eta 700 bazkideetik gora dauzka egun. Boluntarioz osatutako zuzendaritza batek kudeatzen du, eta gaur egun Onintza Loiolak, Jaione Zabalak, Arantxa Ondarrak eta Iraide Loiolak osatzen dute taldea. Haiek eman digute elkartearen berri, urteko batzarraren kariatara. Otsailaren 1ean egingo dute Bazkideen Batzar Orokorra, Azpilgoetako elizan, 11:00etan, eta bazkide guztiak daude deituta. **Zer da Sendi Anaitasuna eta zenbat bazkidek osatzen duzue gaur egun elkarte?**

Elkarte berezia da; guk geuk ez dugu antzeko besterik ezagutzen inguruetan. Auzolanaren kulturak gaur baino indar handiagoa zuen garaian sortu zuten Mendaroko Garagartza auzokoek, gerra ondorenean, eta gaur egun 700 bazkideetik gora gara. 2024. urte amaieran 740 ginen zehazki, eta 2025eko abenduaren 31n, 726. Gu geu jaio ginenetik gara elkarte bazkide, hala erabaki zutelako gure gurasoek. Garai batean, etxe gehienetan hala izaten zela esango genuke. Naturala zen. Jaioz gero zor dugu hiltzea, eta oso barneratuta zuten hori gure aurrekoek.

Zer baldintza bete behar ditu bazkide batek?

Mendarorekin lotura izan behar du: Mendaron bizi behar du edo, bestela, noizbait Mendaron bizi eta elkarte bazkide izandakoa izan behar du. Badauzkagu kanpotik Mendarora bizitzera etorritako bazkideak ere elkartearen. Hori bai, bazkide egiten denak onartu behar du hileta ondorengo zerbitzua Elgoibarko Etxeberria ehorztetxeak emango

diola, gaur-gaurkoz harekin duelako hitzarmena egin.

Zer dakar Sendi Anaitasunako bazkide egiteak?

Kuota bat ordaintzea, baina ez hilerokoa. Sendi Anaitasunakook hiltzen zaigun bazkide bakoitzeko 3,5 euro ordaintzen dugu, eta, trukean, elkarte egingo da gure hileta-gastuen kargu, eguna iristen denean. Ezaugarri jakin batzuetako hilkutxa, beilatokiko gastuak, koroa, eskelak, lurperatzea edo erraustea –gaur egun, hilotzen %90 erraustu egiten dira–, Elizako gastuak baldin eta hileta elizkizuna elizan egiten bada, hilotza lekuz aldatzea –betiere, EAEko mugen barruan–... Hori dena sartzen da. Bazkide baten heriotzak 2.409,12 euroko kostua dauka guretzat, Sendi Anaitasunarentzat. Horietatik 1.825,12 euro ehorztetxearen faktura ordaintzeko izaten dira, eta, horrez gain, Sendi Anaitasunak 544 euro ematen dizkio familiari, hilotza lurperatzeko edo errausteko [Kopuru hori kobratzen du Mendaroko Udalak, iaztik, hilobiratzeagatik]. Gero, aparte, elizkizuna egiten den kasuetan, familiari beste 40 euro ematen dizkio elkarteak, Elizak kobratzen duena ordaintzeko.

Bazkide egiteko baldintzak berberak dira adina edozein izanda ere?

Ez. 49 urte bete aurretik bazkide egiten dena biharamunetik bertatik dago aseguraturata aldian behingo kuotak ordainduz gero, baina, adinean aurrera egin ahala, bazkide berrientzako baldintzak ezberdinak dira. Hala, 50 urtetik 60 urtera bitartean bazkide egiten dena lehenengo

"Zailtasun gehiago zituztenek ere azken duin bat izan zezaten sortu zuten elkarte"



Iraide Loiola, Arantza Ondarra, Jaione Zabala eta Onintza Loiola zuzendaritzakideak. A. ARGOITIA

bi urteetan ez da aseguraturata egongo. 61etik 65era arteko bazkide berriek, berriz, aldian behingo kuotez gain 100 euroko sarrera ere ordaindu beharko dute bazkide egiteko, eta haiek ere lehenengo bi urteetan ez dira aseguraturata egongo. Hortik aurrera, baldintzak berberak dira, baina sarrerako kuota aldatu egiten da. 66 eta 70 urte artekoek 200 euro ordaindu behar dituzte, eta 71 urte baino gehiago dituztenek, 400 euro.

Bizimodua garestitu egin dela, baina hiltzea bera ere...

Bai, eta elkartearen ez dagoen batentzako askoz garestiagoa da. Guk dakigunaren arabera, Sendi Anaitasunari kostatzen zaiona baino 1.000 euro gehiago bai, gutxienez. Begira, kalkulua erraza da: ehorzketa-aseguru pribatuek hileroko kuota kobratzen dute, eta gure inguruan badira hilero aseguru horregatik 16 euro ordaintzen ari direnak buruko. Guk, berriz, 3,5 euro ordaintzen ditugu, baina ez hileroko, baizik eta hiltzen den bazkide bakoitzeko. Egin kontu: 2025ean, hamasei bazkide hil zitzaizkigun. Oso urte gogorra izan zen Mendaron. Hala ere, hamasei bazkide galduta, gutxira 56 euro ordaindu genituen bakoitzeko, hilero 16 euroko kuota ordaintzen ari denak baino 136 euro gutxiago.

Elkartearen diru-kontuak osasuntsu daude, baina, hala ere, bazkide berrien bila ari zarete.

Bai. Bazkide berriak egitea komeni zaigu elkarteari luzaroan eusteko, kuotak direlako gure finantzaketa-iturri nagusia; kuotak, eta isunetan bildutako dirua. Izan ere, urteroko batzar nagu-

sira agertzen ez denak hamar euroko isuna ordaindu behar izaten du.

Orduan, batzarrera jende gutxiago agertuta, mesede zuentzat.

Ez da hori kontua, baina. Hala ere, bai, duela bi urte, esaterako, 1.160 euro bildu genituen isunetan, inoizko gehien. Hain zuzen ere, urte hartan erabaki genuen familia-unitate bakoitzeko gutxienez pertsona batek parte hartu behar zuela urteko batzarraren; alegia, ez zuela balio pertsona batek familiako guztiak ordezkatzeko. Gertatzen zitzaizkigulako halakoak ere: guraso bat etorri, eta etxetik kanpora bizi ziren seme-alaba eta biloba guztien izenean erantzun. Salbuespen batzuk egiten dira, jakina, baditugulako lanagatik, adinagatik edo justifikatutako bestelako ezinen batengatik etorri ezin direnak. Bilerak igandeetan egin izan ditugu beti, eta badakigu denok izaten ditugula plan hobeak, baina, elkarte edozein dela ere, bazkideek beti dituzte eskubideak eta betebeharrak.

Ondo esan duzue jaio den orok zor duela heriotza, baina ulertuko duzue gaztetan urruti ikusten den kontu bat dela.

Bai, garbi dago. Jende bati ulergaitza egiten zaio bizi den artean heriotzako gastuak ordaintzen aritzea, are gehiago gazte jendeari, baina hemen inork ez dakigu noiz hilko garen. Gainera, ez dugu uste horretarako bakarrik ordaintzen dugunik; komunitateari laguntzeko ere egiten dugu. Filosofia horrekin sortu zuten gure arbasoek elkarte: zailtasun gehiago zituztenek ere azken

duin bat izan zezaten, eta gaur ere familia askotan bizi dira justuarekin. Gazteak erakartzeko zailagoa daukagu, zalan-tzarik ez dago: batetik, normala den moduan, urruti ikusten dutelako azkena, eta, bestetik, jende batek Elizarekin lotzen gaituelako oraindik ere, seguruena han egiten dugulako urteko batzarra, baina, izatez, Sendi Anaitasunak ez dauka inolako loturarik Elizarekin; edukiera kontuengatik eta irisgarritasunagatik bakarrik egiten dugu elizan batzarra.

Otsailak 1, domeka

Otsailaren 1ean egingo dute Sendi Anaitasunaren urteko batzar nagusia, Azpilgoetako elizan, 11:00etan. Iazko kontuen berrien eman eta bazkideen zerrenda pasatu ondoren, galderetarako tarte zabalduko dute.

ENGLISH
SQUARE



SCHOOL OF ENGLISH

DBH eta batxilergoko maila guztiak
First eta Advanced titulua

Sokagin kalea 12, DEBA
648 268 206

info@english-square.net

Valdespinako parkearen eraldaketa, bukatzeaz

Petanka-pista estali, txakur parkea lekualdatu eta bidexka eraiki dute Jubiletzetik



Valdespinako berdegunea, petanka-gunera doan bidexka zolatu berrian. A. GOMEZ

Ander Gomez

Azken bi urteotan aldaketa ugari egin dira Valdespina Markesa parkean, bereziki adinekoei, mugikortasun urriko pertsoneri eta txakur-jabeei eragingo dietenak. Udalak azaldu duenez, hobekuntza horiek parkea aisialdirako eta elkargunerako gune atseginagoa bihurtzea dute helburu, kolektibo horiek zein gainontzeko herritarrek disfrutatu ditzaten.

Petanka-pistaren eraberritzea

Petanka-gunean egin dute parkeko esku-hartze nagusietako bat. Teilatua eta argiteria jarri dizkiote, urte osoan –bai iluntzeetan, bai eguraldi txarra dagoenetan– erabiltzeko modukoa izan dadin. Perimetroa hesi metaliko batekin inguratu dute, eta gunea guztiz itxita geratu da. Herritarrek pista erabiltzeko aukera izaten jarraituko dute, baina, aurrerantzean, Jubiletzeko Petanka Taldeak kudeatuko du sarbidea. Zaintza ere haien esku geratu da: uztailaren, obrak bukatu ostean, pista egokitze lehen lanak egin zituzten –belarra moztu, lurra landu, markak nabarmendu...–, eta guztiz eraberrituta jokatu ahal izan zuten Santixauetako txapelketa.

Txakur-parkearen lekualdaketa

Petankarekin muga egiten zuen txakur-parkea, berriz, kendu eta Izelaieta kaleko etxeen atzeko berdegunera eraman dute. Emakumeen Topalekutik hasi eta Irulitxa tabernaren hasieraraino iristen da, etxebizitzetikiko bost metroko tartea zainduz. Parke zaharreko egurrezko hesi zatiak zein berriak erabili dituzte prozesuan. Aurrekoak baino azalera handiagoa du eta hiru sarre dituzte: bi, tabernatik gertu –bata arrunta eta bestea bi atekoa–, eta beste bat, aldaparen hasieran. Lekualdaketa erdiguneko berdegunean espazio berriak sortzea eta bertako lurra sendatzea ahalbidetuko du; izan ere, Ermuko arboladiak arduratzen den Arbolan enpresak diagnostikatu zuen txakurren pixak eta gorotzak bertako zuhaitzak kalteztzen ari zirela.

Magnoliaren eraisketa

Txakur-parkeko sarreran zegoen magnolia moztean izan da hobe-kuntza planaren parte ez zen aldaketa bakarra. 2024ko abuztuaren egindako azterketan, zuhaitza gaixorik zegoela baieztatu zuen Arbolanek, animalia horien hondakinak ez ezik, lurzorua kalitate eskasak –obra-materia-

lekin eta bestelako zaborrekin kutsatuta zegoen– eta elikadura faltak eraginda. Hainbat neurri hartu zituzten zuhaitza berreskuratzeko: obra-hondakinak erretiratu, substratua zabaldu, belarra erein, adar lehorrak kendu, tratamendu kimikorik gabeko zaintza-lanak egin... Baina 2025eko apirilean, hiri-arboladian aditua den ingeniari tekniko batek azterketa egin eta zuhaitza hilik zegoela ziurtatu zuen, eta mozte gomendatu zuen. Eraisteko agindua eman zuen Udalak maiatzean, "adarren erorketa arriskua egonik, oinezkoen segurtasuna bermatzeko".

Bide berria, Jubiletzetik

Azken aldaketa berdegunea zeharkatzen duen bidexka berria da, Jubiletze parean hasi eta petankako sarreraren bukatzen dena. Parkeko horma 2024ko irailean eraitsi zuten, baina bidea abenduan eraikitzen hasi ziren. Udaleko talde teknikoak diseinatu du, oztopo arkitektonikorik gabe eta bi pertsona aldi berean igarotzeko adinako zabalerarekin –aulki gorpilduna erabiltzen dutenak barne–. Lurrerako pabidrena aukeratu dute, harri txikiak eta erretxinaren arteko nahasketa, "itxura naturalekoa,



Berdegunerako sarbide berria egiten.



Petanka-pista hesituta, estalki barik.



Txakur-parke berria Izelaietako etxeen atzean, txakurrentzako jolasen faltan.

irristagaitza eta drainatzailea delako, eta epe luzera mantentze-lan gutxi eskatzen dituelako". Petanka-pistan bezala, argiteria instalatu dute bidexkan.

Obra amaitu eta gutxira, harri horietako batzuk askatzen hasi ziren. Hirigintza Saileko Rosa Maria Cid zinegotziak azaldu duenez, berehala enpresako arduradunari jakinarazi zioten. Teknikari baten ikerketak baieztatu zuen obra baldintza atmosferiko txarreko egun batean egin zela, eta, ondorioz, materiala ez zela behar bezala egonkortu. Joan den eguaztenean, kaltetutako zatia kendu eta berriz hasi zituzten zolatze-lanak.

Aisialdi-gune gehiago

Aldaketa guztiak Ermuko kolektiboaren entzute-aktibotik eta bulego teknikoaren azterketetatik abiatu direla azaldu du Cidek, eta espazioa egokitzen jarraituko dutela: "Esku-hartze horiek etorkizuneko oinarriak ezarri dituzte; aisialdirako gune gehiago sortzea eta berdegunea aberasten jarraitzea da asmoa".

Momentuz, bidearekin bukatuko dira aurreikusitako obra nagusiak, baina hainbat elementuren instalazioa falta da oraindik, hala nola txakurren-

tzako jolasak eta hiri-altzari berriak. Azken puntu hori Ermua, Hiri Lagunkoia taldearekin landuko dute, adinekoen-tzako egokiak izan daitezke. Horrez gain, magnolia ordezkatuko duen zuhaitz bat landatzeko asmoa ere badute.

Inbertsioa

Esku-hartzea	Kostua
Petanka-pista	39.960,25
Txakur-parkea ¹	10.513,84
Arboladiaren tratamendua ²	0,00
Magnoliaren mozketa	1.680,69
Bidexka	24.949,15
Petankaren argiteria	4.368,10
Bidexkaren argiteria	6.786,97
GUZTIRA	88.259

KANTITATEAK EUROTAN, BEZ-A BARNE

¹ Parke zahararen desmuntatzea eta berriaren eraikuntza.

² Kostu barik, Arbolan kontratuaren baitan.



VI. Mendeurrena kaleak (argazkian) eta Zubiaurreko goiko aldeak izaten dute trafiko gehien egunean.

Saihesbidearen Aldeko Plataformak irmo eutsiko die aldarrikapenei 2026an ere

Instituzioek 2030ean jarri dute jomuga; plataformak zalantzan jarri du epe hori

Dorleta Vidal

2018ko urtarrilean inauguratu zuten Ermuko saihsbidearen lehen fasea, Uretamendi inguruan –AP-8 autobidea eta Eibarko saihsbidea lotzen dituen zatia, alegia–. Jarraian, bigarren fasearen bi atalak egin behar ziren –Urtia eta Goitondo industrialdeetara doazen ibilgailuek herria zeharkatzea eragotziko dutenak–, baina aurreikusitako lanak bertan behera geratu ziren.

Lau urte igaro ondoren –2022ko azaroan–, hainbat herritarrek Saihsbidearen Aldeko Plata-

forma sortu zuten, eta ordutik lanean dihardute "politikarien utzikariak atzeratu duen" azpiegitura hori "behingoz" eraiki dezaten, ordezkariak azaldu dutenaren arabera. Hortaz, urtarrilaren 8an egin zuten bileran adostu zuten 2026an ere bide beretik jarraituko dutela, "eremuaren osasunean, segurtasunean eta bizi-kalitatean, oro har, eragin positiboa izango duen proiektua errealitate bihurtzeko".

Horren haritik, 2026ak albisteak ekarri ditu saihsbidearen auzira, urtarrilaren 9an Urtiako

proiektua egiteko beharrezkoa den ingurumen-inpaktu txostena argitaratu baitzen Bizkaiko Foru Aldundiko Aldizkarian, aldeko emaitzarekin. Horrek bide eman-gio dio Aldundiari Urtiako behin betiko proiektua onartzeko, eta, berri pozgarria den arren, plataformak salatu du duela urte batzuk egin zela azterketa hori bera, eta atzerapenen eraginez haren balioa iraungitzen utzi zela: "Bizpahiru urte eta milioi bat euro inguru xahutu ziren". Hori gutxi balitz, plataformakoek gogoratu dute 2025ean

hasi behar zirela obrak, 2023ko urtarrilean Azpiegituretako eta Lurralde Garapenerako diputatu zen Imanol Pradalesek adierazi zuen moduan.

Orain, azterketa hori eskuetan, hauek dira eman beharreko pausoak: txostena Urtiako proiektuan txertatu eta beharrezkoak diren moldaketak egin, proiektua onartu, plegu administrati-boak eta teknikoak prestatu, eta lizitazioa abiarazi. Horiek horrela, plataformako kideek zalantzan jarri dute lanak 2026an hasiko direnik, eta, gutxienez urtebetez atzeratzearen ondorioz, Urtiako fasea ez da bukatuta egongo 2028ko udarako, aurreikusita zegoen moduan. Gainera, Goitondoko fasearen aurreikuspenek diote Urtiako fasea bukatu baino lehen ekingo zaiola hari eta saihsbide osoa 2030 urteko bukaerarako martxan egongo dela, baina plataformakideek epe hori ere zalantzan jarri dute.

Bi zati izango dituen bigarren fase hori osorik eraikitzen denean, Zearkaetik eta Kaltxangotik Okinzurirainoko bidean egunero dabilten 1.400 kamioiak desagertu egingo dira, eta inguru haiek lasaia goak, osasuntsuagoak eta seguruagoak izango dira, plataformako kideen esanetan. Haiek ezinbestekotzat jotzen dute obra hori, eta kexu dira "beste herri batzuetako proiektuak" lehenetsi direlako, "kontuan hartu barik Ermuko biztanle-dentsitatea eta trafiko-afekzioa".

Lorpenak

Plataforma hori herritarren presioaz baliatzen da instituzioetan "zarata" egiteko, eta, obraren arduraduna Bizkaiko Foru Aldundia bada ere, plataformak Ermuko Udalaren atea

jotzen du aldarrikapenak eta eskaerak egiteko, hura delako herriaren eta Diputazioaren arteko lotura. "Bi instituzioak alderdi berberen koalizioak gobernatzeko dituen arren, Udalak ezin die entzungor egin herrian dauden ezinegonari eta hase-rreari", adierazi dute.

Izan ere, eskari batzuek fruituak eman dituzte, eta, plataformak egindako presioari esker, 2025etik aurrera 3,5 tona baino gehiagoko kamioiek debekatuta daukate Bizkaia eta Gipuzkoa etorbideak zeharkatzea. Bestalde, VI. Mendeurrena, Zubiaurre eta Zearkale kaleetan ibilgailu astunak debekatzeko proposamena egin zuen plataformak duela lau hilabete, eta Ermuko Udalak aho batez onartu zuen debeku hori 22:00etatik 08:00etara izatea. Erabaki horri egin zaizkion alegazioei erantzuna ematen dihardu Udalak.

Azkenik, plataformaren ustez, trafikoari lotuta hartu diren erabakiak zentzugabeak dira aspalditik, eta aipatu dute Mallabiko Goitondo eta Ermuko Urtia industrialdeak eraiki zirenean lantegiak herriguneetatik ateratzeko, ez zirela kontuan hartu horrek nola eragingo zuen Ermuko kaleetako trafikoan. Halaber, salatu dute ondoko herrietako udalek, tartean Mallabiko inplikatu zuzena delako, ez dutela gai horri konponbidea emateko inolako ahalegi-nik egin.

Plataformari esker, kamioiek galarazita dute Bizkaia eta Gipuzkoa etorbideak zeharkatzea

**2026-2027
AURRE MATRIKULA
GARAI**

INFORMAZIO GEHIAGO
943 179 036
eskola@eskolabarri.com
Santa Ana, 3, z/g (Ermua)

**ETOR ZAITEZ
GU EZAGUTZERA!**

**Epea:
2026ko otsailaren 2tik 13ra**

EsKolabarri

"Digitalitatean, euskaldunok kontziente eta aktibo izaten jarraitu behar dugu"

AINHOA DELGADO IRIONDO KAZETARIA

Dorleta Vidal

Kazetaria den arren hamalau urte daramatza Ainhoa Delgado Iriondok (Ermua, 1972) Hizkuntza Normalizazio teknikari Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzan. Zeregin hori ikertzaile lanarekin uztartu zuen iaz, eta azaroan, Soziolinguistika Klusterrak eta EHUK antolatzen duten Txillardeg-Hausnartu saria irabazi zuen, *Zuk, zergatik ez? Hizkuntza-hautua finantza-entitateen zerbitzu digitaletan* lanari esker. Sari banaketa abenduaren 19an izan zen, EHUn Gasteizko Campuseko Micaela Portilla ikergunean.

Zer dela-eta erabaki zenuen ikerketaren esparrura jauzia ematea?

2024-2025eko ikasturtean, Euskara eta Digitalitatea graduondokoa egin nuen UEUn Goi ikastegian, eta hori izan zen aurkeztu nuen amaierako lana. UEUko arduradunei asko gustatu zitzairen eta sarietara aurkeztara animatu ninduten.

Eta Txillardeg-Hausnartu soziolinguistika sariaren XVIII. edizioa irabazi duzu...

Bai; haien deia jaso nuenean, ezin nuen sinetsi. Sari-banaketa ekitaldia hilabete geroago burutu zen, eta oso xumea izan zen arren, hitzalditxo egin behar izan nuen lana aurkezteko: ikaragarri urduri egon nintzen! Bukatutakoan, sari ekonomikoaz gain, Jose Luis Zumetaren litografia eder bat jaso nuen, eta ilusio handia egin zidan.



Ainhoa Delgado kazetaria.

Zergatik finantza-entitateak aztergai?

Batetik, euskara eta digitalitatea lotu behar nituelako; bestetik, nire lanarekin zerikusia zeukan gaia landu nahi nuelako, eta gaur egun arlo sozioekonomiko pribatuan euskara sustatzen egiten dut lan, tartean finantza entitateekin. Azkenik, herritar askok erabiltzen duten zerbitzu digitala aukeratu nahi nuen, eta finantza-entitateek baldintza guztiak betetzen zituzten.

Zer ikertu zenuen, zehazki?

Hego Euskal Herrian presentzia handiena duten sei finantza-entitateak aztertu nituen: haiekin bildu nintzen aurrez aurre, behaketa egin nuen online bankan, aplikazioetan eta kutxazainetan hizkuntzaren presentziari eta kalitateari erreparatuta, EAEko legea aztertu nuen, eta galdetegi bat zabaldu nuen bezeroen artean.

Zer-nolako errealitatearekin egin zenuen topo?

Hizkuntza baten bizindar digitala neurtzeko bi faktore hartzen dira kontuan: hizkuntza horretan dagoen tresna eta eduki kopurua eta haiek zenbat erabiltzen diren. Biak dira ezinbestekoak. Euskararen kasuan, euskal komunitateak lan handia egin du sarean egoteko, baina bertan dauden tresnen erabilera oso txikia da. Finantza-entitateen kasuan, euskara bermatzen dute zerbitzu digitaletan, baina erabiltzaile gehienek gatzelaniaz erabiltzen dituzte.

Zergatik gertatzen da hori?

Faktore ugari daude: jarrerari eta gaitasunari lotutakoak, araugintzarekin zerikusia dutenak, finantza-entitateen egiteko moduekin lotutakoak eta baita digitalitatearekin berarekin harremana dutenak. Edozein kasutan, kutxazainak, online banka eta mugikorrek aplikazioak euskaraz erabili nahi dituztenek hautu kontziente bat egin behar dute hori hala izan dadin.

Zein ondorio ateratu dituzu?

Gure hizkuntza-hautuetan eragiten duten faktoreak ezagutzea garrantzitsua dela neurriak hartu ahal izateko, eta euskaldunok kontziente eta aktibo izaten jarraitu behar dugula. Horrekin batera, erabilera sustatzearen ardura badela entitateena eta instituzioena ere, eta aurrera egiteko ezinbestekoa dela haiekin elkarlanean aritzea.

Gabonetako Tonbola Solidarioak 4.500 euro jaso ditu

D. Vidal

Urtarrilaren 5ean itxi zen Tonbola Solidarioa, eta, antolatzaileek jakinarazi dutenez, 4.500 euro jaso dituzte herritarren elkartasunari esker. Txartelen salmentak 15 egun iraun zuen, eta saririk jaso ez zuten guztien artean egiten den zozketan June Hernandez Allende izan zen saritua, eta Marijo Goigianak eskuz egindako manta bat eskuratu zuen.

Bestalde, jasotako dirua bidaliko da Kolonbiara, Mireia Suarezren bitartez; estatura, Niko Urretari esker; Senegalera, Hortensia Perosanzekin; eta Palestinara, Mundubat GKEren bitartez.

Atzera begirakoa

Tonbolaren lehen edizioa 2005. urtean egin zen, eta, 20. urteurren honetan, arduradunek atzera begirako txostena prestatu dute. Bertan irakurri daitekeen, ekimen horrek 80.000 euro baino gehiago jaso ditu 2005etik 2025era bitartean.

Diru kopuru hori sei ermuarren artean banatu izan da –Niko Urreta, Garbiñe Esturo, Iñaki Peña, Germán Saenz de Zaitegi, Mireia Suarez eta Hortensia Perosanz–, eta haien bitartez heldu da dirua Kolonbiara, Senegalera, Perura, Txilera, Greziara eta Palestinara, besteak beste, non hainbat proiektu egin dituzten.



June Hernandez, irabazlea. J.M.

Txirrindulari gazteentzako matrikula zabalik

Ermuko Txirrindulari Elkarteak txirrindularitza eskolan izena emateko epea zabaldu berri du, eta deialdia 7 eta 14 urte bitarteko neska-mutilei zuzenduta dago. Aitor Hernández txirrindulariak zuzenduta, hiru modalitate landuko dira eskolan: errepideko txirrindularitza, BTTa eta ziklo-krosa, eta entrenatzeaz gain, lasterketetan par-

te hartzeko aukera ere izango da.

Eskolako arduradunek adierazi dutenez, entrenamendu-saioak giro lasaian egiten dira, umeek gozatu dezaten bizikletarekin trebatzen diren bitartean, eta nabarmendu dute elkartasuna eta errespetua dirrela taldearen oinarriak.

Interesa dutenek 644 655 085 telefonora deitu edo idatzi behar dute. Probatu nahi dutenei, eskolak utziko dizkie bizikleta eta beharrezkoa den ekipamendua.


ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA
ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA ERMUA


SISTEMA ELEKTRONIKEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT
www.zermik.com
Usaetee plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragón (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12


ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrosistemak
bioteknikako diseinu elektronikoa garatzen
espezializatu dagoen ingeniaritza-entitatea
da. Homez gain, IoT/IIoT-en bitartez sistema
industrialen kontrola eta monitorizazioa
bidarteko gaitasuna ere badu.


IKASTOLA
1968tik Ermua
euskalduntzen


TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko

ARRIETA CORDEVI
Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...
...prezio eta kalitate
ezin hobean.
VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA


SAGARDUI
pottoak
Zubiaurre 20 - ERMUA - 943 170 305



Gartzot Mugarza eta Ibon Txurruka 2025eko lasterketa laburreko erratzak, herrira ailegatzen. VALENTIN MUGARZA

7 Pago mendi-lasterketak inskripzioak zabaldu ditu, eta berritasunekin dator

Plaza eta sari kopurua, eta jateko eskaintza handitu egingo dituzte aurten

Ander Gomez MALLABIA

Maiatzaren 23an izango da 7 Pago mendi-lasterketa, eta aurten ere Durangaldeko Kopako lehen proba puntuagarria izango da. Bi ibilbide izango ditu: luzea, 25 kilometro eta 1.400 metroko desnibel positiboarekin; eta laburra, 16 kilometro eta 750 metroko desnibel positiboarekin.

Urtarrilaren 2an zabaldu ziren inskripzioak, eta online egin daitezke, *Kronoak* plataforman. Proba luzekoak 25 euroko kostua du eta laburrekoak, 20koa. Dortsalarekin batera, aseguruia eta

opari-poltsa jasoko dute lasterkariak. Zazpi Pago Elkarteko antolatzaileek diotenez, izen-ema-teak azken asteetan bizkortu egiten dira, baina aurten arinago doaz: "Tantakak bezala, lauz-pabost inskribatzen dira egunero". 160 lagunek eman dute izena eta lasterketa laburreko dortsalen erdia saldu da jada.

Dortsal gehiago eta sari berriak Iaz, 200 plaza zabaldu ziren lasterketa luzean eta 150 laburrean; aurten, 50 plaza gehiago eskainiko dira motzean, 400 dortsal

guztira. Aurrekoetan azkar bukatu izan direlako eta mendi-lasterketen munduan hasten direnentzat aproposa dela ikusi dutelako gehitu dituzte: "Sarerra moduko bat izan daiteke hasiberrientzat, bihar edo etzi 25 kilometroko probarako saltoa egiteko, edo orain 16 kilometrokoa justu bukatu eta hurrengoetan errazago errepikatzeko".

Esperientziadunek, berriz, sariak izango dituzte pizgarri: aurreko edizioetan ezarritako marka ofizialak hausten dituen lasterkari bakoitzak, motzean zein

luzean, 100 euroko dirusaria jasoko du. Horrez gain, lasterketa laburra ere puntuagarri izango da Durangaldeko Kopako sailkapenean, eta saria izango du.

Lasterketa ostekoak

Hasieratik garbi egon da 7 Pago ez dela lasterketa hutsa, egun osoko jaia baizik. Horregatik, elektrotxaranga eta umeen lasterketa antolatu dituzte, arratsalderako. Dena den, bazkalordua momentu "kritikoa" dela igarri dute: "Kontziente gara Mallabiak ez duela hainbeste pertsonaren beharrak asetzeko adina gaitasunik". Aurreko edizioetan talogilea izan dute, baina aurten oilasko-parrillak jarriko dituzte. Partaideek mokadutxoia izango dute doan, eta ondoren salgai jarriko dira familia, lagun eta zaleentzat. Bertako tabernen eskaintzarekin batera, jendea Mallabian gelditzeko erronka bete eta iluntzera arteko giroa bizirik mantentzea espero dute.

Marka ofizialak

IBILBIDE LABURRA	Denbora
Garazi Sampedro	1:40:27
Xuban Muniozguren	1:22:08

IBILBIDE LUZEA	Denbora
Nora Narbaiza	2:51:41
Irazu Aranburu	2:16:48

Martxan da 'Ez esan!' galdera-erantzun jokoaren denboraldi berria

Mallabiaren eta mallabitarren inguruko jokoaren hirugarren edizioari ekin diote Berbalagunek

Ander Gomez

2024an estreinatu zuten *Ez esan!* jokia Mallabiko Berbalagunek; herritar guztiei irekitako lehiaketa. Ekimen horrekin, Mallabian euskara zabaltzen jarraitzeaz gain, herriko historia, kultura eta bestelako jakintzak ezagutaraztea dute helburu.

Urtarrilean hasi eta hilabetero, bost galdera botatzen zaizkie herritarrei, bakoitzean bi erantzun posible emanda. Guztiak zuzen erantzuten dituenak finalerako plaza irabazten du. Berdinketa egonez gero, zozketa

bidez ematen da finalerako txartela.

Galdera-orriak herriko den-detan, tabernetan, farmazian... jartzen dira eskuragarri. Liburutegiak posta elektronikoz ere bidaltzen ditu, Berbalagunek sareetan zabaltzen dituzte, eta, hemendik aurrera, BARRENA astekarian argitaratuko dira hilerro. Galderak tokiko komertzioetan bertan erantzun eta entregatu daitezke fisikoki; bestela, telefonoz ere bidali daitezke, 663 07 04 92 zenbakira *whatsapp* mezu bat bidalita.



Bigarren edizioko jokalariek, finalean, sari-banaketa egin ostean. LOREA ARREGI

Finala, Mallabitarrok Egin jardueraren baitan

Ekainean bukatuko da lehiaketa, baina azken saioko galderak ez dituzte ohi bezala erantzungo: zuzeneko saioa antolatuko dute, Mallabitarrok Eginaren egitarauaren baitan. Iaz, inguruko

ermitak ezagutzeko irteera egin zuten zapatu goiz baten, eta amaitutakoan, eguerdi aldera, parkean elkartu ziren. Uda sasoia izanik, giro ederrean jokatu zuten bigarren edizioko finala, Rober Rodriguez izan zen garai-le eta opari-sorta jaso zuen sari.

EZ ESAN!

MALLABIARI BURUZKO
GALDERA-ERANTZUNEN JOKOA
URTARRILA



1. Ze urtetan atera zen lehen aldiz kalera Drogeteniturrri aldizkaria?
a) 1973
b) 1989

2. Ze hamarkadatan hasi zen hedatzen Goitondo industrialdea?
a) 1950
b) 1970

3. Non jaio zen Maritxu Roteta, mallabitarretako abeslari sopranoa?
a) Alkiza
b) Durango

4. Zein da Mallabia izenaren esanahia (ustez)?
a) Bi maila
b) Mendi arteko igarobidea

5. Itsasoaren mailatik ze alturatan dago Mallabia (herriko plaza)?
a) 323
b) 175



Asteon hasi dira Plaza Zaharreko aroztegi zaharra bota eta harmailak eraikitzeako obrak

Aurreikuspena da lanak bost hilabeteen bukatuko direla

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Aste honetako astelehenean, Kalebarren 24ko eraikina, aroztegia izandakoa, eraitsi eta harmailak eraikitzeako lanak hasi zituzten.

Soraluzeko Udalak azaldutakoaren arabera, proiektu berriak "herria ibaira gerturatu eta harekin are gehiago konektatuko du"; horretaz gain, "lotura zuzena du ibaia herri paisaiako elementu garrantzitsu gisa definitzen duen prozesuarekin".

Xehetasunen arabera, lanak egingo dira Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Sailburuordetzako Auzoak Berroneratzeko eta Hiri Agendako Zuzendaritzak emandako dirulaguntza bati esker.

Zestoako Lurkide Hondalanak SL enpresari esleitu diote obra; aurrekontua 355.717,79 euro da, gehi BEZa, eta aurreikuspena da bost hilabeteen egingo dutela.

Arbola moztearekin ados ez

Obraren berri ematean, haren eraginaren gaineko informazioa ere argitaratu zuen Udalak. Besteak beste, jakinarazi zuen ibaira begira egongo diren harmailak eraiki ahal izateko Plaza Zaharreko "zuhaitz bat eta hainbat arrama" moztu beharko direla, "halabeharrez". Gaineratu zuen "lanek inguruko elementu naturaletan ahalik eta eragin txikiena egin dezaten ahalegina" egingo duela Udalak, "baina obra garatzeko beharrezko diren neurriak" hartuko direla.



Langile bat obrarako materiala deskargatzen, joan den barikuan. U.M.

Bada, informazio horren ondoren, erabaki horrekiko desadostasuna argitaratu zuen EAJ-PNVren Soraluzeko udal taldeak. *Barrena.eus* atari digitalean esan zutenenez, ez daude

ados platanondoa moztearekin –100 urte edo gehiago ditu–, eta galdetu zuten ea ez dagoen bestelako aukera edo irtenbide teknikorik.

Eustormarik ez azpian

Bada, gaiari buruz Unai Larreategi alkateari galdetuta, esplikatzen du arbola mozteko erabakia ez dela hark hartutakoa izan, eta ez dela erabaki politikoa izan. Azaldu duenez, obra egin nahi bada, arbola moztea nahitaez hartu beharreko erabakia da, enpresa

eraikitzaileak ezinbesteko ikusten baitu hori.

Larreategik gaineratutakoaren arabera, aste honetan, hura zein EAJ-PNVko ordezkariak Lurkide enpresako ordezkariarekin elkartu dira, adituengandik azalpen teknikoa jasotzeko. Eta informazio tekniko horren arabera, aroztegiaren aurrean dagoen lur zatian ezin da makinarik erabili. Zoruak, zati hartan, azpitik ez du ezer, eta, ondorioz, ezin dio makinaren pisuari eutsi. Aldiz, platanondoetako bat moztuz gero, makina bertan ipini ahal izango litzateke, hain justu, platanondoaren azpiko zoru zatian pareta dagoelako eta hark eutsiko liokeelako makinaren pisuari.

Erabakia, gaur

Gauzak horrela, Unai Larreategi alkateak berretsi egin du zuhaitz bat moztu beharra lanen "albo-ondorioa" izango litzatekeela, eta, obra egin nahi bada, behintzat, moztu egin beharko dela.

Edozelan ere, erabakia gaurko, barikua, atzeratu dute, alde guztiek egoera aztertzeak aukera izan dezaten. Eta azpimarratu du gaur hartuko duten erabakia behin betikoa izango dela; hau da, aurrera egin edo ez erabaki beharko dutela. Halaber, aurrera egitea erabakitzaren badute, gaur bertan beteko da erabakitzen dutena, astelehenean nahi baitute eraikina eraisten hasi.

Balategieta 22 eta SAPA arteko obrak astelehenean hasiko dira

Astelehenean, urtarrilaren 19an, hasiko dira SAPA eta Balategieta 22 arteko galtzada-harriak birjartzeko lanak. Horren eraginez, datozen asteotan esparrua itxita egongo da zirkulaziorako eta hainbat aldaketa izango dira.

Batetik, ezingo da Balategieta 18 eta 24ko garaje pribaturik erabili hilabete inguruan.

Eta, bestetik, Gabolatseko zubia ibilgailuentzako itxi egingo dute. Oinezkoak, oster, igaro ahal izango dira Gabolatseko zubitik. Halaber, lanek iraun bitartean, SAPAko aterpetik igarobidea izango dute oinezkoek.

Udalak esan duenez, garaje pribatuaren aldetik hasiko dira beharginak galtzada-harri berriak ipintzen, eta SAPA aldean amaituko dute; hortaz, SAPAko aterpeko behin-behineko aparkalekurako sarrera-irteerak erabilgarri egoteari uzten dienez, lanak puntu horretara iritsi direlako, garaje pribatuak erabilgarri egotera igaro ahal izango dira.

Bost urtean 54 hektarea lur erosi eta 7.100 zuhaitz landatu

Asteon, 2025eko batzar nagusia egin du Soraluzeko Baso Biziak Elkarteak. Bertan, urteko deskargua egin zuen, eta aurtengo lorpenik handiena nabarmendu zuten; izan ere, "urte luzean" lortu nahian ibili ondoren, 2025aren amaieran lortu dute Irure-Sagar Erreka inguruan 17 hektareako lursaila eskuratzea.

Azken 170.000 metro koadro berri horiekin, bost urteotan Soraluzeko Baso Biziak elkarteak 54 hektarea lursail eskuratu ditu. "Demaseko emaitza ona da, eta zorionak denoi, hau denona da eta", esan zuten.

Osterantzean, 2025eko jardunari buruzko datuen artean, esan zuten zortzi ekimen egin dituztela –landaketak, ibai garbiketa, Zuhaitz Eguna...–, 1.325 zuhaitz landatu, 200 bat boluntariok parte hartu dutela topaketetan, 104 bazkide direla eta kontu ekonomikoak berde dituztela. Hala, balorazio orokor positiboa egin, eta 2026an bide beretik segitzeko asmoa partekatu zuten.

Soraluzeko Odol Emaileen Elkartek gainditu egin du ezarritako erronka

Urtarrilaren 23an egingo dute urteko lehen odol ateratzea; txanda 'Gotatanta.eus'-en zein telefonoz har daiteke

U.M.Z. SORALUZE

Gaur zortzi, urtarrilaren 23an, egingo du Soraluzeko Odol Emaileen Elkartek 2026ko lehen odol ateratzea. Txandak har daitezke eguaztenean eta eguenean *Gotatanta.eus* webgunean, eta bariku goizean telefonoz, 943 00 78 85 zenbakian. Ohi denez, abendua bitartean, bi hiletik behin izango da odola ematera joateko hitzordua.

Elkartekoek laster jasoko dituzte urte osoko odol ateratzeen egutegiak, eta herriko puntu erabilienetan lagako dituzte,

herritarrek har ditzaten: anbulatorioan, Iratxon, Edurtzan, Bolian, loteria-saltokian, bi botiketean, udaletxean, kiroldegian...

Ia 50 poltsa gehiago

Gogotsu abiatuko du urtea Soraluzeko Odol Emaileen Elkartek, iaz lortutako –eta lehena go ere bai– datu positiboen bultzadarekin eta datu on horiei eusteko helburuarekin. Izan ere, Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartek Soraluzekoari ezarritako urteko erronka gainditu egin dute.

Hain zuzen, batez beste, Soraluzen ateratze bakoitzean 30 poltsa lortzea jotzen du baleko odol bankuak, urtean 180 inguru poltsa eta, 2025ean Soraluzeko elkarteak 229 odol poltsa entregatu zituzten; ia 50 odol poltsa gehiago.

Horrez aparte, 2025ean hamaiaka odol emaile berri izan ziren eta 2024an, berriz, 25 berri, eta emaile berrien datu horri berebiziko garrantzia ematen dio elkarteak, emaile berriengan baitago odol ateratzeen ondorengotza. Hori bai, 2026rako 200 odol poltsa lortzeko erronka jarri du orain Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartek.

Laguntza handitu beharra

Bestalde, eskaera batekin abiatuko du 2026. urtea elkarteak: jasotzen duen dirulaguntza handitzea.

Udal Liburutegiak gora egin du liburu maileguetan eta urtero erabiltzaile berriak ditu

2025eko datuen arabera, 4.723 mailegu egin ditu Soraluzeko liburutegiak –2022an, esaterako, 3.110 mailegu egin ziren– eta urtebeteen 73 erabiltzaile berri lortu ditu



Uxue Agirre liburuzaina, liburutegian, umeentzako txokoan. U.M.Z.

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Geroago eta gehiago erabiltzen da Soraluzeko Udal Liburutegia. Hala erakusten dute argitaratu berri dituzten 2025eko datuek. Laburpen orokorra da gora egin dutela liburu maileguek, gora egin duela antolatutako ekintza kopuruak, gora erabiltzaile berriak eta gora egin dutela, baita ere, eskaintzen dituen zerbitzuak (Datu nabarmenenak, taulan).

Maileguek, nabarmen gora

Uxue Agirre Madariaga (Bergara, 1993) da liburuzaina. Hirugarren ikasturtea du Soraluzeko liburutegian lanean, eta ontzat eman ditu datuak.

Esaterako, maileguak dira liburutegi baten erabileraren neurgailuetako bat. 2025ean Soraluzekoak 4.723 mailegu egin zituen, 2022an baino 1.613 gehiago. "Hemen nagoenetik goranzko joera ikusi dut. Iaztik hona 500 bat mailegu gutxiago izan dira, baina 2022koekin alderatuta asko handitu da kopurua", esplikatu du Agirrek.

73 erabiltzaile berri

Aipagarria da, era berean, 2025ean 73 erabiltzaile berri apuntatu direla Udal Liburutegira. Agirrek esandakoaren arabera, emaitza hori, batik bat, Plaentzia Eskolarekin egiten den elkarlanaren ondorioa da, hainbat ekimen lantzen baitituzte batera. Horien artean, Motxila Ibiltariak eragin handia du; izan ere, astero, txandaka,

4-5 urteko gelakoak eta LH1ekoak liburutegira joaten dira gurasoekin, eta liburutegirako txartela egiten dute. "Hor erabiltzaile berrien bolumen handia dago", azaldu du liburuzainak.

Umeei eta gaztetxoei zuzendutako bestelako ekintzen artean, hilean behin 3-4 urtekoak liburutegira joaten dira eskolatik, liburutegiak umeentzako Irakurketa Erronka antolatzen du, Sormen Lehiaketa ere bai, eta baita ipuin kontaketa ere, besteak beste. Liburutegian bertan umeentzako txokoa atondu dute.

Oro har, halakoen bitartez "umeek liburutegiarekiko duten harremana sendotzen lagundu izana" espero du liburuzainak, eta etorkizuneko balizko erabiltzaileei leihoa zabaltzen die, batik bat, ikusita 15-30 urte bitarteko gazteen artean ia erabateko hutsunea dagoela liburutegiaren erabileran.

Ordenagailua, ikasi, lanak...

Osterantzean, erabiltzaile kopuru orokorrari begiratuta, datuen arabera, 545 erabiltzaile aktibo ditu liburutegiak. Mailegu zerbitzua erabiltzen dutenak dira erabiltzaile aktiboak, eta, Uxue Agirre liburuzainak kopuru hori "ondo" dagoela uste duen arren, gogorarazi du horiek baino gehiago direla Soraluzeko Udal Liburutegia erabiltzen dutenak, liburutegiaren bestelako zerbitzuak erabiltzen dituztenak ere badirelako: egunkariak irakurtzera doazenak,

liburuak bertan irakurtzera, lanak egitera, ikastera, ordenagailua erabiltzera...

Azken batean, sarrera libre du Udal Liburutegiak, edozein joan daiteke; erabiltzaile izateko nahikoa da eskaera-orria betetzea, eta momentuan bertan entregatzen dute liburutegiko txartela. "Gainera, ez dago zertan Soraluzeko liburutegiko bazkide izan berau erabiltzeko; hau da, EAEko edozein liburutegi publikotako txartelak balio du hemengo liburutegian. Sarean gaude". Aldi berean, sarean ego-

Erabiltzaile berriak lortzen dira, batik bat, liburutegiak eskolarekin egiten duen lanketari esker

Txoko berezituak liburutegian

Liburutegiak, baina, badiu gai konkretuekin lotutako txokoak: Guraso Txokoa, Irakurketa Errazaren Txokoa eta Herriko Bildumaren Txokoa.

Gurasoen txokoari dagokionez, umeen heziketarekin lotutako liburuak ditu eta umeen gunean dago.

Irakurketa Errazaren Txokoak badu "bere publikoa", liburuzainak dioenez: hizkuntza ikasten ari direnak, zailtasunak dituztenak, Irakurketa Errazeko taldea...

Azkenik, Herriko Bilduma 50 bat aiez osatuta dago eta bertan daude Soraluzeri buruzko liburuak, soraluzetarrek idatzitakoak eta Soraluze aipatzen dutenak.

te horrek ere liburu aukera nabarmen handitzen du: "Soraluzeko liburutegiak 12.000 dokumentu inguruko bilduma dauka, baina erabiltzaileentzat askoz ere handiagoa da bilduma, sare osoko liburuak eska ditza-kegulako liburu arteko maileguaren bidez", esplikatu du Uxue Agirrek.

2026a, beritasunekin

2026ari dagokionez, berriz, iazko ekintzei eustez aparte, beritasunak ere izango dituzte. Esaterako, Gaztelarazko Irakurle Taldea estreinatuko dute urtarrilaren 21ean. Beste beritasun bat izango da Munduko Ipuinen Ziklo herritarrean hiru saio izango direla eta ez bakarra, iaz moduan, eta, hartara, "kanpoko ipuin kontalari profesionalak ekarri ordez, herritarrei lekua" egingo zaie. "Eta,

osterantzean, asmoa da ikasturtea bukatu bitartean bi ipuin kontaketa eta helduentzako beste ekintzaren bat antolatzea eta orain arte funtzionatzen duten ekimenekin segitzea: Panpinen Pijama Festa, Liburutegia Kalera eta abar".

2025a: datuak

4.723 mailegu

Gehienak nobelak, eta gehien intrigazkoak, historikoak, erromantikoak eta komikiak.

545 erabiltzaile aktibo

Batik bat, emakumeak eta erretiratuak. Hutsune handia dago 15-30 urtera bitartekoaren artean.

452 erosketa

Batez beste, hilerio, 40 liburu berri.

28 ekintza

Euskarazko Irakurle Taldea, Irakurketa Erronka, Motxila Ibiltaria, Sormen Lehiaketa, Poropopoesia, Ikikomikiliklik, ipuin kontaketa, liburu aurkezpenak, Panpinen Pijama Festa, Liburutegia Kalera, e-liburutegiaren tailerra...

Rafael Bravo nagusitu da Pasaia Hiria lehiaketan eta Iparragirre Sarietan

Izaro Aulestiarte

Bi poesia-sari irabazi ditu Rafael Bravo Arrizabalagak (Arroa-Zesto, 1950) oso denbora gutxian. Beste bi aitortza gehitu dizkio, hortaz, haren literatur sarien zerrendari.

Batetik, Pasaia Udalak antolatutako Xabier Portugal-Pasaia Hiria eta Pasaia Hiria-Alta-mira Puente Olerki lehiaketaren 23. ekitaldian lehen saria eman diote, gaztelaniazko kategorian, *Teoría del epílogo* lanagatik; abenduaren 18an egin zuten sari banaketa ekitaldia, Trintxerpeko Udal Liburutegian.

Bestetik, Iparragirre literatur sarietako bat ere lortu du. *Mañana es todavía* lanarekin nabarmendu da Urretxuko eta Zumarragako udalek antolatutako lehiaketan, Poesia Erdaraz atalean. Elena Romanek, Jesus Maria Cormanek eta Felix Marañak osatutako epaimahaiak aukeratu du haren lana sariketara aurkeztu.

tutako lanen artean. Lehiaketaren irabazleak abenduaren 31n iragarri zituzten, baina, gaur-gaurkoz, ez dute zehaztu noiz banatuko dituzten sariak.

Lan sarituak, argitara

Bravok 1.200 euroko diru saria irabazi du Pasaia Hiria-Alta-

mira Puente lehiaketan eta 650 eurokoa Iparragirre Sarietan. Horrez gain, bi deialdietan saritutako lanak liburu formatuan argitaratu ohi dituzte; jada kalean da *Teoría del epílogo* poema sorta-Birmingham argitaletxea-, eta laster ikusiko du argia *Mañana es todavía* liburuak.



Rafael Bravo, Kultur Elkarteko liburutegian. N.B.A.

NIRE USTEZ

Zutabeak



MAITANE
ETXANIZ

Gerri bueltan pegatuta geratu diren turroiengatik izango ez balitz, denbora asko pasa dela esango nuke Eguberriko ospakizunetatik. Errutinaren morroi garenok martxan jarri ditugu jada iratzargailua, lana eta ordutegiak.

Gabon jaiak, ordea, une gazi-gozaak izan dira gutako askorentzat. Etxean data hauek ilusioz itxaroten dituzten txikiak ditugu, eta, aldi berean, duela gutxi joan diren gurasoen hutsunea; zulo beltz handi bat.

Ihes egiteko gogoia izan dut, hutsunea leunagoa sentitzen den toki eguzkitsu batera joan eta egun hauek ahaztu. Baina hori egin beharrean, inoiz izan dudana zuhaitzik handiena erosi eta etxea argiz apaindu dut. Goiz batzuetan Gabon-kantak

ere entzun ditut; masokista izango naiz, agian.

Beti gure zutabe izan diren pertsonak galdu dituztenei, edo galtzen ari diren lagunei, eskaintzen dizkiet hitz hauek. Guri tokatzen zaigu orain janari goxoak egin, mantelak prestatu, kopak eta platerak atera, eta gure etxera datozenen zain egotea. Guri tokatzen zaigu opariak erosi eta baserritar jantziak plantatzea. Nahi gabe, gu bihurtu gara beste batzuen zutabe.



Kooperazio Taldeak antolatutako denda saltzen aritu diren zenbait boluntario. N.B.A.

Harrera ona izan du Kooperazio Taldearen elkartasun dendak

Aurten ohiko salmenta kopurua gaintu egin dutela azpimarratu dute; etekina bi egitasmo babesteko izango da

Nerea Bedialauneta Alkorta

Azken urteotan ohikoa den moduan, Kooperazio Taldeko kideek elkartasun denda zabaldu dute Eguberrietan, eta, azaldu dutenez, ekimenak harrera oso ona izan du aurten ere. Taldeko boluntarioek ontzat jo dute, eta, nabarmendu dutenez, ohikoa baino "zertxobait gehiago" saldu dute.

Pozik daude arduradunak, eta denetarik saldu dela esan dute. "Batik bat, artisautza- eta elikagai-produktuak saldu dira. Kotoizko eta banbuzko galtzerdiak izan dira gure produktu izarra", adierazi dute.

Beste urte batez, esker oneko azaldu dira egunez egun lanean aritu diren boluntarioekin eta dendara zerbait erostera berrataratu diren herritarrekin. Bide batez, denda bezala erabili duten lokalaren jabeen eta Osto-

laza kalean biltegi bezala erabili duten espazioaren jabeen eskuzabaltasuna ere eskertu dute.

Jana eta eskola materiala

Jakinarazi dutenez, salmentekin lortutako dirua tokian tokiko erakundeekin batera egiten ari diren bi egitasmo laguntzeko erabiliko dute. Irabazien zati bat Ukrainara bidaliko dute, Txernobylgo zentral nuklearrak kaltetutako Orane herriko premiei erantzuteko. "Dirua hango ikasleen janaria finantzatzeko erabiliko da", zehaztu dute.

Gainontzeko irabaziaz Maliko Togo eskualdeko Saint Paul eskolara bideratuko dituzte. "375 ikasle ditu eskolak, eta, diru horri esker, 2025-2026ko ikasturteko janaria eta eskola materiala finantzatzeko zaizkie", erantsi dute.



Sukalde eta etxe altzarien erakusketa izugarria 3000m²
Itziariko gaina
Tel.: 943 19 91 00
Fax.: 943 19 91 91
ITZIAR-DEBA
endaneta@mueblesendaneta.com
www.mueblesendaneta.com

Zumardi
pentsioa
Tel.: 943 19 23 68
info@pensionzumardi.com
pensionzumardi.com



GENOVEVA
Arraindegia
Ostolaza kalea 25
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 818

ASKETA
ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA
© 943 19 19 52 asketa.net

ALBIZU
HARATEGIA
Lersundi kalea, 27
943 19 14 47
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Jon Montiel judokak lehenengo saiakeran eskuratu du hirugarren Dan maila

Debako Ekiberri klubeko arduraduna urtebetez aritu da azterketa prestatzen

Nerea Bedialauneta Alkorta DEBA

Hirugarren Dan maila eskuratzeko azterketa buru-belarri prestatzen aritu ondoren, gerriko beltzaren titulu berria bereganatzea lortu du Deban bizi den Jon Montiel judokak. Ekiberri Judo klubeko arduradunak eta irakasleak abenduaren 20an egin zuen Euskadiko Judo eta Kirol Elkartuen Federazioak antolatutako Dan Gradu azterketa; urtebetez prestatzen aritu ondoren, lehenengo saiakeran gainditu zuen proba.

Azterketa Donostiako arte martzialen zentroan izan zen, eta bertan eskakizun tekniko handiko probak gainditu behar izan zituen federazioko epaimahaiaren aurrean; ondo defendatu zuen aurrez ezarritako programa, eta maila ona erakutsi: "Ondo prestatuta joan nintzen; ez nuen arazorik izan".



Montiel, gerriko beltz berriarekin. J.M.

Azterketan Hegoi Esteban Eibarko Kalamua Judo Klubeko entrenatzailea izan zuen alboan, eta azaldu du tribunalaren aurrean egin behar izan zituen lurreko, zutikako eta katako ariketetan hura izan zuela la-

guntzaile. "Alde teorikoan oinarriak azaltzeko eskatu zidaten. Praktikoan, berriz, lur gaineko eta zutikako mugimendu bereziak garatzeko eta horien konbinazioak lantzeko eskatzen dizute. Zutik, esate baterako, *osoto gari* bat egin nuen".

Hurrengo maila

Titulu berria eskuetan, judokak iragarri du hurrengo helburua laugarren maila prestatzen hastea dela. "Judoan jarraitzen badut, hori izango da helburua. Gutxienez, 2028ra arte itxaron behar dut hurrengo azterketa egiteko aukera izateko".

Bien bitartean, azterketa prestatzen hasiko da. "Hegoi Estebanek maila bereko azterketa egingo du laster. Askotariko ariketak egin behar ditugu; nik uste dut lagungarri izango dudala lan hori guztiori".

Abian dira irakurle taldeak Itziarren, Alaine Agirreren gidaritzapean

I.A. ITZIAR

Urtea hastearekin batera jarri dituzte martxan irakurketa taldeak, Itziar Auzo Udalaren ekimenez. "Irakurketak duen garrantziaz jabetuta, eta are gehiago pantailei itsatsita bizi garen gizarte honetan, literaturari bere espazioa eman nahi izan diogu, adin guztiak aintzat hartuz", nabarmendu dute.

Horiek horrela, bi talde osatu dituzte: haurrei eta gaztetxoei zuzendutakoa bata -7-12 urte bitartekoentzat- eta helduena bestea -16 urtetik gorakoentzat-. Hilean behin egingo dituzte saioak, ekainera bitartean, Burugorri eraikineko bigarren solairuan; irakurle gazteak 17:30etik 18:30era arte ariko dira eta helduak, berriz, 19:00etatik 20:30era. Asteartean egin zuten lehen hitzordua eta otsailaren 13rako iragarri dute hurrengoak.

Alaine Agirre idazlea (Bermeo, 1990) dinamizatuko du egitasmoa. Ibilbide oparoa egina du dagoeneko literaturan; libu-

ru ugari idatzi ditu eta hainbat sari irabazi ditu azken urteotan.

Izen-ematea

Saioak doakoak dira, baina ize-na aurrez ematea komeni da. Parte hartu nahi dutenek harriera-bulegora jo beharko dute, 943 19 92 55 telefono-zenbakira deituz edo apuntatu@itziar.eus helbidera mezu bat bidaliz.



Alaine Agirre idazlea. GOIENA

Hamabi emakume ari dira parte hartzen gomazko pala txapelketan

N.B.A. DEBA

Iruleak Emakume Pilotariak Kirol Klubak gomazko pilotarekin estreinakoz antolatu duen pala txapelketa abian da. Urtarrilaren 8an hasi zen eta, jakinarazi dutenez, sei bikote ari dira bertan parte hartzen.

Txapelketa Aldats pilotalekuan ari da lehiatzen. Ostegun arratsaldeetan -19:00etan hasita- eta

igande goizetan -11:00etan hasita- jokatzeko dituzte norgehiagokak, eta lehiaketa, oro har, motza izango da. Aurreikusita-koaren arabera, urtarrilaren 24an izango dira finalak.

Lehiaketa ahalik eta parekatuena izateko, antolakuntzak osatu ditu bikoteak. "Federatu bat hasiberri batekin jartzen ahailegindu gara", azaldu dute.

Lehia alde batera utzita, "lagunarteko partidak" izango direla azpimarratu dute.

Ikastaroa

Otsailean hasi eta ekainera arte iraungo duen pala ikastaro bat ere antolatu du kirol klubak. Otsailaren 5ean abiatuko da 12 urtetik gorako emakumei zuzenduta dagoen jarduera.

Interesa dutenek 678 36 10 93 zenbakira deitu edo mezu bat bidalita eman dezakete izena; hilaren 31 da horretarako azken eguna.

Zabalik dago Lasturko IX. Mendi Martxan izena emateko epea

N.B.A. ITZIAR

Martxoaren 15ean jokatu da Izarraitz Bizirik elkartearen eta Itziar Auzo Udalaren ekimenez antolatutako mendi martxa, eta dagoeneko zabalik dago izen-ematea. Proba San Nikolas plazatik abiatuko da, 07:30ean, eta, aurreko edizioetan bezala, bi ibilbide izango ditu aukeran: 27,37 kilometrokoa bata -1.327

metroko desnibelarekin- eta 20,23 kilometrokoa bestea -1.009 metroko desnibelarekin-.

Interesa duten mendizaleek www.kirolprobak.com atarian eman dezakete izena. 22 euro ordaindu beharko dira ibilbide luzea zein motza egiteko, eta gehienez 500 lagunek parte hartu ahal izango dute martxan. Ezarritako muga gainditzen ez bada, martxoaren 1ean amaituko da aurrez izena emateko epea. Lekurik balego, 25 euroren truke egunean bertan ere izango da proban inskribatzeko aukera.

ITURLAN, S.L.
Iturgintza - Berogailuak
Mogel kalea, 1 - beheka | DEBA
635 717 732 / 943 192 553
fontaneriaiturlan@iturlan.com

ITUR
Itur kalea 2, beheka | 943 192 631 | DEBA

DEBA
Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik
Nafarroa Plaza - 943 19 25 76

SAGARMIÑA
Hondartza kalea 3-4, DEBA
943 192 249
sagarmina.com

HORTZ KLINIKA
Gipuzkoa Kalea 20, Zarautz
943 830 424 - 653 921 712

sasoiko
[EKODENDA]
[BELARDENDA]
[FISIOTERAPIA]
INDIBA, DRENAJE LINFATIKOA, KIROL LESIOAK
943 19 24 42
sasoiko@hotmail.com



Mugertza kroseko antolatzaileak eta babesleak, aurkezpenean. BARRENA

Yavi eta Aregawi izango dira Mugertza kroseko izar nagusiak

Mugertza krosaren 82. ekitaldia jokatu dute etzi, igandea; Mintxeta taldeak antolatu duen 24.a, hain zuzen ere

Asier Orbea Ostolaza ELGOIBAR

Urtero moduan, mundu mailako atleta onenek, popularrek eta gaztetxoek bat egingo dute Mintxetako zirkuituan. 900 bat atleta arituko dira lehian adin tarte askotariko hamabi lasterketetan, 09:30ean hasita –senior mailako emakumezkoen lasterketa 12:35ean hasiko da eta gizonezkoena, 13:15ean–. Parte hartzaileen artean izenik handienekoak aurkeztu zituzten antolatzaileek asteazkenean egin zuten agerraldian. Berihu Aregawi (Etiopia,

2001) nabarmendu behar da guztien gainetik. Hark irabazi zituen Mugertza krosaren azken bi edizioak, 2024koa eta 2025ekoa, eta hirugarrenaren bila itzuliko da aurten. "Historia egin nahian dator, hirugarrenaren bila", esan du probako zuzendari Zigor Diezek, gutxi baitira Mugertza krosa hiru bider jarraian irabazita-koak. Aregawi azken urteetako kros lasterkari onenetakoa da, Jakob Kiplimo bakarrik du gainerik. Kiplimo da modalitateko jaun eta jabe, 2018ko Mugertza

kros ahaztezinean txapeldunorde izan zen ugandarra. Joan den zapatuan ere hark irabazi zuen Munduko Kros Txapelketa, Floridan, jarraian irabazten duen hirugarren munduko txapelketa; aurretik, John Ngugi, Paul Tergat eta Kenenisa Bekele bakarrik lortu zuten balentria. Eta horietan guztietan Berehawi izan da txapeldunordea. 25 urteko etio-piarra Parisko Joko Olinpiarretan ere txapeldunorde geratu zen 10.000 metroko lasterketan, Joshua Cheptegei ugandarraren atzetik.

Aregawi Thierry Ndikumwenayo espainiarra izango du aurkari nagusietakoa Elgoibarren. Europako kros txapelduna da eta zortzigarren postuan sailkatu berri da Munduko Txapelketan. Aregawiri gauzak zail jarriko dizkiola uste du Diezek: "Hura baino azkarrago saltaka egiteko gai badela erakutsi zuen iaz, Sevillan".

Yavi txapeldun olinpikoa

Emakumezkoetan, Winfred Yavik (Bahrain, 1999) kudeatu beharko du faborito izatearen zama, hark baitu palmares loriatuena. Txapeldun olinpikoak bertatik bertara ikusteko aukera ematen du urtero Mugertza krosak, eta aurtengoa Yavi izango da. Parisen irabazi zuen urrezko domina, 3.000 metroko oztopotun lasterketan. Proba horretako munduko txapelduna izana ere bada, 2023an. Urte hartan hirugarren postuan sailkatu zen Elgoibarren. Aurten sasoiaren ailegatuko da, Italiako krosa irabazi berri baitu. Marwa Bouzayani (Tunisia, 1997) eta Sheila Jebet (Kenya, 2005) izango dira jarraitu beharreko beste bi atleta. Bouzayaniren atzetik denbora zerratela aitortu du Diezek, nazioarteko lasterketetan aurpegia ematen duen atleta dela eta. Jebetez, berriaz, etorkizun handiko atleta dela azpimarratu du, eta gaztea izan arren txapeldunorde izan dela kros entzutetsuetan: Atapuercan, Cardiffen eta Sorian.

Zailtasunak kontratazioetan

Antolatzaileek aitortu dutenez, ikuskizunerako osagaiak diren eliteko atletak lortzeko zailtasun handiak eduki dituzte. "Lasterkari oso onak ekartzea lortu

dugun arren, beste urte batzuetan baino nekezagoa izan da. Munduko Txapelketa aurreko zapatuan jokatu izanak zaildu egin digu kontratazioak egiteko aukera, eta probaren data atzeratzearen arrazoia ere horixe izan zen". Mugertza krosak World Athletics Federazioak kros onei ematen dien World Cross-Country Gold kategoria izango du aurten ere. Antolatzaileek 125.000 euroko aurrekontua osatu dute, eta hortik %70 inguru atletak kontratatzeke erabili dute. Zuzendaritza talde berria hasi zen lanean duela bi urte, eta bakarrik aritu diren estrenakoa izan da honako hau. Azaldu dutenez, antolatzeke modua findu egin dute eta egiteko modu berriak probatzen ari dira. "Lan batzuk banatu egin ditugu, hobeto kudeatzeko. Hainbat lan sistematizatzea eta inprobisaziora gutxiago jotzea da gure nahia, gauzak errazteko. Boluntarioen sarea izen eta abizenekin osatu dugu, eta 120 bat lagun dauzkagu zeregin askotarako: txofer lanetarako, sarrerak saltzeko, zirkuituaren muntaketa lanetarako, aparkalekuez arduratzeko eta abar". Era berean, komunikazioan ere eman dituzte pausoak, bai barne komunikazioan eta baita kanpora begirakoan ere. Sare sozialak indartu egin dituzte, esaterako. Irudia berriro egin dute, eta zirkuituan dauden seinalezapenek itxura berria izango dute.

Txapeldun olinpikoak ikusteko aukera ematen du urtero Mugertza krosak

Upairen izena eramango du gazteentzako trofeoak

Mugertza kroseko junior kategoriako irabazleei Mamo Wolderen izena daraman garaikurra ematen diete, eta, aurrerantzean, 18 urtez azpiko kategoriako irabazleek ere jasoko dute sari berezi bat: Inazio Izagirre Etxaniz *Upai* garaikurra, hain justu ere. 1920an Belgikako Anberes hirian jokatu zituzten Olinpiar Jokoetan bi elgoibartarrek hartu zuten parte, Juan Mugertzak eta

Inazio Izagirrek. Orain, bien izenak egongo dira lotuta Elgoibarko krosari.

'Upai kanpeoia'

Espainiako delegazio batek Olinpiar Jokoetan parte hartu zuen aurreneko aldia izan zen Anbereskoa, eta Upai izan zen Olinpiadetan lehiatu zen Espainiako aurreneko atleta. Pisu eta xabalina jaurtiketetan lehiatu ziren garaiko elgoibartarrek *Upai*

kanpeoia izenez ezagutzen zuten kirolari aparta. Xabalinan 38,92 metroko jaurtiketa egin zuen eta pisuan 11,235 metroko jaurtiketa. Finlandiako jaurtitzailak gailendu ziren, jaurtiketa-teknika aurreratuagoei esker. Upai 1896ko irailaren 26an jaio zen, Sallobente-Ermuaran auzoko Upai baserrian. Hamaika anai-arreba ziren, eta indartsuak izateagatik ziren ezagunak.

Juan Mugertza eta Inazio Izagirre *Upai*.



Libe Alvarez eta Mara Zubizarreta, gazte mailakoak, Madrilen kontrako garaipena ospatzen. CESA

ESKUBALOIA

Euskadirekin lortutako dominak kolkoan bueltatu dira eskubaloilari debabarrendarrak

Zilarra lortu dute gazte mailako neskek, kopako urrea mutilek eta brontzea kadeteek

Ander Gomez DEBABARRENA
Estatuko selekzioen arteko CESA txapelketan lehiatzen hasi ohi dute urtea Eibar Eskubaloia, Elgoibarko Sanlo eta Ermuko Errotabarri taldeetatik ateratako jokalariek. Aurtengo edizioa urtarilaren 3tik 8ra bitartean jokatu zen, Katalunian, eta Errotabarriko eta Eibarko hamaika lagun aukeratu zituzten euskal selekzioa ordezkatzeko. Infantil mailatik gazteetara, nesken zein mutilen kategorian, emaitza nabarmenak lortu zituzten guztiek.

Kadete mailan, Errotabarriko Jone Aja eta Paule Magunazelaia lehiatu ziren. Taldeko entrenatzaileak eta staff teknikoko kide izan ziren Eibarko Iruñe de Castro eta Errotabarriko Ariane Galloso eta Maren Unanue. Hasierako fasean sailkatzea lortu zuten, eta final-laurdenetara ailegatu ere, non andaluziarren kontra galdu egin zuten –Euskadi 31-37 Andaluzia–. Hala ere, 5. eta 8. postuen arteko lehiari sartu eta ederki eutsi zioten bosgarren postuari, galiziarren aurkako partida estu batean

gailenduz lehenengo –Galizia 30-32 Euskadi– eta madrildarren kontra aiseago irabaziz gero –Madril 31-39 Euskadi–.

Gazteen kategorian –txapelketako nagusiena–, Libe Alvarez ermuarra eta Mara Zubizarreta eibartarra aritu ziren. Kategoría guztietan geldiezin egon zen Kataluniari irabazita ailegatu ziren finalera –Katalunia 17-25 Euskadi–, baina azken hitzorduan 32-29ko alde eskasarekin gailendu ziren Valentziako Erkidegoko neskak. Euskaldunek lau urte segidan



Aja, Magunazelaia, Galloso, Unanue eta Alvarez, txapelketa jokatu aurretik. ERROTABARRI



Kadeteak, ospatzen; infantilak, atzean. EIBAR



Ibon Barrena, gazteen koparekin. I.B.

daramatzate zilarrezko domina irabazten, eta pozik ospatu zuten, erritmoa jaitsi barik eta euskal selekzioaren txapelketako emaitzarik onena lortzen jarraitzen dutelako.

Kopan nabarmendu dira mutilak
Hasierako fasean sailkatu ez ziren taldeek CESA Kopa jokatu zuten, eta hor nabarmendu ziren Eibar Eskubaloiko mutilak. Gari Lopez eta Gorka Atxa kadeteak finalaurrekoetara ailegatu ziren, eta, bertan nafarren kontra galdu zuten arren –Na-

farroa 39-37 Euskadi–, 3. eta 4. postuen lehiari brontzezko domina lortu zuten, alde handiarekin irabazita –Asturias 23-40 Euskadi–. Ibon Montañes ere finalaurrekoetara ailegatu zen infantilekin, baina hirugarren sailkatzeko lehiari murtziarren kontra galdu egin zuten, gol eskas bateko aldearekin –Euskadi 45-46 Murtzia–. Gazteen kasuan, Ibon Barrena izan zen euskal selekzioeko staffeko kide, eta kopa irabaztea lortu zuten haiek, 27-21 gailenduta Kantabriako selekzioaren kontra.

ZIKLO-KROSA

Arrakasta Euskadiko txapelketan, esperientzia Espainiakoan

Ander Gomez DEBABARRENA
Eskualdeko txirrindulariek denboraldiko hitzordu nagusienera bi izan dituzte azken asteetan: Euskadiko Ziklo-kros Txapelketa, Seguran jokaturakoa, eta asteburuan Taranconen (Cuencan) egin den Espainiako Txapelketa.

Segurako txapelketarekin agurtu zuten urtea, eta emaitza bi-

kainak lortu zituzten. Elite mailan, Aitor Hernandez ermuarra bigarren sailkatu zen, eta, euskaldun azkarrena izanda, Euskadiko maillota jantzi zuen, haren ibilbideko zazpigarrena. Kadeteetan, aitaren emaitza berbera lortu zuen Telmo Hernandezek, eta Enaitz Iraolagoitia mendaroarra izan zuen lagun Euskadiko podiumean, txapel-

dunorde. Koska batera geratu zen Danel Garaizabal elgoibartarra, laugarren. Horrela, Espainiako Txapelketa jokatzeko hasi dute 2026a.

Zapatuan izan zen kadeteen lasterketa, eta estatuko txirrindulari onenekin neurtu zituzten indarrak, guztira 100 baino gehiago. Sailkapenean erditik gora bukatu zuten Hernandezek (42) eta Garaizabalek (54). Iraolagoitia gaixorik heldu zen hitzordura, baina parte hartu eta lasterketa bukatzea lortu zuen (93). Lasterketa aberasgarria



Hernandez eta Iraolagoitia, Euskadiko podiumean, lehenengo eta bigarren. ETXE

izan da gazteentzat, ikasteko aukera paregabea, eta "oso pozik" bukatu dute esperientziarekin. Domekan, elite mailako lasterketarekin amaitu zen txapelketa, eta bertan izan zen Aitor Hernandez. Hemeretzigarren gurutzatu zuen helmuga lehen itzulian, baina bueltaz buelta aurkariak aurreratu eta hamaigigarren sailkatzea lortu zuen, zortzigarren urtez jarraian Espainiako txapeldun izan den Felipe Orts valentziarraren markatik (57.45) 4 minutu eta 44 segundora.

ARTISAUTZA

"Ametsa bete dut Tolosako Topic txotxongilo zentroan leiho bat irekita Ukrainari"

YULIYA PROKOPENKO
ARTISAUA

Ukrainako Gabonetako jantzi, maskara eta panpinak jarri ditu ikusgai Topic zentroan, hilaren 22ra arte

Ainara Argoitia MENDARO

Medikuntza ikasi zuen Yuliya Prokopenkok sorterrian (Cherkasi, Ukraina, 1975), baina, bizitzako gorabeherengatik, ez du ikasketak homologatzeko aukerarik izan, eta Euskal Herrian, 2007az geroztik, ehorztetxe batean ari da lanean. Antropologia du zaletasun, eta horri erantzuten dio Tolosako Topic Nazioarteko Txotxongilo Zentroan erakusgai duen *Kolyada* erakusketak. Topicen, Ukrainako Gabonetako maskara eta txotxongiloak bildu ditu, eta urtarrilaren 22ra arte egongo da erakusketa bisitatzeko aukera, doan. Bihar, hilak 17, bisita gidatua egingo du, 17:00etan.

Zer esan nahi du *kolyada* hitzak?

Kolyada neguko erritu zahar bat da Ukrainan, kristautasuna baino aurrekoagoa eta argiak iluntasunari irabazi izana ospatzeko egiten dena. Izen hori eman diot erakusketari, neguko ospakizunen sinbolismoa batu dudalako. Ukrainan, kantu errondak egiten dituzte Gabonetan. Izar handi bat hartuta, etxez etxe ibiltzen dira kantuan, natura, emankortasuna eta tokian tokiko etxejabea goraipatuz. Urte osorako oparotasuna eta zoriontasuna ziurtatzeko egiten dute kantuan. Kristautasunarekin, baina, beste kutsu bat ere hartu zuen usadio horrek, eta, gaur egun, Jesusen jaiotza ere iragartzen dute kantariek. Kantu Kristauak abestu eta poema herrikoiak erreztatzen dituzte

etxe atarietan, Gabon gauean hasi eta urtarrilaren 6ra bitartean. Izan ere, Ukrainian Gabonek hiru bat aste hartzen dituzte, eta tartean lau jai handi ospatzen ditugu: Gabon gaua, Eguberri eguna, Malanka eta Epifania. 2023an, gerraren testuinguruan eta Errusiatik bereizteko, egutegi gregoriarra pasatu ginen, eta orain aldatuta daude egunak, baina lehen, Malanka urtarrilaren 13tik 14ra ospatzen genuen, eta gaur egun, urtarrilaren 31n. Epifania, berriz, urtarrilaren 19an ospatzen genuen lehen, eta, egun, urtarrilaren 6an, Europako gainerako herrialdeetan bezala.

Malankako pertsonaiak dira erakusgai jarri dituzunetako batzuk. Zer da Malanka?

Ukrainiako herri tradizioan, udaberriaren etorrera, gaztaroa eta emankortasuna irudikatzen ditu Malanka izeneko neska gazteak, eta erlijio kristauan, ondasun guztiei uko egin zion Melania izeneko santaren omeneko jaia da. Malankan, moztortuta ibiltzen dira gazteak etxez etxe. Badira pertsonaia nagusi batzuk; garrantzitsuenak: Malanka andrea *urte zaharra*—urtarrilaren 13an, juliotar egutegian; gaur, abenduaren 31n—eta Vasyi gizona *urte zahar berria*—urtarrilaren 14a lehen; Urteberri eguna gaur—. Andre-gizon edadetuak dira Malanka eta Vasyi, eta gizon eta neska gazte batek gorputzen dituzte, hurrenez hurren. Haiez gain, baditu-



Yuliya Prokopenko, hark sortutako moztortua jantzita. YULIYA PROKOPENKO

gu beste pertsonaia batzuk: ahuntza, kurriloa, hartza, deabrua, motxailak eta beste zenbait izaki koloretsu. Bakoitzak gauza bat sinbolizatzen du, baina denek dute egiteko bera: txarrak uxatzea eta zoriona eta poza erakartzea. Malankan, urte berriko kantuak kantatzen dituzte atarietan, bai eta eszena komikoak antzeztu ere.

Lehen ere sortu izan dituzu erakusketak, baina Topicen erakustea berezia izango da, ala?

Amets bat bete dut Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentroan leiho bat irekita Ukrainari. Begira, Maidana gertatu ondoren (2014-2015), erakunde bat sortu genuen hemen bizi garen ukrainarrok, kulturaren transmisiorako, eta ordutik amets bat izan dut buruan bueltaka: gure arropa tradizionalak eta

brodatze-lanak erakustea. Berez, hango bildumazale bat ekarri nahi nuen, baina konturatu nintzen elkartean ez geneukala behar beste baliabide horretarako, eta, hala, 2016an, nire bilduma izango zena osatzen hasi nintzen. Geroztik, jantzi tradizional ugari eskuratu eta josi ditut, gehienak Ukraina erdialdekoak, hangoa naizelako sortzez, eta horiek eraman ditut Topicera. Jantziez gain, baina, lagunek utzitako osagarri batzuk, nik neuk egin-dako Malankako maskarak eta Oksaha Tsyupa diseinatzaile ukrainarrak eskuz egindako hamazazpi panpina jarri ditut ikusgai. Vertep baterako pertsonaiak dira panpinak. Eduki espiritualak umore herrikoiarekin, musika tradizionalarekin eta pertsonaia koloretsuekin konbinatzen duen ikuskizun

antzeztua izaten da, normalean, Vertepa. Ukraina mendebaldeko tradizioa da, eta abenduaren 25ean antzeztzen da. Gaia beti bera da: Jesukristoren jaiotza, Errege Magoen gurtza eta ongiak gaizkiari irabaztea.

Noiz eta nola sortu zaizu hori guztia Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentroan erakusteko aukera?

Ukrainera ikasten ari den lagun bati esker izan da. Hura jarri zen Topicen presidente izan-dako Juanjo Herreroekin harremanetan proiektua aurkeztu ahal izateko. Azaldu nion Ukrainako kultura aberastasuna, eskuz egindako artisautza eta hango neguko ospakizunen sinbolismoa ezagutarazi nahi nuela, eta esan nion aurki nintzela maskarak egiten hastekoa. Sei maskara egiteko erronka jarri nion neure buruari; hiru bikote, dualtasuna delako ukrainar sinismen zaharraren ezaugarrietako bat. Batetik, aitona eta amona sortu nituen, Bucovina izeneko inguruan dituztenen trazakoak, herri tradizioak han baitu gurean indar handiena. Emakumeak erratz bat eramaten du han, txar guztiak uxatzeko. Sortu nituen, baita ere, aingerua eta heriotza, eta, bestetik, ahuntza eta deabrua. Ahuntzak emankortasuna sinbolizatzen du eta pertsonaia zaharrenetakoa da antzinako kultura gehienetan. Mendaron sanjoanetan atera ohi duzuen Akerbeltzen traza handia du, bai ezaugarri fisikoetan, bai irudikatzen duenean ere, eta gurean Gabonetan ateratzen dugu. Heriotza eta berpiztea antzeztzen dugu ahuntzarekin guk, ziklo berri bati ekiten diogula adierazteko.

Gure Inauterietako pertsonaien oso antzeko dira erakusgai jarri dituzun asko.

Bai, ba, eta, gainera, gauza bera sinbolizatzen dute: ziklo berri baten hasiera. Gure munduen arteko mugak lausoak dira. Makilarekin lurra jotzen duzue zuek, Santa Ageda bezperan, lurra esnatzeko, eta guk gauza bera egiten dugu Gabonetan kanpaeekin eta joareekin. Mendaroko Lizarrola baserriko Elezar Garatek lagatako 25 bat txilin eta joare badaude erakusketan ikusgai.



Eskaneatu QR kode hau erakusketako irudiak ikusteko.

Bihar, hilak 17, bisita gidatua egingo dute. 17:00etan izango da, gaztelaniaz

Topic zentroko Anbigu aretoan jarri dute erakusketa ikusgai, eta doan da hara sartzea

MUSIKA

Kike Turmix musikariari omenaldia egingo diote Deban urtarilaren 24an

Urriaren 17an hogeitaz bete ziren Enrique Vitoria 'Kike Turmix' (Bilbo, 1957-Madril, 2005) zendu zela, eta, urtemugaren harira, hura omentzeko egun osoko ekitaldi sorta prestatu du Kultur Elkarteak



Izaro Aulestiarte Lete DEBA

Kike Turmixi omenaldi berezia egingo diote datorren urtarilaren 24an, larunbatez, Deban. Hil eta hogeitaz pasatxora, haren ibilbide musikala eta pertsonala goraipatuko dute senide, lagun eta musikazaleek, festa giroan.

Sortzez bilbotarra izan arren, Debarekin lotura estua izan zuen txikitatik Enrique Vitoriak *–Kike Turmix ezizenez ezagunagoa–*. Debako danborradako zuzendari izandako Isidro Vitoria *Mami*-ren semea eta Txema Vitoriaren anaia izateagatik ezagutzen zuten askok inguruotan, baina 80ko eta 90eko hamarkadetan punk-rock musikari gisa egindako ibilbideak nazioarteko ospea eman zion.

Musikaren hainbat eremutan aritu zen: Kike Turmix y los Pasapures, N-634 eta The Pleasure Fuckers taldeetako abesla-

ria izan zen, adibidez, baita disko-jartzailea, Safety Pin Records zigilu diskografikoaren sortzailea eta kontzertu-bira antolatzailea ere.

2005eko urriaren 17an zendu zen Kike Turmix, Madrilén, 48 urte zituela; bertan bizi zen 80ko hamarkadaz geroztik. Ez ziren gutxi izan Espainiako komunikabideetan kultur munduko eragileek nahiz norbanakoek zabalduko albisteak eta dolu-min mezuak. Eta, ildo beretik, ez da oharkabea pasa haren heriotzaren 20. urtemuga ere. Ez, behintzat, Deban, testuinguru horretan antolatu baitute hilaren 24ko omenaldia. Kultur Elkarteak berriki aurkeztu du hilabeteotan ondutako egitaraua.

Hauze diote antolakuntza taldeko Iñaki Prietok eta Alex Turrillasek: "Hilabeteak daramatzagu omenaldi hau prestatzen,

eta ilusioz aurkeztu dugu elkar-lanaren emaitza. Rock-and-roll komunitatetik errespetuz prestatutako ekimena da, eta eskertuta gaude jasotako babesagatik".

Mahai-ingurua eta 'pintxadak'

Antolatzaileek urrian aurreratu zuten moduan, rock-and-rollik ez da faltako omenaldian. Baina, hortik harago, egun osorako ekitaldi sorta dakar egitarauak.

Mahai-inguruarekin hasiko dute eguna, 11:00etan, Kultur Elkartearen. Bertan, omenduaren ibilbide artistikoa eta pertsonala ekarriko dute gogora. Nestor Sierra *Coge el tren* podcastaren aurkezleak gidatuko du solasaldia eta bost gonbidatu izango ditu mahaiaren bueltan jarrita: Margarita Gaffaro, Kike Turmixen alarguna; Jon Iturbe, musikaria; Eduardo Ranedo, musika-kritikaria; Txema Vitoria,

Kike Turmixen anaia; eta Bergarako Jam aretoko eta Riff Produksioetako programatzailer-arduradun Mikel Berasategi.

Ondoren, 13:00etan, binilo *pintxada* hasiko dute, Three Chords Daddy eta Juxeren eskutik, Arena tabernan. Eta leku berean, baina arratsaldean –17:00etan–, beste binilo *pintxada* bat izango da, Le Rougarou-ren eta Brain Squeezer-en eskutik.

Bazkaria eta kontzertuak

Festa giroak ez du etenik izango eguerdian, 15:00etan herri bazkaria egingo baitute Ozio-Bide elkartearen. Txartelak 25 euroan eskura daitezke Interneten, labur.eus/turmixbazkaria estekan.

Iluntzean, berriz, kontzertuak izango dira Gaztetxean. 20:00etan hasita, zazpi talde ariko dira bertan: John Dealer and The Coconuts, Txakurrak, Eh Mertxe!,

Safety Pins, Bamms, The Hot Dogs eta Nuevo Catecismo Católico. Sarrera borondatearen truke izango da; lortutako dirua antolakuntza gastuei aurre egiteko baliatuko dute.

Musikariaren ibilbide artistikoa eta pertsonala goraipatuko dute, festa giroan

"Rock-and-roll komunitatetik errespetuz prestatutako ekimena da"

Bideo azpitoluduna eta kanta argitaragabeak, eskura

Oso gaztetan ekin zion Kike Turmixek bere musika ibilbideari, eta ospe handia izan zuen, besteak beste, Eskandinaviako rock musikariaren artean. Horren erakusgarri da Orange Productions ekoizpen-etxeak haren bizitzari buruzko dokumentala plazaratu izana 2005ean; Deban grabatutako irudiak agertzen dira bertan.

Bada, urtarilaren 24ko ekitaldien harira, ingelesez ekoiztutako ikus-entzunezko horri azpitoluak jarri dizkio, oraintsu, Kultur Elkarteak, bai euskaraz eta bai gaztelaniaz. labur.eus/kiketurmixdokumentala helbidean ikus daitezke bideoak.

Halaber, Selenitas diskoetxearekin elkarlanean, musikariaren hiru abesti

argitaragabe ere kaleratu dituzte, haren heriotzaren urtemuga borobilaren bueltan. 1987an Leonen grabatutako kanta horiek –bertsioak dira, 60ko hamarkadako rockaren estandarrak– Interneten izan dira entzungai lehenbizi, eta orain EP batean plazaratu dituzte, binilo formatuan. Salgai izango da omenaldi ekitaldian, 10 euroan.



Antolakuntza taldeko Iñaki Prieto eta Alex Turrillas. N.B.A.

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA

ESKAINTZAK

Ermua. Erizaintzako laguntzailea behar dugu berehala lanean hasteko, ordezkapen baterako. Astean 2 edo 3 arratsalde. Bidali Cva niklinika@gmail.com edo deitu 943 03 05 12 / 688 62 92 23

Ermua. Higienista/auxiliarra behar da haurdunaldiko baja baten ordezkapena egiteko Ermuko hortz klinika batean. Uztailetik abendura, lanaldi osorako. Bidali Cva hortzklinika.4@gmail.com

Adinekoak zaintzeko prest. Etxeko langile moduan, gauetan edo ospitaletan lan egiteko prest nago. Urteetako esperientzia. 642 85 28 54

Soraluze. Etxeko garbiketak egiteko pertsona bat behar da. %25eko kontratua, goizez. Interesa duenak 17:00-18:00 artean deitu dezake. 607 57 51 09

Elgoibar. Etxeko langile moduan lan egiteko pertsona bat behar dugu. Titulu soziosanitarioa izatea eskatzen dugu. 685 53 10 40

ESKAERAK

Ermua. DBH eta Lehen Hezkuntzako matematikak, euskara eta beste ikasgaietako klaseak ematen ditut arratsalde. C1 ingelesa eta euskara. 688 73 93 58

Elgoibar. Etxeko lanak egiteko eta adinekoak zaintzeko prest nago. Titulu soziosanitarioa daukat, eta zaharren egoitzan praktikak eginda. 602 11 22 57

Elgoibar. Adinekoak edo desgaitasunen bat duten pertsonak zaintzeko prest nago. 642 57 89 43

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan edo orduka. Gaez ere bai. 602 49 05 95

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzi handia dut. 643 097 599

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko langile moduan ere bai. 643 69 54 39

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko prest nengoke. Erizain titulua dut eta urteetako esperientzia. Ospitaletan zaintza lanak egiteko prest nago baita gauak pasatzeko ere. 643 09 76 48

Elgoibar. Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago. Garbiketa lanak ere egiten ditut eta mezularitza lanetarako ere prest nago. 651 16 41 76

ESKOLA PARTIKULARRAK

ESKAINTZAK

Astean zehar goizetan 09:00ak arte eta arratsalde, haurrak, adineko pertsonak zaintzeko edo etxeko garbiketak egiteko eskaintzen naiz. Neska arduratsua naiz eta hiru arlo horietan esperientzia dut. Horrez gain, erizain laguntzaile titulua naiz eta Haur Hezkuntzako graduako azken mailako ikaslea. Edozer gauzarekin ez izan zalantzarik nirekin harremanetan jartzeko. 664 29 58 71

Eskola partikularrak Elgoibarren. HHko ikaslea naiz eta euskarako C1 titulua daukat. LHko edozein mailako ikasleei euskara edo laguntza behar duten arloetan klaseak emateko prest nago, baita arratsaldeetan umeak zaintzeko ere. Haurrekin lan egitea gustuko dut eta ikaskuntzan

laguntzeko motibazioa dut. Kontakturako hona hemen nire zenbakia: Pello, 688 67 69 68 / 688 67 69 68

Ikaskuntza zailtasunen aurrean eskuhartzea Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako irakaslea naiz. Entzumenean eta mintzamenean espezializatua. Gainera, logopedia eta hizkuntza nahasmentuetan ere aditua naiz. Saio indibidualizatuak eskaintzen ditut Ikaskuntza zailtasun espezifikoak lantzeko behar bereziak dituzten haurrekin metodologia aktiboaren bitartez. Horrez gain, haurrek euskarrekin harreman baikorra sortzeko euskarazko saioak ere eskaintzen ditut eta azterketa ofizialak lantzen ditut (HABEko aztertzailea bainatuz). Edozein zalantza deitu eta galdetu lasai. Ane 684 14 95 54

ETXEBIZITZAK

EROSI

Soraluze. Baserrria erosi nuke Soraluzen edota inguruan. Onintza. 630 72 17 58

Ermua. Baserrria erosi nuke Ermuan edo inguruan

ANIMALIAK

OPARI

Txakurkumeak opari. Ama border collie duten zakurkume emeak opari. 690 15 46 44

DENETARIK

SALDU

Haurren sehaskarako lastaira eta izara jokoa 12 eurotan. 120 x 60 cm estreinatzeko. 696 40 30 96

Haurren lotarako zakua 15 eurotan. 120 x 60 cm hiru aldiz erabilia. 696 40 30 96

Mendiko Salomon botak 60 eurotan salgai. Talla 43-44. Behin bakarrik erabilia. Solomon Ex Alp Mid Ltr Gtx Poseidon modelo, Goretex eta Ortholite plantillarekin 696 40 30 96

BESTELAKOAK

Soraluze-Andoain-Soraluze, kotxea konpartitzeko. Irailetik ekainera bitartean astelehenetik ostiralera Soraluze-Andoain, Andoain-Soraluze bidaia egiten duen herriartar bat naiz: 08:30ean Andoainera heldu, eta 15:00etan Andoaindik itzuli. Kotxez noa eta bidaia elkarrekin egiteko lagun bila nabil. Kotxea partekatu dezakegula uste baduzu, idatzi edo deitu konpromisorik gabe! 646 71 18 46

ZORION AGURRAK



ELGOIBAR Sare
Zorionak, Sare! Abenduaren 24an, 3 urte! Primeran ospatu genuen! Muxu handi bat etxeko guztion partez! Asko maite zaitugu!



Elgoibar Lea
Zorionak, Lea! Handitzen handitzen... 7 urte bete dituzu dagoeneko! Maite zaitugu, artista!



ELGOIBAR Lucia
Primeran ospatu genuen zure 11. urtebetetzea. Izugarri maite zaitugu. Muxu handi bat, etxekoan partez.



ELGOIBAR Intza
8 urte handi! Segi horrela, alai-alai! Ilargiraino eta buelta maite zaitugu! Patxo pila bat familiakoan partez.



ELGOIBAR Beñat
Zorionak! Oso ondo pasa zure urtebetetze eguna! Muxu handi bat etxeko guztion partez.



ELGOIBAR Elaia
Zorionak gure etxeko txapeldunari! Bihar 3 urte handi! Segi bizitzari irri egiten, Elaia. Ilargiraino infinito buelta maite zaitugu.



ERMUA Laida
11 urte egin zenituen urtarilaren 2an, neska handi! Asko maite zaitugu! Musu handi bat familia guztiaren partez, bereziki Inharren partez.



ELGOIBAR Elene
Zorionak, Elene, urtarilaren 21ean 5 urte handi beteko dituzulako. Patxo handi bat etxekoan, eta bereziki, Malenen partez. Asko maite zaitugu.



SORALUZE Mertxe eta Oihan
Urtarrilaren 18an eta 21ean, 63 eta 7 urte. Zorionak, amama eta Oihan! Asko asko maite zaituztet. Laiaren partez.



ELGOIBAR Aiur
Zorionak, Aiur! 2 urtetxo, zein ondo ospatu genuen atzo. Asko maite zaitugu!



SORALUZE Enara
Zorionak, Enara!

Urte askotarako!

Zorion-agurra jartzeko, hiru bide:

- 'Barrena.eus'-en erabiltzailea sortu eta barrena.eus/zorionagurrak helbidean sartu.
- Mezua bidali herrietako erredakzioetara edota Whatsappez 688 655 658 zenbakira, eta zehaztu izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta testua.
- Etorri edo deitu gure betiko egoitzetako batera.

Barrena⁺

Jarri ezazu zure publizitatea BARRENA astekarian edo www.barrena.eus webgunean

943 743 704
688 769 657

Galdetu prezioak eta
gustura erantzungo dizugu

ELGOIBAR

Ines
Altuna Leiaristi



Urtarrilaren 6an hil zen, 95 urte zituela.

Maitasunez,
beti gure bihotzetan.

Etxekoak

ELGOIBAR

Miren Karmele
Gabilondo Etxaniz



Eustakio Goñi Garmendiaren alarguna
2025eko abenduaren 29an hil zen, 91 urte zituela.

Izan zarenagatik
eta erakutsi duzunagatik
ez zaitugu inoiz ahaztuko.

Familia

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunera agertu izana.

ELGOIBAR

Maria Jesus
Makazaga Martija



2026ko urtarrilaren 12an hil zen, 80 urte zituela.

Egunak eta gauak,
uda eta neguak,
etsipen ilunenek
zorion orduak.
Bizitzaren zauriak
helburu galduak.
Laztanik xamurrenak
bide erratuak,
elkarren babesean
igarotakoak.

Bihotzean beti, amatxo maittia

SORALUZE

Txaro
Lete Lacuesta



2026ko urtarrilaren 6an hil zen.

Naturak zure gorputzarekin ahal izan du,
baina ez gudan utzi dozun oroimenarekin.
"Lurrak goxo har zaitzala"

Plazentzian kantuan

SORALUZE

Txaro
Lete Lacuesta



2026ko urtarrilaren 6an hil zen.

Soraluzeko Pentsionisten Plataformako kide izan dena sorreratik,
urtarrilaren 6an hil zen, gaixotasun larri baten ondorioz.
Langile fina, beti laguntzeko prest.
Zure indarra eta kemena gurekin gelditzen da.

Soraluzeko Pentsionisten Plataforma

ELGOIBAR

V. Urteurrena
Sabin
Osoro Unzueta



2021eko urtarrilaren 8an hil zen, 98 urte zituela.

Egunak joan dira
eta badoaz,
baina zu ez zara gugandik askorik aldendu.
Gure gogoan zara, Sabin.

Etxekoak

ELGOIBAR

Jose Mari
Arizmendi Zubiaurre
"Untzon"



2026ko urtarrilaren 13an hil zen, 84 urte zituela.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunera agertu izana.

ELGOIBAR

XIV. Urteurrena
Mari Karmen Gabilondo Etxabe



2012ko urtarrilaren 12an hil zen, 59 urte zituela.

Hotza izan zen laurogeita laua,
hotzago oraingo baraua.
Iturribideko geure zuloan
ederrak jolasak.
Atzera begiratzeko unea hartu,
elurrik ez, baina
kanotierra eta hirurok
egin dugu batu.

ELGOIBAR

IX. Urteurrena
Pedro Jose
Ansola Garate



2017ko urtarrilaren 5ean hil zen.

Bederatzi urte igaro dira,
Mauxi, joan zinenetik,
baina lagunok esan nahi dugu
nahiz joan aldamenetik
sekula ez zarela desagertu
gure bihotz barrenetik,
dena daukagula akorduan
zurekin bizitakotik,
segi gu zaintzen eta babesten
mendiaren gailurretik.

Erre Arte Kuadrila

Barrena eskelak:
zabalkunde handiena
Debabarreanean

ESKELAK JARTZEKO:
943 744 112 - barrena@barrena.eus

Bulegoak:
DEBA: Ifar kalea, 12 - 943 191 383
ELGOIBAR: Aita Agirre plaza, 3 - 943 744 112
ERMUA: Erdikokale Zeharbidea, 2 - 943 179 350
SORALUZE: Errabal, 15 - 943 751 304

ETXEBERRIA
EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)
635 756 295 - 629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.

AGENDA

OSTIRALA 16

- **ELGOIBAR 'Go!azen' kontzertua** *Go!azen* telesailako aktoreak bertan izango dira, eta bi kontzertu emango dituzte. Herriko Antzokian, 17:00etan eta 19:00etan.
- **SORALUZE Aurkezpena: Faxismoaren Aurka U31 manifestazioa (GKS Debabarrena)** Soraluzeko Gaztetxean, 18:00etan.
- **ELGOIBAR San Anton pilota txapelketako finala** Lagunak Pilota Eskolak antolatuta, San Anton Pilota Txapelketako emakumezkoen eta gizonezkoen partidak.

- Ikastolako frontoian, 19:00etan.
- **SORALUZE Josette Dacosta margolariaren erakusketa** Otsailaren 3ra arte, Oreka Art galerian. Astelehenetik ostiralera, 19:00etatik 20:00etara.
 - **ERMUA Kontzertua: Makis 37** Doako sarrera. Extremadurako Etxean, 20:00etan.
 - **ERMUA 'Aitatxo' antzezlan**a Sarrera: 10 euro. Antzokian, 20:30ean.

LARUNBATA 17

- **ERMUA Urretxu-Elgoibar mendi irteera** 08:00etan irtingo dira, Agirre kirolak

- paretik. Antolatzailea: Artarrai Mendi Taldea.
- **ELGOIBAR Eskalada jardunaldia** Olaizaga kiroldegian, 09:00etan.
 - **ELGOIBAR San Anton igeriketa torneo**a Olaizaga kiroldegian, 10:00etan.
 - **ELGOIBAR GKS** urtarriaren 31rako antolatu duen manifestaziorako deia eta aurkezpena Gaztetxean, 12:30ean.
 - **MENDARO GKS** urtarriaren 31rako antolatu duen manifestaziorako deia eta aurkezpena Gaztetxean, 16:30ean.
 - **DEBA Txotxongiloak: 'Pulcinella Txio-Txinela' (Zurrunka Teatro)** Agirre jauregiko Ispiluen gelan, 18:00etan.

- **ELGOIBAR Juan Mugertza krosek**o korrikalariei ongietorria Mugertza krosean parte hartuko duten korrikalariei omenaldia egingo diete, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 19:30ean.
- **ERMUA Haylen kontzertua** Sarrera: 10 euro. Lobiano Kulturgunean, 20:00etan.

IGANDEA 18

- **DEBA Mendi irteera** ikasleekin: Korostiola 08:30-18:30. Antolatzailea: Burdin Kurutz Mendi Taldea.
- **ELGOIBAR Juan Mugertza Nazioarteko Krosa** Mintxetan, 09:30ean.



Elorriagako San Sebastian jaiak

URTARRILAK 16

- 22:00 Mus txapelketaren izen-ematea (20 euro bikotea), Lau-Haizeta Elkartean.
- 22:30 Mus txapelketaren hasiera.

URTARRILAK 17

- Afaría Urberu sagardotegian.
- Ondoren, erromeria Imuntzo eta Beloki trikitilariekin.

URTARRILAK 18

- 12:00 Auzoko sagardogileen eskutik sagardo dastaketa Garixe, Txino eta Maltzeta trikitilariak alaituta.

- 14:00 Bertso bazkaria Jon Maia, Iker Zubeldia eta Iñigo Izagirrerekin. (Prezioa: 25 euro. Erreserbak, Whatsappez: 680 63 31 75).

URTARRILAK 20

- 18:00 Meza, Itziarko koruak lagunduta, San Sebastian ermitan.
- 12:00 Herri kirolak: Hodei Ezpeleta, Alex Txikon, Beltza eta Bihurri.
- 14:00 Bazkaria Urberu sagardotegian.
- Ondoren, Elaia eta Jare trikitilariekin erromeria.
- 18:00 Festen amaiera eta txokolate-jana Lau-Haizeta elkartean.



San Anton eguna

URTARRILAK 17

- 11:00 Meza nagusia, San Bartolome parrokian.
- 11:00 Filateliako Euskal Federazioaren urteko batzarra, Kultur Etxeko hitzaldi gelan, eta erakusketaren irekiera. Altxolako Uren 250. urteurrenari eskainia izango da aurtan.

- 11:30 - 14:00 eta 16:30-19:30 Umeentzako parkea, Aita Agirren. Euria bada, Sigman.
- 12:30 Sanantonetako kontzertua: Bost Brass. Herriko Antzokian.
- 13:45 Zigilu erakusketako partaideei esker ona adierazteko ekitaldia.
- 17:30 Erraldoi, buruhandi eta zezenzikleten kalejira, herriko dultzaineroekin.

- **ERMUA Txarriboda** Extremadurako Kultur Zentroan, 10:00etan.
- **DEBA Debako emakumezkoen binakako pala txapelketa herrikoia (gomazko pilotarekin)** Aldats pilotalekuan, 11:00etan.
- **SORALUZE Tailerra: 'Euskal Aratosteak'** 0 eta 12 urte arteko ume eta gaztetxoentzako tailerrak antolatu ditu Euskal Aratosteen lantaldeak. Kultur Gunean, 11:00etan.
- **DEBA Txotxongiloak: 'Pulcinella Txio-Txinela'** Agirre jauregiko Ispiluen gelan, 17:30ean

ASTELEHENA 19

- **DEBA Pentsiodunen mobilizazioa** Foruen plazan, 12:00etan.
- **ELGOIBAR Hausnarketa tailerra: 'Indarkeriarik gabeko komunikazioa'** Loredi Salegik gidatuko du, eta ele bitan izango da. Lilan, Elgoibarko Emakumeen Etxean, 18:00etan.
- **ERMUA Pulso, animalien argazki-erakusketa** Lobiano Kulturgunean, 18:00-20:00.

ASTEARTEA 20

- **ELGOIBAR Literatura sorkuntza tailerra** Haizeak antolatuta, literatura sorkuntza tailerra egingo dute Jasone Osororekin. Gaztelaniaz izango da. Lila emakumeen etxean, 18:00etan.
- **ERMUA Pulso, animalien argazki-erakusketa** Lobiano Kulturgunean, 18:00etan.

ASTEAZKENA 21

- **SORALUZE Tailerra: 'Google fotos'** Kalebarren 8an, 10:00etan.

- **SORALUZE Hezkuntza foroa** Herriko antzokian, 18:00etan.
- **ELGOIBAR Euskararen kale-neurketako emaitzen aurkezpena.** Aita Agirre kulturguneko areto nagusian, 18:00etan.
- **SORALUZE Gaztelerazko irakurle taldea: 'La fórmula preferida del profesor'** Liburutegian, 18:30ean.
- **ERMUA Pulso, animalien argazki-erakusketa** Lobiano Kulturgunean, 18:00-20:00.

OSTEGUNA 22

- **ERMUA Pulso, animalien argazki-erakusketa** Lobiano Kulturgunean, 18:00-20:00.
- **DEBA Debako emakumezkoen binakako pala txapelketa herrikoia (gomazko pilotarekin)** Aldats pilotalekuan, 19:00etan.

OSTIRALA 23

- **SORALUZE Porrotx eta Marimotots: 'Amazonia gara'** Soraluzeko Udaleko Kultura Batzordeak antolatuta, Herri Antzokian, 17:00etan.
- **ERMUA Pulso, animalien argazki-erakusketa** Lobiano Kulturgunean, 18:00-20:00.
- **ELGOIBAR 'El peor espectáculo del mundo'** antzerkia Herriko Antzokian, 19:00etan.
- **MUTRIKU Kontzertua: Hecetu Welo + Koda** Zubiaram tabernan, 20:00etan.
- **ERMUA 'Dulcinea'** antzerkia Ermua antzokian, 20:30ean.

ZINEMA

DEBA

KULTUR ELKARTEA

'Sirat'

Igandea, 18: 19:00.

EIBAR

COLISEO ANTZOKIA

'El extranjero'

Larunbata, 17: 22:30

Astelehena, 19: 19:30

'Extinción'

Larunbata, 17: 17:00

Igandea, 18: 17:00

'Homo Argentum'

Larunbata, 17: 19:45, 22:30

Igandea, 18: 17:00, 20:00

Astelehena, 19: 19:30

'La asistenta'

Ostirala, 16: 16:30, 19:30, 22:30

Larunbata, 17: 17:00, 20:00

Igandea, 19: 19:30

ELGOIBAR

HERRIKO ANTZOKIA

'Vida privada'

Larunbata, 17: 19:00, 22:15.

Igandea, 18: 19:00.

Astelehena, 19: 21:00.

'Tigre galdua'

Igandea 18: 16:30.

ERMUA

ERMUA ANTZOKIA

'Me has robado el corazón'

Larunbata, 17: 19:30.

Astelehena, 19: 20:30.

'La asistenta'

Larunbata, 17: 22:00.

Igandea, 18: 19:30

'Bob Esponja, una aventura

pirata'

Igandea, 18: 17:00.

'Father Mother Sister Brother'

Osteguna, 22: 20:30.



'La Asistenta' pelikulako aktoreak.

GUARDIAKO FARMAZIAK

16 BARIKUA Garitaonandia / L. Lapraiz / M. Alves

17 ZAPATUA Arriola / L. Lapraiz /A.M. Baz* / I. Lecumberri

18 DOMEKA Arriola / L. Lapraiz / A.M. Baz

19 ASTELEHENA Fernandez / H. Burgoa / A. Alcalá

20 MARTITZENA Yudego / H. Burgoa /M. I. Ugarte

21 EGUAZTENA Oruesagasti / H. Burgoa / A.M. Baz

22 EGUENA Barrenetxea / H. Burgoa / M. Alves

23 BARIKUA Soto / A. Zalduegi / I. Lecumberri

*09:00-13:30

2026ko botika ordutegiak, astelehenetik ostiralera:

Deba-Mutriku: 09:00-13:45 / 16:30-19:30

Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-13:00 / 16:00-20:00

Ermua-Mallabia: 09:00-13:30 / 16:30-20:00

Guardiak, egunez: 09:00-22:00

Guardiak, larunbatak: Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-14:00

Deba: 09:30-13:00

Ermua-Mallabia: 09:00-13:30

Guardia eguneko igandeak eta jaiegunak: Deba-Mutriku: 11:00-13:00

Itziariko botikina, astelehenetik ostiralera: 09:00-12:30

Guardiak, gauez, 2026. urte guztian: 22:00-09:00

Eibar: Elortza (Juan Gisasola, 18. 943 206 100)

FARMAZIAK

Deba: A. Zalduegi (Lersundi, 20 - 669 26 22 01)

Deba: H. Burgoa (Astillero, 2 - 667 33 88 90)

Elgoibar: Arriola (Santa Ana, 1 - 943 74 01 40)

Elgoibar: Barrenetxea (Errosario, 26 - 943 74 12 77)

Elgoibar: Garitaonandia (Uparitzaga, 5 - 943 74 11 77)

Elgoibar: Yudego (San Frantzisko, 18 - 943 74 12 93)

Ermua: A.M. Baz (Zearkale 2 - 943 03 17 03)

Ermua: M. Alves (Gipuzkoa etorbidea, 46 - 943 17 26 66)

Ermua: A. Alcalá (Zubiaurre, 29 - 943 17 17 54)

Ermua: I. Lecumberri (Zubiaurre, 9 - 943 17 00 97)

Ermua: M^a Ugarte (Goienkale, 11 - 943 17 05 26)

Mallabia: E. Arronategi (Mallazpi z/g - 943 17 24 14)

Mendaro: Fernandez (Herriko Enparantza, 4 Garagartza - 943 75 61 42)

Mutriku: Lasuen-Elezgaray (Txurruka Tenienteak, 3 - 626 61 13 92)

Mutriku: L. Apraiz (Erdiko kalea, 5 - 630 05 50 97)

Soraluze: Soto (Rekalde, 1 - 943 75 16 38)

Soraluze: Oruesagasti (Kalebarren, 9 - 943 75 13 84)

GOKI
erreformak



FATXADA BIRGAITZEAK

S.A.T.E.

FATXADA AIREZTATUAK
BIRGAITZE TRADIZIONALA
BALKOIEIEN BIRGAITZEA



ESTALKI ETA TEILATUAK

ERABATEKO BIRGAITZEAK
TERRAZA ETA ESTALKI LAUAK
MANTENTZE LANAK
SEGURTASUN SOKA FINKOAK



BARNE ERREFORMAK

ETXEBIZITZAK
LOKAL KOMERTZIALAK
BULEGO ETA ENPRESAK
SUKALDE ETA BAINUGELAK



BULEGO TEKNIKOAK

ERAIKINEN IKUSKARITZA TEKNIKOAK
EFIZIENTZIA ENERGETIKOKO ZIURTAGIRIAK
ERAIKUNTZA PROIEKTUAK



IRISGARRITASUNA

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEA
IGOGAILU INSTALAZIOAK
0 KOTA

ELGOIBAR
943 74 42 23

SORALUZE
943 12 57 41

BERGARA
943 76 53 42

Koherentzia kontua



ANE ASTIAZARAN
EUSKARA IRAKASLEA

Azken urteetan badut halako sentrazio bat urtea indartsu hasten dena. Lehen egunetan mundua hankaz gora jartzeko ahalmena duela erakutsi du Trumpek. Venezuela, Kolonia, Groenlandia, inperialismoaren aurpegiak ilunena. Indarkeriak jarraituko du harremanak eratzeke tresna izaten. Iran sutan. Sudan gerra ikusezin batean murgilduta.

Faxismoa eta eskuin muturra olio orban, nazio askapenerako diskurtsoen

forman sartu dira –eta ondo sartu ere– Katalunian, hizkuntza eta kultura katalana zaintzearen iritsi den Troiako

zaldia. Immigrazioaren aurkako kontsignak erraz barneratu ditu ardura linguistikoa eta kulturala duen jendeak. Eta guk ahaztu egin dugu hizkuntza bat ez dela galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik.

Lana eta etxebizitza kentzen dizkigute, eta laguntza guztiak jaso, delinkuentzia ekarri. Modaz pasata zeudelakoan nengoen. Eta guk gezurrez betetako algoritmoa elikatzen jarraitzen dugu.

Badirudi mundu mailako geopolitikak markatu dituela 2026 honetako lehen egunak, normalizatu ditugun gertuko indarkeriek ez baitute jada ezer markatzen.

Zer eskatuko diogu urte berriari, gure inkoherentziak onartzea ala urtea koherentziaz bizitzea?

"Bizitza borrokatzea da, eta mendirako ere balio du gaitasun horrek"

IBAN FERNANDEZ (ELGOIBAR, 1977) URTEBETEAN 365 ALDITAN IGO DA KARAKATERA

Asier Orbea Ostolaza ELGOIBAR

Hasteko, amaierara itzuliko gara. Zer sentitu zenuen urtarilaren 31n, urte hasieran hasitako erronka gauzatu eta Karakatera 365. aldiz igo zinenen?

Batetik, lasaitu ederra hartu nuen erronka gauzatzeagatik; eta bestetik, harrotasun puntu bat, erronka konplexua baita, oso. Datuei erreparatu besterik ez dago: 4.062 kilometro Karakaten gora eta behera urtebetean; eta 258.412 metroko desnibel positibo metatua. Hain zuzen, Cadizeraino lau alditan joatea adina kilometro egin ditut; edo Everest 30 alditan igo eta jaistea adinako desnibel positiboa, itsas mailatik abiatuta. Hiruzpalau igoera egiten nituen larunbatero, eta pare bat joan-etorri igandeetan. Asteazkenean zehar bi edo hiru igoera egiten nituen, egunero 11 orduz egiten baitut lan. Horrela urtebetean, hutsik egin gabe. Nahiko *alemana* naiz izaeraz. Hiperaktiboa nintzela ere esan zidan batek oraintsu. Baitelike. Egunero esnatzen naiz 05:00etan, eta ez naiz gelditu ere egiten. Hori bai, goiz eta nekeak jota oheratzen naiz.

Erronka pertsonala izan arren, jende inguratuta eman zenion amaiera?

Bai. Azken igoera zoramen hutsa izan zen horregatik. Urritik aurrera gutxitan egon nintzen bakarrik. Martitzenetan eta egunetan taldean egiten genituen Karakaterako joan-etorriak, zazpi-zortzi lagun inguru beti, eguraldiagatik aitzakiarik jarri gabe. Gogoan dut kazkabarra bota zuen egun bat, urteko igoerarik gogoangarriena izan baitzen. Solasean igo ginen, giro atseginean. Inor ez zen ekaitzaz kezatu, eta ez zitzaion inori burutik pasa buelta ematea. Lagunez gainera, ezezagunak batu zaizkit talde igoera horietara; tartean, Legutiotik, Zumaiatik eta Azpeititik etorritakoak. Esaterako, ni ezagutzera etorri zen zumaiarrak, azkeneko, 82 bat igoera egin zituen nire alboan. Positibotasun handia ekarri zuten guztiek. Une batean neu nintzen barren erronka lortzeko



Iban Fernandezek lagunengandik aitorritako jaso zuen azken igoera. ASIER ORBEA

aukera zalantzan ikusten zuen bakarra! Orkatila bihurritu eta gripeak astindu ostean, zenbakiak kontra nituen: azken hamar egunetan 22 igoera egin behar izan nituen. Igoeren egutegi-koardoa egin eta guztiei pasa nien. Ba, inork ez zuen zalantzan jarri lortuko ez nuenik!

Damutu zara erronka egiteaz, edo egitera zihozazela lau haizeetara zabaltzeaz, bederen?

Ez, sekula ere ez. Ez dut presiorik nabaritu egingo nuela esateagatik. Hori jokoaren parte da niretzat. Aurrez ere horrela egin izan dut: Karakatera bederatzi aldiz errenkadan igo eta jaisteko erronkarekin lehenik, eta Elgoibarko Itzulia lau alditan osatzeko erronkarekin gero. Lehena gauzatu egin nuen; bigarrena ez. Neuk dakit ondo ur handitan sartu zalea naizela, horixe baita behar dudana motibazioa. Gainera, nire erronkak

aditzera emanda, badakit jendeak bat egingo duela nire proiektu edo *zorakeria* hauekin. Ezinbesteko pizgarria zait jendearen laguntza. Urtarilaren lehen inor ezer esan gabe erronka hasi izan banu, ez nukeen lortuko.

Zein izan dira une gogorrenak?

Erorikoak, mastinaren erasoak... egun txarrak eduki ditudan arren, gehiago izan du onetik txarretik baino: %90 onetik eta %10 txarretik. Mastinaren erasoak lur jota laga ninduen psikologikoki. Trauma eragin zidan eta asko kosta zitzaidan erasoaren leku beretik berriro igarotzea, bakarrik zein lagunekin joanda ere. Izaeraz oso baikorra naizen arren, orkatila bihurritu nuenean beltz ikusten nuen egoera, baina lortu nuen buelta ematea. Ehun Miliak proba ere giltzarria izan zen, ordura arte denak izan baitziren egun onak. Atzera begiratuta, akatsa izan zen Ehun Miliak Karakateko erronkaren urte berean egin nahi izatea. Biak egin nitzakeela uste arren, erratuta nengoen. Taldean lehia nintzen ultratrailean, aldakako min bategatik erretiratu nintzen arte, minak ez baitzidan aldapan gora joaten lagatzen. Txindokira igotzen ari nintzela, 40 kilometroren faltan, banekien amaiteza lortuz gero taldekako podiumera igotzeko aukerak genituela. Lorpen izugarria da hori, eta eskura genuen. Orduan, erabakia hartu behar nuen: aldaka behartu eta Ehun Miliak

"Egun txarrak izan ditudan arren, erronkak gehiago izan du onetik txarretik baino"

"Ur handitan sartu zalea naiz, hori baita behar dudana pizgarria"

bukatu edo erretiratu. Baina, lehena aukeratzin banuen, akaboa Karakate 365 alditan igotzeko asmoari. Erretiratzeko erabakia hartu, eta hurrengo egunetan Karakatera igo nintzen. Ehun Milietako nire taldekideak haserretu egin ziren nire erabakiarekin, ilusioa baitzuten podiumera igotzeko.

Irakaspenik eman dizu erronkak?

Bizitza, azkenean, borrokatzea da. Eta mendirako ere balio du gaitasun horrek. Karakate garaitu dut urtebeteko borrokaren ostean. 50 urte betetzera noa laster, eta uste dut indar fisikoa, mentala eta emozionala uztartzen dituen izaera garatu dudala. Dudan adinean sasoi betean egon naitekeela ere erakutsi dit. Hausnarketa egin ostean, honako ondorio honetara ere ailegatu naiz: duela hamabost urte saiatu izan banintz, ez nukeen lortuko. Gazteagoa nintzenean hamar minutu jaitsiko nukeen batezbestekoa, baina erritmo biziago hori kalterako izango zatekeen luzera begira, eta uztartzearen erretiratu beharrean egongo nintzen, agian.

Erritmoarekin asmatu duzula, alegia.

Erritmoan zegoen arrakastarako gakoa, zalantzarik gabe. Hala uste nuen erronka burutazio soila zenean, eta halaxe dela egiaztatu dut. Eskarmentuak erakutsi zidan zein zen niretzako erritmo erosoena, urte osoarako balioko zidana: joan-etorri bakoitza ordubete eta 40 minutuan egitea. Eroso igo eta jaisten nintzen denbora horretan, erronka honetan bi zatiek baitute garrantzi bera, igotzeak beste jaisteak. Jaitsierak korrika txikian egiten nituen, oinez jaitsiz gero biharamunean minberatugoa izaten nituelako zangoak. Giharrak zaintzeko, igoera ia gehienak biderik luzeenetik egin nituen. Zangoak gutxiago behartzeko, nahiago nuen joan-etorri bakoitzean lau kilometro gehiago egin, eta ordu-erdi gehiago erabili. Txarridunako biribilgurutetik edo Kalegoen plazatik abiatzen nintzen, eta 11 kilometroko joan-etorriak osatu. Nire gorpuzkera ere lagungarria izan da lesiorik ez izateko. Hamabost kilo gutxiagorekin giharretako arazo gehiago izango nituela uste nuen. Erronkan hasi nintzenean baino lau kilo gehiagorekin bukatu nuen. Ikustekoa da zangoak nola indartu zaizkidan.